

BIDELAGUN

Elkarrizketa prozesuak laguntzen Euskal Herrian

Zenbait ikaskuntza eta bide
bat egiteko


Aitziber Blanco Goikoetxea



Aitziber Blanco Goikoetxea

BIDELAGUN
ELKARRIZKETA PROZESUAK LAGUNTZEN
EUSKAL HERRIAN

Zenbait ikaskuntza eta bide bat egiteko



ICIP

INSTITUT
CATALÀ
INTERNACIONAL
PER LA PAU

Laguntzailea



Gipuzkoako
Foru Aldundia

#29

Liburu hau PDF eta ePub euskarrietan ere argitaratu da, iraunkortasun irizpideei jarraituz.

«Eines de pau, seguretat i justícia» bildumak tresna erabilgarria izan nahi du bakearen aldeko lanarekin konpromisoa duten pertsonentzat, haien inplikazio maila edozein dela ere.

© Aitziber Blanco Goikoetxea, 2023

© Argitalpenarena: Institut Català Internacional per la Pau (ICIP), 2023

© Zuriñe Barrere Castillo, euskara itzulpena, 2024

Diseinu grafikoa eta maketazioa: Arianne Faber

© Azalaren ilustrazioa: Arianne Faber

Argitalpenaren ekoizpena: Clara Grífol García

Institut Català Internacional per la Pau

C. Aragó 244 08027 Barcelona

Tel.. 935 544 270 / icip@icip.cat

www.icip.cat

Lan hau Creative Commons-en Espainiako CC BY-NC-ND 2.5 lizentzia baten pean argitaratzen da, hemen adierazi bezala: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/>.

Zilegi da lan hau kopiatzea, banatzea eta erreproduzitzea, baldin eta irabazi asmorik ez badu, egilea izendatzen bada eta lizentziaren oharra mantentzen bada.

Aitziber Blanco Goikoetxea zuzenbidean lizentziatua da. Itzulitako komunitateekin egindako garapen proiektuen arduraduna izan da Guatemalan lau urtez. Euskal gatazkaren esparruan, elkarrizketa eta akordioa sustatzeko Elkarri eta Lokarri gizarte mugimenduetan lan egin du. Psikodramaren arloko prestakuntza egiaztatua du, eta indarkeriarik gabeko komunikazioan eta zirkulu leheneratzaileetan ere trebatu da. Elkarrizketa guneen bideratzailea da, eta hainbat euskal udalerritan bizikidetzeta prozesuak laguntzen ditu.

Aurkibidea

Hitzaurrea	10
Atarikoa	14
1. Elkarrizketa prozesuak garatzen diren testuingurua eta irekitzen doan aukera testuingurua	20
1.1. Gatazkaren eta indarkeria politikoaren testuingurua	20
1.2. Polarizazio sozial eta politikoa	26
1.3. Aurrerapausoak memoriaren, biktimen aitopenaren eta bizikidetzaren eremuan	30
1.3.1. Motibazio politikoko indarkeriaren biktimei aitopen instituzionala egiteko arauen garapena	30
1.3.2. Aurrerapausoak erakundeetan eta gizartean	34
1.4. Bakegintzaren eremuko elkarrizketen eta bideratze lanaren bilakaera	38
2. Udalerriko testuingurua, bizikidetzaren espazioa	44
2.1. Udalerriak. Gertutasun eta auzotasun dinamika	44
2.2. Elkarrizketa guneak eta horiek abian jartzea	47
2.2.1. Herritarren elkarrizketa guneak	48
2.2.2. Elkarrizketa politikorako guneak	51
2.2.3. Guneen eta udalerrien arteko lotura	52
2.3. Udalerrietako elkarrizketa guneen ezaugarri batzuk	53
2.3.1. Motibazioa	53
2.3.2. Zeregina	54
2.3.3. Osaera	56
2.3.4. Iraupena	60
2.3.5. Testuinguru soziopolitikoak	61

3. «Desberdinen» arteko elkarrizketa prozesua gizartea eraldatzeko tresna gisa	66
3.1. Lan esparru partekatua	67
3.1.1. Elkarrizketarako baldintzak	68
3.1.2. Helburu partekatutakoak	71
3.1.3. Aktak	74
3.2. Taldea lanerako espazio gisa	75
3.2.1. Talde prozesua	77
3.2.2. Talde prozesuari eragiten dioten beste elementu batzuk	83
3.3. Elkarrizketa zentzu fluxu gisa	85
3.4. Harremanen dimentsioa eta konfiantza	88
3.5. Zaintzea	91
3.6. Erabakiak hartzeko prozesua. Adostasuna	93
3.7. Elkarrizketen ahalmen eraldatzailea	98
4. Prozesuen faseak	104
4.1. Prestatze fasea	105
4.2. Esperientziara hurbiltzeko eta espazioa eraikitzeko fasea	106
4.3. Prozesuaren garapen fasea	107
4.4. Ixte fasea	109
4.5. Esperientzia gizarteratzeko fasea	112
4.6. Proiektuen fasea	114
5. Tresna edo baliabide metodologikoak	116
5.1. Iraganaren eta orainaren narratibari aurre egiteko tresnak	116
5.1.1. Bizitza historiak	118
5.1.2. Biografia pertsonalak	120
5.2. Narratibak biltzeko eta ondorioak ateratzeko tresnak	121
5.2.1. Kontakizun poliedrikoa	122
5.2.2. Mapa mentalak	123

6. Bideratze lana	126
6.1. Nork eta zertarako	126
6.2. Multipartzialtasuna eta entzutea	127
6.3. Legitimitatea eta konfiantza	129
6.4. Norberaren lana eta prestakuntza	131
6.5. Prozesu pertsonaletan bidelagun izatea	132
7. Toki mailan eraikitako bizikidetza ibilbide batzuk	134
Errenteria	136
Azpeitia	139
Hernani	142
Tolosa	145
Donostia/San Sebastián	148
Arrasate/Mondragón	150
8. Azken oharrak	152
8.1. Zenbait ikaskuntza	152
8.2. Egiteko dagoen bidea	155

Hitzaurrea

Liburu hau beharrezkoa da. Modu praktikoan adierazten ditu komunitateen bidelagun izateko funtsezkoak diren trebetasun eta prozesuak, haien bitartez gatazkak konpontzeko, indarkeriarik gabe eta halako moldez non elkar ulermen handiagoa sortu eta bana gaitzakeen oinazea eraldatuko den. Munduko leku askotan, badirudi egunetik egunera ugartzen ari direla komunitateetako tentsioak (polarizazioa, arrazakeria, alderdikeria, etab.). Komunitateen ehuna urratuz doa, eta berehala heldu behar diegu erronka horiei. Liburu hau erantzun bat da.

Hogei urtetik gorako eskarmentua dut gatazkan dauden komunitateekin lanean, bakegintzaren, adiskidetzaren eta elkarrizketaren bidez. Eskarmentu horrek gatazkaren maila guztiak hartzen ditu barnean: lagun, bizilagun nahiz ahaideen artekoak, baina baita arraza, talde etniko, erlijio... desberdineko kide ugari biltzen dituzten gatazka bortitzak ere. Nire lanean, Aitziber Blanco Goikoetxea ezagutzeko pribilegioa izan nuen duela lau urte baino gehiago elkarrizketa tailer batean. Ederki moldatu ginen berehala eta oso lotura bizia sentitu genuen, neurri batean, gatazkan dauden komunitateekin elkarrizketaren bidez lan egiteko grina dugulako biok. Denbora horretan, aldian-aldian elkartzu gara grina partekatu horretan sakondu eta gaiari buruz dakigunaren berri emateko elkarri. Ikaskuntzez eta alaitasunez betetako bidea izan da. Liburu honen zirriborroa irakurtzera gonbidatu ninduenean, aukerari heldu nion: banekien ikasbide aberatsa izango zela niretzat, urte luzeetako eskarmentua baitauka Euskal Herrian gatazkan dauden komunitateen bihotzean lanean.

Aitziberrengandik eta bere lanetik liluratzen nauten gauzetako bat da sakontasunez, intentsitate handiz eta denbora luzez egiten duela

lan bere konpromisoa duten komunitateekin. Horrek esperientzia paregabea eman dio; elkarrizketaren praktikatzailerik gutxi izan dute halakorik bizitzeko pribilegioa. Era berean, Aitziber bera ere bereziki gaitua dago lan horren berri emateko, arreta maila sakona, gogo benetan irekia eta jakin-min infinitua dituelako. Horiei esker, tentu handiz hitz egin dezake parte hartzaile bakoitzarekin, elkarrizketa bakoitzetik ikasi bitartean. Hori liburuaren alderdi guztietan azaleratzen da. Jakin-min horrek etengabe biltzera eramanez du, eta hemen jakinarazten dizkigun lan metodologia berrietara irekita egotera. Eta irekitasun horrek esan nahi du ez duela beldurrik bere okerreko urratsak eta bere akatsak guri erakusteko.

Bizipen sakona gordetzen dute liburu honetan aurkezten diren hitz eta adibideek: hemen azaltzen den guztia zuzenean bizi izan duen norbaiten esperientziak dira. Ikaskuntza ugari uza dugu hemen biltzeko. Urratsez urrats, funtsezko lan hori aurrera eramateko beharko ditugun trebetasunetan eta prozesuetan zehar garamatza liburu honek. Gainera, zehatz-mehatz biltzen ditu komunitateetako elkarrizketan ager litezkeen gai guztiak ere, eta orobat aztertzen ditu testuinguru guztiak, direla herritarren guneak, direla gune politikoak; elkarrizketaren prozesuak eta fase guztiak; bideratze lanaren kontsiderazioak eta eduki beharreko trebetasunak; aurre egin beharreko egungo eta etorkizuneko erronkak...

Ez da erraza gatazkek urratutako komunitateetan lan egitea, batez ere, indarkeriazko gatazkak direnean: halako sendotasun eta erresilientzia bat eskatzen du, mantentzeko zaila izan daitekeena. Arlo horretan ere, bere jakinduriak argia ematen digu Aitziberrek. Benetan miresten dut zein kementsu, prestu eta indartsu abiatzen den lan honek halabarrez dakartzan erronka, arazo eta zailtasunetarantz. Ez baitie itzuri egiten, aurre baizik. Emaizta liburu hau da, esperientzia praktikoko sakonarekin tartekatutako teoria. Hala, hainbatetan iradokizun zehatzak ematen ditu, komunitateek eta elkarrizketaren bideratzaileek ezinbestean erronkak topatzen dituztenean aurrera nola egin daitekeen jakiteko.

Liburu honen zirriborroa lehen aldiz irakurri nuenean, puntu nabarmenak azpimarratzen ibili nintzen, hitzaurre hau idazteko. Baina zaila izan zen, edukiak etengabe erakartzen ninduelako eta azpimarratzeko irrika gero eta handiagoa nuelako. Horrek agerian uzten du zenbateraino den erabilgarria elkarrizketaren bideratzaileontzat.

Pozez hartzen dut argitalpen hau, xehetasun zehatz eta adibide argiz josia. Bizikidetzakomunitario iraunkorra eraikitze bidean, bidaiari ekiteko tresna izango da talde komunitario askorentzat.

DUKE DUCHSCHERER

2022ko urria

Atarikoa

Euskal Herriko¹ hainbat elkarrizketa talderen bidelagun izan naizen urteetan ikasitako lezio batzuk azaltzeko proiektu honen asmoa bakarra da: ikusaraztea, neure eskarmentuaren bitartez² eta bideratzailearen tokitik, gure gizarteak eta bizikidetzaren eraikuntzan parte hartu duten eragile sozial eta politikoez azken urteotan egindako ibilbidearen zati bat.

Agian, zehatzagoa litzateke esatea ibilbideetako bat dela, alegia, guk lagundu ahal izan duguna. Izan ere, gure gizarteak urteak daramatza askotariko zidorretatik ibilbideak probatzen, zubi guztiak ez hausteko, kaltetuak konpondu eta berriak eraikitzeko. Beraz, beste pertsona eta kolektibo batzuek aurretik egindako ekarpenei, hein batean bide partekatu honetan bateratzen diren ibilbide lagundu horiei, zor zaizkie argitalpen honetan jasotako ikaskuntzen oinarri diren esperientziak.

1. Euskaltzaindiaren arabera, egokia da Euskal Herria terminoa erabiltzea «Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoa batera izendatzeko». Erakunde horren 139. arauaren arabera, «Aspaldiko mendeetatik hedatua izan da Euskal Herria izena, kultura ezaugarri aski jakinak dituen herrialdea adierazteko, politika eta administrazio mugen nahiz ezberdintasun historikoen gainetik erabilia. Izen hori *euskara + herri* hitzetatik sortua da, hots, “euskararen herria”».

2. Nahiz eta dokumentu hau ikuspegi pertsonaletik egin, hemendik aurrera pluraleko lehen pertsona erabiliko dut. Uste dut ezin dudala lehen pertsona singularrean hitz egin, zeren argitalpen honetan jasotako ikaskuntzak, bideratzaile lanetan dudan esperientziaren emaitza ez ezik, laguntzen ditudan taldeetako kideekin izandako interakzioaren emaitza ere baitira.

Ikaskuntza hori maila askotako koiunturazko testuinguru batean gertatzen da. Ikusiko dugun bezala, 2010eko hamarkadan aukera leiho bat ireki zen bake-eraikuntza bide berriak aztertzeko. Zeinu desberdineko eragile ugari eta hainbat norbanakok, askotariko ikuspegiak zituztelarik guztiak, bide ezezagun bati ekin zioten beren komunitateko bizikidetzari ekarpen bat egiteko helburu komunarekin, eta haien ausardiari, konpromisoari eta konfiantzari esker, «bestearengana» hurbiltzeko ibilbideak marrazten hasi ginen. Ibilbide horiek, perspektiban begiratuta, erreferentzia berriak sortzeko gai dira eta ekarpen esanguratsua egiten diote bizikidetzari, maila pertsonal zein kolektiboan.

Lan horrek, bada, kolektiboki eta behetik gora eraiki diren jakintza batzuetatik edaten du, harremanak eta desberdintasunei aurre egiteko moduak eraldatzeko ahalegin sakon eta zintzoak ditu iturburuan, eta ikaskuntza komun bat ekarri du. Horretarako, perspektiban begiratu diegu lagundutako prozesu eta ibilbideei, hortik, ibilitako bidea ikusarazi eta hari zentzua emateko.

Azken hamarkadetan, gatazkaren testuinguruan kokatutako bideratzaile gisa, gure lehentasuna izan da tresnak bilatzea eta garatzea, egin diren elkarrizketa esperientzietan bidaide arduratsua izan eta unean-unean sortutako premiei behar bezala erantzuteko. Metodologia edo teknika jakin bat inplementatzea baino gehiago, segurtasun eta konfiantza espazioak sortzeko prozesu bat izan da, eta espazio horietatik hainbat ibilbide moldatu ahal izan dira bakearen eta bizikidetzaren eraikuntza lan konplexuari ekiteko.

Esan bezala, arriskuak hartzeko prest agertu diren pertsona horiei laguntzeko modu arduratsu baten bila, munduko beste leku batzuetara ere begiratu dugu, beste prozesu batzuetara. Gatazkak eraldatzeko teknika eta hurbilketa desberdinetan murgildu gara. Irudimena garatu behar izan dugu, eta dinamizatutako beste elkarrizketa batzuetatik ateratako ikaskuntzak berreskuratu.

Tresna eta erreferentzia metodologiko berriak bilatu behar izan ditugu, adibidez, psikologia sozialaren alorrekoak, eta gure testuinguru

soziokulturalera eta gure hizkuntzara egokitu. Eta, hortik abiatuta eta elkarrizketa gune guztietako parte hartzaileekin batera, beste batzuen inspirazio iturri izan daitezkeen metodologia ibilbideak sortu dira pixkanaka. Azken batean, artisautza kolektiboko lan bat izan da, eta, nork bere onena ematea ez ezik, elkarrekiko konfiantza ariketa handia egitea eskatu du.

Denbora horretan zaila izan da pausatzea, egiten ari ginen lanari perspektibaz begiratzea eta zentzua ematea. Ongi jakinik eraikitze bidean zegoen prozesu batean murgilduta geundela, zailagoa zen horretarako une egokia aurkitzea. Hala ere, Kataluniako Bakerako Nazioarteko Institutuaren (ICIP) eskuliburu enkargu hau aukera bat da, eta, aldi berean, baita erronka bat ere, geratu eta orain arte egindako bideari buruz hausnartzeko. Era berean, agertzen diren premietara etengabe egokitu beharrak eta abian dauden prozesuen laguntza lanean murgilduta egoteak zaildu egin du laguntzen ari garen lanaren balioaz jabetzea, eta kanpoko begirada behar izan dugu horretaz jabetzeko. ICIPen eskutik, «Experiencias de reconciliación» nazioarteko mintegian parte hartzeko aukera izan genuen 2018an. Orduan, Brandon Hamber-ek³ esan zuen txundigarria iruditzen zitzaiola alderdi desberdinetako kide eta ordezkari politikoak gai izatea hitz egiteko, lankidetzan aritzeko eta adostasunak lortzeko, kontu benetan mingarri eta gatazkatsu batzuen inguruan, iragana eta haren ondorioak diren bezala.

Eta izan ere, hala da: azken hamarkadetan Euskal Herrian garatzen ari diren esperientzien ondorioz, desberdinen arteko elkarrizketarako,

3. Brandon Hamber John Hume & Thomas P. O'Neill katedrako irakaslea da Ulsterko Unibertsitatearen Gatazken Ikerketarako Nazioarteko Institutuan (INCORE), Ipar Irlandan. Ulsterko Unibertsitatearen Justizia Trantsizionaleko Institutuko kidea da. Halaber, Mellon Foundationeko ikertzaile bisitari itzal handikoa izan zen Giza eta Komunitate Garapenerako Eskolan, eta ikertzaile bisitaria Migrazioarako eta Gizarterako Afrikako Zentroan (Johannesburgeko Witwatersrand Unibertsitatean biak).

lankidetzarako eta adostasunerako dinamikak ezarri dira indarkeriazko gatazkaren parte diren gaiak edo haren ondorioak lantzeko. Hau da, banandu gaituen, gure aurreiritziak elikatu eta gure lubakiak justifikatu dituen guztia lantzeko. Ukitzeko, azken batean, gaur egun oraindik min ematen digun hori, adierazten baitu gure bizitzetan, kaleetan eta gorputzetan presentzia handiegia duen iragan bati aurre egin behar diogula.

Argitalpen honetan, oraindik amaitu gabe dauden ikaskuntza horietako batzuk ordenatzen saiatuko gara; izan ere, hemen eta orainean bizi dira –egiaz, “hor” eta “ordu hartan”–, eta, beraz, denborarekin osatu, zuzendu eta hobetzeko modukoak izango dira.

Zeren, bide honetan ezer ikasi badugu, hauxe baita: hau prozesu bat da, definizioz amaitu gabea, eta batzuetan atzera joan behar da aurrera egiteko. Eta berrikusi eta egokitu behar da, hortik, beste leku batean jada, aurrera egin ahal izateko, arta behar duenari arta emateko denbora hartuz. Eta hori guztia, ongi jakinik prozesua garestia dela denboran eta ahaleginetan, eta norberaren itxaropenen doluak egitea eta «bestearen» beharrak entzuteko konpromisoa hartzea eskatzen duela.

Horretan datza *bidelagun* izatea: ez baita ez bitartekari ez bideratzaile izatea, baizik eta oraindik ikasten ari garen eta egiteko dagoen bide batean laguntzea.

Era berean, garrantzitsua da argitzea dokumentu honen helburua ez dela azken hamarkadetan Euskal Herrian bultzatu diren bizikidetzeta eta elkarrizketa esperientzia anitzak eta –edukiz, taldekidez, ibilbidez eta amaieraz– askotarikoak kontatzea, protagonisten esku utzi behar baita lan hori. Eskuliburu hau «Eines de pau, seguretat i justícia» bildumaren barruan kokatzen da, eta ekarpen bat egin nahi du, Elkarri-n eta Lokarri-n⁴ lehenengo eta Berbari Lekua-n⁵ gaur egun, bideratze lanetan lortutako eskarmentutik edanez.

Zehazkiago, Gipuzkoako zortzi udalerritako ordezkari politikoen artean nahiz herritarren artean egindako prozesuei erreparatzen zaie,

hamabi elkarriketa prozesuren zuzeneko bidelaguntzatik ateratako ikaskuntzak harturik ardatz.

Prozesu horietako batzuk bideratuz lortu diren ikaskuntza metodologikoak biltzeko ahalegin honek badu beste asmo bat ere: prozesu horiei balioa ematea eta, arakatutako bide guztiak aintza hartzeaz gain, erakutsitako konpromisoa eta konfiantza eskertu eta aitortzea. Zorionez, pixkanaka sistematizazio lanak egiten ari dira, eta agerian uzten dute zenbateraino diren korralak, bai hurbilketa metodologikoak, bai garatzen ari diren elkarriketa ibilbideak. Azpimarratzekoak dira, adibidez, herritar talde batzuek egindako sistematizazio lanak, hala nola Donostiako Herritarren Foroak (*Prozesuaren kaiera*, 2021). Argitalpen honetan, modu esplizituan jaso ditugu haien ikaskuntza batzuk. Edo Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako *Bizikidetzta lantzen* programaren sistematizazioa, 2022an. Deustuko Unibertsitateak egina, sistematizazio horretan aktiboki parte hartu dute udalerrietako erakunde bideratzaileek⁶, eta, lan horri esker, elkarrekin hausnartu ahal izan dugu programaren esparruan garatutako elkarriketa prozesuetatik eratorritako zenbait ezaugarri eta ibilbideri buruz.

Txosten horretan jasotako ikaskuntza orokorretako bat nabarmendu nahi dugu:

4. Elkarri 1994tik 2005era bitartean (itxi arte) aritutako gizarte mugimendu bat izan zen, Euskal Herrian giza eskubideen, elkarriketaren eta akordioaren defentsan lan egin zuena. 2005etik aurrera, akordioaren eta kontsultaren aldeko herritarren sareak, Lokarrik, eman zion jarraipena gizarte mugimenduaren lanari. Lokarri, hain zuzen, Aieteko Nazioarteko Konferentzia antolatzen lagundu zuen gizarte erakundeetako bat izan zen (2011ko urriaren 17an, Donostian). Erakundeak 2015eko martxoan eman zuen amaiztat bere ibilbidea.

5. Berbari Lekua 2015eko maiatzean sortu zen, gizarte eraldaketako prozesuetarako aholkularitza gisa. Erakunde horrek jarraipena eman zien Lokarri erakundeak 2012tik aurrera sustatutako udalerrri mailako bizikidetzta prozesuei, elkarriketaren eta memoriaren arloko bideratzaileak eta aholkularitza eskainiz.

6. Bakeola EDE Fundazioa, Berbari Lekua eta Baketik Fundazioa.

Toki mailan gauzatutako prozesu hauek metodologia baten egonkortzea ekarri dutela baieztatu dezakegu, egiteko modu diferenteak daudela erakutsi dute; gatazkatsua izan daitekeen gai bati ekiteko, konfiantza, elkarriketa, kontsentsua, diskrezioa eta dinamizatzaile baten laguntza oinarri dituen «egiteko modua»⁷.

Beste behin ere, kanpo begirada batek ematen dio balioa norbanako eta eragile sozial eta politiko batzuek egindako lanari, gizarte konpromisotik abiatuta gauzak egiteko modu berriak eta erreferentzia berriak ezarri baitituzte bizikidetzaren eraikuntzaren lan zailari ekiteko.

ICIPi berriro eskerrak ematea besterik ez zait geratzen, garatzen ari diren prozesuak beste pertsona eta leku batzuentzat inspirazio iturri izan daitezkeelako intuizioa izateagatik –hortik sortu baita enkargu hau–. Eskerrak ematea erakundeei, halaber, konfiantzaz eta bizikidetzta eraikitzeke konpromisoz baldintza egokiak sortu baitituzte eta, hartara, elkarriketarako eta elkar ulertzeko prozesuei ugaltzeko aukera eman, batez ere udalerrri mailan. Eskerrak ematea beren komunitateetako ordezkari nagusi diren ordezkari politikoei, uko egin baitiote prozesuetan lider izateari, ardura hori udalerriko ordezkari politikoen esku utzirik. Eskerrak ematea, halaber, gobernu lanetan ez dauden ordezkari politikoei, oposizio jarrerari eusteko aukera izanik zintzotasunez inplikatu baitira prozesu partekatuan. Eskerrak ematea herritar anonimoei, behartuak ez egon arren elkarriketa prozesu sakon eta zintzoetan parte hartzea erabaki baitute, hortik beren udalerriri ekarpen bat egiteko.

Eta eskerrak ematea lezio emaile eta bidelagun izan ditugun hainbat diziplinatako profesional eta aditu guztiei. Balio dezala lan honek aldaketaren bideari ekitera arriskatu den hainbeste pertsonen konfiantzari eta ausardiari esker ikasitakoak aitortzeko.

7. Landaberea Abad, Eider eta Arrieta Frutos, Félix. *Txostena. Bizikidetzta lantzen. Gipuzkoako udalerrietan bizikidetzta lantzen. 10 urteko esperientzien sistematizazioa*. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2023ko urtarrila, 86. or.

1. Elkarrizketa-prozesuak garatzen diren testuingurua eta irekitzen doan aukera testuingurua

Dokumentu honetan lantzen diren elkarrizketa esperientziak testuinguru soziopolitiko jakin batean garatzen dira; hura deskribatzeko lana, garrantzitsua izanik, tentuz egin beharrekoa da oso. Garrantzitsua da aukera ematen duelako egindako elkarrizketen nolakotasuna eta konplexutasuna dimentsionatzeko, eta erakusten duelako arian-arian eraiki dugun metodologiak ezarri ahal daitezkeela beste testuinguru batzuetan, non gatazkak indarkeria eragin duen eta oraindik oso bizirik dagoen sufrimendua. Baina tentuz egin beharrekoa da, testuinguru hori deskribatzeak, neurri batean, gertatutakoaren «kontakizunari» ekitea baitakar, eta, aurrerago ikusiko dugun bezala, nagusiki herritarren elkarrizketa guneetan garatzen ari da gai hori.

Horregatik, kapitulu honetan ahalik eta modurik deskribatzaileenean jaso nahi dira elkarrizketa guneetan landutako gaiak nolakoak eta zein konplexuak diren hobeto ulertzen lagunduko duten elementuak; erakundeen, araugintzaren eta gizartearen eremuan irekitako aukerak; eta elkarrizketa horiek ahalbidetzeko baldintzak sortzen lagundu duten abaguneotako batzuk.

1.1 Gatazkaren eta indarkeria politikoaren testuingurua

Euskal Herria izendapenak gaur egun bi estatu eta hiru administrazio desberdinetan banatuta dagoen lurralde historiko eta kultural bati egiten dio erreferentzia. Alde batetik, Pirinioen iparraldean, Frantziako Estatuan, euskaraz Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa deitutako probintziak daude

(Labourd, Basse-Navarre eta Soule frantsesez; Labort, Baja Navarra eta Sola gaztelaniaz). Antolamendu administratiboari dagokionez, Pirinio Atlantikoetako departamendua osatzen dute Bearnorekin batera (lehen Pirinio Behereak zirena) eta duela urte batzuetatik hona nolabaiteko aintzatespen instituzionala du Euskal Hirigune Elkargoaren bitartez (Comunidad de Aglomeración del País Vasco gaztelaniaz; Communauté d'Agglomération du Pays Basque frantsesez). Lurralde horri Iparralde ere baderitzo; gainerako probintziei, aldiz, Hegoalde. Azken horiek Estatu espainiarraren mende daude eta antolaketa politiko-administratibo berezia dute diktadura frankistaren osteko erreformaren ondorioz: haietako hiruk (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia) Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) edo Euskadi osatzen dute, Nafarroak, aldiz, Nafarroako Foru Erkidegoa (NFK).

Sarreran azaltzen den bezala, lan honetan Euskal Herria izena hautatu da lurralde hori izendatzeko, euskal gatazka politiko deritzonaren osagai batzuk hartzen dituelako barnean: identitatearen ausia eta baita lurraldearena edo subiranotasunarena ere. Gaur egun, hiru milioi biztanletik gora bizi dira lurraldean: 2.220.504 Euskal Autonomia Erkidegoan⁹, 661.197 Nafarroako Foru Komunitatean¹⁰, eta 318.709 Euskal Hirigune Elkargoan edo Iparralden¹¹. Oraindik lurralde erakargarriak badira ere ikuspuntu sozioekonomikotik, migrazio fluxua askoz ere geldoagoa da aurreko hamarkaden aldean. Izan ere, XX. mendearen hirugarren laurdenean gehienbat, milaka langile hartu zituzten Bizkaiko eta Gipuzkoako probintziek oso denbora laburrean, batik batik penintsulako ipar-mendebalde, erdialde eta hegoaldetik. Eskulan gisa etorri ziren, industria hazkundeak bultzatuta, eta bertako biztanleria zeharo ugaritu zuten, nagusiki hiriguneetan lekurik gabe utzi zuten euskara.

9. Estatistikako Institutu Nazionala (INE), 2021eko urtarrila.

10. Ibidem.

11. Institut National de la Statistique et des Études Économiques (INSEE), 2020ko urtarrila.



Horrela, ikuspegi soziologikotik, dinamika demografiko horien emaitza da egungo euskal erkidegoa. Datu gisa, Jose Arandak egindako ikerketa baten arabera¹², XX. mendearen amaieran Euskadiko biztanleen erdiek bi abizenetatik ez zuten bat bera ere euskalduna eta % 20k baino gutxiagok zituen biak. Gipuzkoaren kasuan, probintzia horretan garatu baitira lan honetan landutako prozesuak, bertan ere gertatu ziren dinamika horiek, baina ez hiriburuaren inguruan, Bizkaian bezala, baizik eta udalerrri askotan zehar banatuta, bai Deba Garaiko fabrika arroan, bai Urola, Oria, Urumea, Oiartzun eta Bidasoa ibaien arroetako industria herrietan.

12. Aranda Aznar, José. «La mezcla del pueblo vasco». In: *Empiria. Revista de metodología de ciencias sociales*, 1. zk., 1998, 121-177 or.

Hizkuntzari dagokionez, gaur egun oso prozesu desberdinak bizi ditu, eskualde bakoitzaren arabera. Iparraldearen kasuan, ez du ofizialtasunik eta laguntza publiko gutxi ditu. Nafarroako Foru Komunitatean eremu euskaldunean da ofiziala, gaztelaniarekin batera, lurraldearen iparraldeko erdialdean batik bat; Erriberan, berriz, ez du aitortzen. EAEn, ordea, lurralde osoan da ofiziala, gaztelaniarekin batera. Hiztun kopuruari bagagozkio, biztanle guztien laurden bat euskalduna dela zenbatesten da, baina, azken estatistiken arabera, familia barruan gehiago erabili arren, bizitza publikoan % 12ra jaitsi da erabilera. Euskadiko eta Nafarroako biztanleen erdiak, gutxi gorabehera, erdaldun hutsak dira¹³.

Indarkeriaren testuinguruak garapen ezberdina izan du mugaren bi aldeetan. Pirinioetatik iparraldera, XX. mendeko 70eko hamarkadatik aurrera garatu zen nagusiki indarkeriaren dinamika, eta bi gidoi izan zituen: bata kanpotarra, ETaren testuinguruari lotua, eta bestea Iparralden bertan sortua eta hango aldarrikapen politikoei lotua, demokrazia errepublikar inperfektu baten esparruan. Izan ere, inperio kolonial baten oinordekoa izanik, deskolonizazio prozesuak bizi zituen une hartan; esaterako, Aljeriakoak edo Frantziar Indotxinakoak (Vietnamgo gerra ekarri zutenak).

Pirinioen hegoaldean, oso desberdina izan zen prozesua. Espainiak barne gatazka armatu bat (Gerra Zibila, 1936-1939) pairatu zuen Gobernu errepublikar hautatuaren aurkako altxamendu militarren ondorioz. Altxamenduaren kupula militarrean Francisco Franco jenerala nabarmendu zen, azkenean garaipenaren buru izan zena. Diktadura militar frankistak eta ondoriozko errepresio politiko bortitzak berrogei urte iraun zuten, harik eta, Franco hil ondoren, trantsizio prozesua hasi zen arte. Prozesu horrek eman zion bide gaur egun ezagutzen dugun monarkia parlamentarioari. Urte horietan guztietan, oso zeinu eta helburu desberdineko taldeek egin zituzten ekintza armatuak, hasi gerraosteko makietatik, eta ETaren moduko erakundeetara arte.

13. VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2016.

Motibazio politikoko indarkeria ez da lurralde honetan soilik gertatu –izan ere, Gerra Zibilak eta diktadura frankistak Espainiako herritar askoren bizitzan izan zuen eragin bortitza–, baina presentzia sakona izan du Euskadin eta Nafarroan.

ETA (Euskadi Ta Askatasuna) 1958an sortu zen, baina 1968ra arte ez zuen egin lehen ekintza armatu biktimaduna. Hasiera batean errepresio frankistaren aurkako erantzun gisa eta Euskal Askapenerako Mugimendu gisa agertu bazen ere, trantsizioaren ondoren indarkeriazko ekintzarekin jarraitu zuen, 2011ra arte; orduan, alde bakarrez eta ohiko bake prozesurik gabe, amaitutzat eman zuen bere ekintza armatua.

Indarkeria politikoa erabili zuten eragileen artean, aipatu behar dira orobat XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan zigorgabetasun osoz jardun zuten eskuin muturreko taldeak, bai eta Askapenerako Terrorismoaren Aurkako Taldea (GAL, Grupos Antiterroristas de Liberación) ere. Azken horrek lotura argiak zituen Espainiako Gobernuarekin, eta hala aditzera ematen dute talde parapolizial horien ekintzak direla-eta Estatuko goi kargudunei egindako epaiketek. Talde horiek, eta kidekoak, 1982 eta 1987 urteen artean aritu ziren, Iparralden batez ere. Azkenik, estatuko segurtasun indarrak aipatu behar dira indarkeria erabili duten eta giza eskubideak urratu dituzten eragileen artean: Francoren diktadura hura izan zen aktore nagusietako bat, eta biktimak eragin zituen halaber, 80ko hamarkadaren erdialdera arte gehienbat.


Motibazio politikoko indarkeriaren ondoriozko biktimei buruz hitz egitean, ez dago aho bateko adostasunik, ez biktima kopuruari, ez biktima guztiak onartzeari dagokionez. Indarkeriak pertsonen bizitzetan, giza harremanetan eta bizilagunen arteko bizikidetzan zer inpaktu izan duen finkatzeko, partez bada ere, lan honetan jasotakoa hartu dugu erreferentzia gisa: *Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketek buruzko oinarritzako txostena (1960-2013)*¹⁴. Hori horrela, ETAk edo antzeko beste talde batzuek hildakoak 837 direla esaten dugu.

14. Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egindako txostena. Manuela Carmenak, Jon Mirena Landak, Ramón Múgicak eta Juan M^a Uriartek egina, eta 2013ko ekainean aurkeztua.

Estatuko segurtasun indarren indarkeriaren ondorioz hildakoak 94 dira, eta talde parapolizial edo eskuin muturrekoek hildakoak 73. Hau da, 1.004 hildako dira guztira. Zaurituen artean, 3.772 pertsona aipatzen ditu guztira txosten horrek. ETAk zauritua % 69 da.

Tratu txarren eta torturen salaketei buruzko datuak ere nabarmendu behar dira. Francisco Etxeberriak 2017an zuzendutako lan honetan azaltzen dira: *Euskadin gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua (1960-2014)*. Txostenak honela dio: «Egin dugun azterlanean polizia-kidegoetako funtzionario publikoek eragindako tratu txarrak eta/edo tortura pairatu dutela modu publikoan eta/edo judizialean salatu duten 4.113 pertsona biltzen dituen errolda osatu dugu (% 17 emakumeak eta % 83 gizonak)».

Testuinguruan kokatzen amaitzeko, hona hemen motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketaren mapa argigarri bat (1960-2010 aldia). Ez dira sartu tortura ikertzeko proiektuaren datuak.



Gogoratu behar da, halaber, gatazka armatuaren beste ondorioetako bat iheslari kopurua dela, atxiloketen nahiz atentatuen beldurreratik ihesiak izan. Era berean, kontuan hartu behar dira deportatuak edo espetxera kondenatuak izan direnak, batez ere, talde armatu baten laguntzaile edo kide izatea leporatuta, kasu honetan, ETarena. Azken errealitate horrek presentzia handia du testuinguru honetan, ez bakarrik senideak eta harreman sare oso bat ukitzen dituelako zeharka, baizik eta aplikatutako espetxe politikak presoan eta haien senideen bizitzan duen eraginagatik. Ildo horretan, azpimarratu behar da zer ondorio izan dituen, praktikan, «terrorismo delituengatik» zigortutako presoek (egun 167 dira, baina 750¹⁵ inguru izatera iritsi ziren) joan den mendeko 90eko hamarkadaren hasieratik aplikatzen zaien espetxe politikak: zigorrak lehen graduan betetzea, preso komunei dagozkien eskubideak etetea, beren familia inguruetik urrun dauden espetxeetan sartzea –batzuetan, 1.000 kilometrorainoko distantzian– eta presoak hainbat espetxetan sakabanatzea, komunikazioa galarazteko. Espainiako Gobernuak 2023ko martxoan iragarri zuen euskal espetxeetara lekualdatuko zituela presoak. Horrela, amaiera eman dio urruntze politikari, eta gaur egun nabarmen egin da aurrera graduen progresioan. Hala ere, oraindik indarrean daude presoan eskubideei lotutako beste eskaera batzuk, errealitate horrek oraindik eragina duelako familietan eta udalerrietako bizitzan.

1.2 Polarizazio sozial eta politikoa

Jadanik aipatu dugun bezala, motibazio politikoko indarkeria hamarkadek giza eskubideen urraketa larriak eta sufrimendu eremu zabalak sortu dituzte euskal gizarteetan.

15. Behatokia (Foro Sozial Iraunkorraren Behatokia). *Permisos y terceros grados revocados y suspendidos por la Audiencia Nacional*, 6. monografikoa, 2023.

Gaur egun oso presente dagoen iragan horren ondorio mingarriek bizirik jarraitzen dute zuzeneko kaltetunengan, logikoa den bezala, baina eragin nabarmena dute beste herritar askoren bizitzetan ere: familiarteko, pertsonen arteko zein laneko harremanak higatuz edo hautsiz; sufrimendu bat eta bestea hartzeko modua baldintzatuz; eta bizitza soziala eta politikoa polarizatuz. Lubakien dinamikak nagusitu dira eta, neurri batean, oraindik ere nagusi dira: batzuetan, testuinguruak bandoa aukeratzera bultzatzen zuten, edo «gureekin» edo «besteekin»; beste batzuetan, berriz, testuinguruak berak esleitzen ziren bandoa batzuei edo besteei. Zaila zen ñabardurak erakustea, ideologikoki urrun zeudenei elkartasuna adieraztea edo gatazkaren konplexutasunari heltzea. Horrek guztiak sufrimendua, elkarren ezezagutza eta inkomunikazioa areagotzen lagundu du.

Gizartearen polarizazio egoera horretan, jarrera defentsiboak, baztertzailak, inposatzaileak eta bakartzailak nagusitu dira. «Bestearengana» hurbiltzea, harekin elkartu eta hitz egitea zaildu digute, eta ez digute utzi gizarte plural guztietan berez gertatzen diren desadostasun eta gatazkei aurre egiten, ez eta gure gizartearen bereizgarri izan diren indarkeriaren ondorioei ere.

Hala ere, une gogor eta polarizatuaren ere, «desberdinen» arteko elkarguneak egon dira neurri handiagoan edo txikiagoan. Batez ere eguneroko bizitzan, arnasa hartu, lasaitu eta gozatu ahal izateko beharrak leku komunak partekatzea eraman gaitu. Horregatik, eta egoeraren gordintasuna gorabehera, akordio tazitu eta inplizitu bat egon da batzen duenaz eta parteka daitekeenaz hitz egiteko ia bakarrik, hausturaren beldur. Lubakia atzean utzita aurki ditzakegun babesleku horiek galtzeko beldur. Hala ere, espazio horiek babestea ez da beti posible izan, eta, batzuetan, leku komunak ere zeharkatu eta atomizatu ditu polarizazioak: elkarte gastronomikoak, kultura edo kirol elkarteak, herri jaiak...

Horri gehitu behar zaio hainbat gizarte eragilek eta pertsona anonimok egindako lana. Hau da, «desberdinen» arteko elkarriketa guneak sortzea, biktimei beren sufrimenduan lagun egitea, indarkeriazko

gatazkari irtenbide baketsuak eta elkarrizketatuak bilatzea, zubiak babestea eta batzuen zein besteen arteko muga izatea, bakearen eta giza eskubideen kultura sustatzea. Azken batean, egunerokotasunetik haragoko leku komunak sortzea, itxaropen eta aukera eremuak, baita une gogorrenetan ere.

2011n ETAk indarkeriaren amaiera behin betiko adierazi ondoren, Aieteko Nazioarteko Konferentzia egin eta hiru egunera eta Sortu legeztatu ondoren¹⁶, ate berri bat ireki zen euskal gatazkaren testuinguruan ezezaguna genuen jokaleku batera.

Jokaleku horretan, aske, beldurrik gabe eta bizkartzainik gabe bizitzen has zitekeen ETAREN mehatxupearan bizitzera behartutako sektore sozial eta politikoa; horrek segurtasun eta askatasun sentazio handiagoa sortzen lagundu zuen. Hamarkada batez legez kanpo egon ondoren¹⁷, proiektu politiko guztiek izan zezaketen berriro ordezkariak euskal erakundeetan, eta baldintza berdinetan parte hartu bizitza politikoan; horrek normalizazio politiko handiagoa lortzen lagundu zuen.

Eta jokaleku horrek, era berean, bakegintza prozesuari berdintasun eta segurtasun handiagoz ekiteko baldintzak sortu zituen. Prozesu horretan hainbat gai landu behar ziren: besteak beste, indarkeriaren ondorio larriak, ETAREN armagabetzea, presoaren egoera, adiskidetzak eta bizikidetzak partekatuen esparru politikoa.

Gai horiek, bakea eraikitzeke euskal prozesuaren agendan jasoak¹⁸, aurrerabide desberdina izan dute eta oraindik erronka garrantzitsuak

16. 2011ko otsailean sortua, ideologikoki ezker abertzale gisa ezagutzen den euskal abertzaletasunaren korronteari atxikitzen zaio Sortu alderdi politikoa.

17. Sortuak jaso zuen legez kanpo utzi zuten arte Batasuna alderdian antolatutako ezker abertzalearen ezagutza eta kapital politikoa. Batasuna 2003. urtean utzi zuten legez kanpo Espainian, eta horrenbestez euskal erakundeetatik kanpo geratu zen haren proiektu politikoa, ia hamar urtez.

daude lantzeko. Horiei aurre egiteak onura handia ekarriko luke beste esparru eta espazio batzuetan ere; izan ere, dokumentu honen xede diren elkarrizketek gai horietako asko dituzte hizpide, eta testuinguru orokorrean izandako aurrerapenen edo blokeo egoeren eraginpean –eta, batzuetan, baldintzapean– daude.

Baina lan honen helburua ez da egoeraren diagnostiko zehatza egitea, ez eta gai bakoitza zenbateraino bete den baloratzea ere, baizik eta bizikidetzak eraikitzeke prozesuari dagokion alderdian jartzea fokua. Gure ikuspegian, iraganari eta haren ondorioei aurre egiten dion prozesua da, hortik abiatuta orain eta gerorako oinarri partekatutako eraikitzeke.

Kontua da bizikidetzan jartzea arreta, eta kasu honetan bizikidetzak ez du esan nahi jokaleku horretan denok lagunak izango garela, ezpada, Harold Good-ek¹⁹ zioen bezala, «gure etsaia bizilagun gisa ikusteko gai izango garela». Bizikidetzak esan nahi du zubi eta harreman hautsiak berreraiki behar direla. Carlos Martín Beristain erreparazio sozialeko adituak adierazi ohi bezala, «elkartasunaren oztopoak» zeharkatu eta «bestearen» saminera hurbildu behar dugula. Horrez gain, esan nahi du elkarrizketa zintzoko guneak sortu behar direla, elkar ezagutu eta, hortik abiatuta, estereotipoak eta jarrera tematsuak gainditzeko. Aldi berean, esan nahi du begirada polarizatuak gainditu behar direla, apurtu egin behar da gure inguruko errealitatearen konplexutasuna ongi ezagutu eta, hortaz, irtenbide egokienak, inklusiboenak eta iraunkorrenak bilatzeko «besteak» behar ez dugulako ideia.

18. 2013an Aieteko Nazioarteko Konferentzia egin ondoren, Foro Soziala sortu zen bake prozesua bultzatzeko. Foroa tokiko zein nazioarteko hainbat gizarte erakundek osatzen dute, eta haren asmoa da gizarte zibilak Aieteko Adierazpenean planteatutako agenda garatzeko moduak bilatzea.

19. Harold Good Irlandako eliza metodistako kide nabarmena da. 2005ean, armen desegitea gainbegiratu zuten bi lekuko independenteetako bat izan zen, aita Alec Reidekin batera. Funtsezkoak izan ziren Ipar Irlandako bake prozesuan. 2007an, Bakearen Mundu Sari Metodista eman zioten.

Azken batean, bizikidetzaren horrek esan nahi du oinarriak jarri behar direla, iraganari halako moldez aurre egiteko, non zauriak sendatzen eta indarkeria ez errepikatzen lagunduko digun, baita gure arteko desberdintasunak eta gatazkak modu eraikitzaileago eta bidezkoago batean ebazten ere.

1.3 Aurrerapenak memoriaren, biktimen aitortpenaren eta bizikidetzaren eremuan

1.3.1 Motibazio politikoko indarkeriaren biktimei aitortpen instituzionala egiteko arauen garapena

2008. urteaz geroztik, bai Euskal Autonomia Erkidegoan (Euskadi), bai Nafarroako Foru Komunitatean, aurrerapausoak eman dituzte erakundeek eta arauak garatu dira motibazio politikoko indarkeriaren biktimei guztiak aitortzeko. Aurrerapen horiek gero eta zabalagoak diren adostasun politiko batzuei erantzuten diete. Urrats horiek prozesu luze – eta oraindik arribideko – bat ekarri dute: hizkuntza inklusibo eta partekatua bilatzeko, biktimei guztien «sufirimenduaren berdintze moralak» deritzen horretan aurrera egin ahal izateko. Hala, sufirimenduaren begirada partzialak edo asimetrikoak gainditu, eta, apurka-apurka, aitortu ahal izan da urraketa berei eskubide berberak dagozkiela. Horretan, lagungarria izan da indarkeriaren eragilea baino gehiago arau esparru partekatu bat jartzea erdigunean; hain zuzen, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea. Esparru horren arabera, giza eskubideen ikuspegitik heldu behar zaie indarkeria politikoen ondorio larriei, horrek aukera ematen baitu iraganari modu objektiboago, ekitatiboago eta bidezkoago batean aurre egiteko, eta biktimei guztiei duintasun bera itzultzeko. Argitu behar da, prozesu dinamiko gisa, oraindik ere erresistentzia batzuk sortzen dituela: batzuen kezka da ez ote duen biktimizazio bakoitzaren espezifikotasuna lausotuko eta, horrela, gertatutako guztia nahastu eta parekatuko.

Hizkuntza inklusibo horren bila, urratsak egin dira biktimei horiek sortu dituen indarkeria mota izendatzeko orduan ere. Gai hori garrantzitsua izan da, jasandako indarkeria mota bakoitzari esleitutako adjektiboak baldintzatu egin baitu, batetik, biktimei estatusaren aitortpena eta, bestetik, estatus horrek dakartzen eskubideez baliatu ahal izatea. Hau da, egitarako, justiziarako, erreparaziorako eta ez errepikatzen bermeetarako eskubideen subjektu izan ahal izatea. Hizpide dugun indarkeria identifikatzeko garaian, «motibazio politikoko indarkeria» terminoak lortu du azken hamarkadetan adostasun handiena²⁰. Kontzeptu horren bidez, terrorismoaren biktimeak eta poliziaen abusuaren biktimeak bildu nahi dira²¹. Garrantzitsua da argitzea «politikoko» terminoaren asmoa ez dela halako indarkeria zuzitzea, baizik eta funtzio deskribatzaile bat betetzen duela. Ezaugarri hauek dituzten ekintza kriminalak bereizi nahi ditu: 1. Izaera politikoa dute ekintzaren egileak (subjektu biktimarioa), edo aukeratutako biktimeak (edo biktime taldeak), zeinari giza eskubideak urratzen zaizkion, edo biek; 2. Intenzionalitateak eta egindako ekintza motek aldarrikapen batzuk dituzte, edo estatus politiko bat edo lege batzuk aldatzeko egiten dira, edo alderantziz: ahalegin horretan ari direnak jazarri eta zigortzea da asmoa, delituak terrorismoaren aurka borrokatzeko edo kalte handiagoak saihesteko egiten direla justifikatuz; 3. Inpaktu sozial edo politiko bat eragin nahi da, edo beldurtu, geldikeria sortzeko, geldiarazteko, edo zigor gisa balio dezan, eta ez da ez justiziarekin kolaboratzen, ez ikertzen, zigorgabetasuna dago²².

20. Termino hori Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzaren txosten batek jaso zuen lehen aldiz: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketan biktimei buruzko txostenak* (2008ko ekaina).

21. Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 1985eko azaroaren 29ko 40/34 ebazpenean, «botere abusuaren» biktimeak nor diren eta zer eskubide dituzten jasotzen du.

22. *Motibazio politikoko indarkeriaren ondoriozko giza eskubideen urraketan biktimei buruzko txostena*.

EAEn, lege esparru hori indartu egin du 4/2008 Legeak, ekainaren 19koak, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoak. Arau horren helburua da laguntza eta babesa ematea, ETaren biktimei ez ezik, baita beste talde edo talde armatu batzuen biktimei izandakoei ere, hala nola GAL²³, BVE²⁴ eta beste talde parapolizial batzuenak.

Legebiltzarraren erabakiek emandako arauen artean, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua dago, «Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimei aitortzekoa eta biktimei horiei ordainak ematekoa». Dekretu horrek jarraipena eman zion aurreko urteetan euskal erakundeek egindako lanari, eta bide bat ireki zuen, terrorismoaren biktimei ez ezik, aitorpena izan dezaten Estatuko segurtasun indarrek erabilitako eta «botere abusu» gisa tipifikatutako indarkeria dela medio beren giza eskubideak urratuta ikusi dituztenek ere. Motibazio politikoko indarkeriaren biktimei ikuspegi inklusiboagoa proposatzen eta ezartzen du.

Hura onartuta, Eusko Jaurlaritzak aitortu nahi zuen «bidegabea dela biktimei haien sufrimendua» eta «beharrezkoa dela, halaber, biktimei erakundeen aldetik jasan duten ahanztura amaitzea». Era berean, adierazten zuen «asmo irmoa duela sufrimendu hori arintzen laguntzeko eta, horretarako, ordainak emateko neurri batzuk ezartzen dituela» legean²⁵.

23. Askapenerako Terrorismoaren Aurkako Taldeak (GAL) segurtasun indarretako kidez eta soldatapeko mertzenarioz osatutako talde terrorista bat izan ziren. ETaren eta haren inguruaren aurkako gerra zikina egin zuen 1983 eta 1987 urteen artean, aktibo egon zenean.

24. Batallón Vasco Español (BVE), batzuetan Aliantza Apostoliko Antikomunistarekin (AAA), Antiterrorismo ETarekin (ATE) edo Acción Nacional Españolarekin (ANE) identifikatua, erakunde terrorista parapolizial bat izan zen, batez ere Euskal Herrian eta Frantziako hegoaldean jardun zuena. 1975eko ekainean hasi zen operatzen, eta 1981eko apirilaren amaieran bukatu zuen.

2016ko uztailean, Eusko Legebiltzarrak 12/2016 Legea onartu zuen, «Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko», 107/2012 Dekretuarekin hasitako esperientziari jarraipena emateko asmoz. Diziplina anitzeko Balorazio Batzorde bat eratu zen ondorioz, eta 1.000 kasu baino gehiago jaso ditu oraindano. Horiek baietsiz gero, beste hainbeste biktimei aitortuko lirake.

Azkenik, 2017an, *Euskadin gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua (1960-2014)* aurkeztu zen, Kriminologiaren Euskal Institutuak (KREI) egina, Eusko Jaurlaritzaren enkarguz. Giza eskubideen urraketa berriak ekarri zituen argitara, eta sinesgarritasuna eman zien tortura eta tratu txarren milaka salaketei.

Hala ere, Espainiako Estatuan ez dira neurri berean eman aipatutako aurrerapausoak. Biktimei babesa emateko arauen garapenak bilakaera garrantzitsua izan duen arren, gaur-gaurkoz terrorismoaren biktimei besterik ez dituzten barnean, eta ez dira betiere ETarenak soilik.

Horrez gain, 29/2011 Legea, irailaren 22koa, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Babes Osoa emateko, eta hura garatzeko dekretua onartu ziren²⁶. Hala, testu bakar batean bateratu ziren kolektibo

25. Dekretuak gogorarazten duenez, «biktimei haien eskubideak larri urratu ziren, zigor-ordainik gabe eta propio, asmo politikoz, 1960. eta 1978. urteen artean, gure Konstituzioa onartu aurreko demokrazia-aurreko garaian». Adierazten du gertakari horietako asko ez zirela ikertu ere egin, eta ikertu zirenak ez zituztela izan behar adina berme legal eta judizial. Dekretuak ofizialki aitortzen du biktimei horiek izan bazirela, baita «jasanarazi zitzaizkien bidegabekeria [ere], eta sekulako garrantzia du horrek, gertakari haiei askotan Estatuaren agenteak izan baitziren zuzenean tarteko». Eusko Jaurlaritzak adierazten duenez, sinetsita dago biktimei horiei aintzatespen publikoa egitea dela, halaber, «indarkeriari zilegitasun guztia kentzeko jokabiderik onena, inork ez dezan, euskal gizartearen, zigorrik izango ez duen ustean, indarkeria zuritu».

26. 671/2013 Errege Dekretua, irailaren 6koa, 29/2011 Legearen Erregelamendua onartzen duena.

horren eskubideak arautzen dituzten indarreko arau guztiak, eta haien eskubideak hedatu ziren. Arauaren azken helburua biktimaren erreparazio osoa da, eta 1960ko urtarrilaren lelik aurrera gertatutako egintza guztiei atzeraeraginez aplikatzea onartu zen.

Estatuan, indarkeria norik eragin duen azpimarratzen jarraitu dute, eta egindako aurrerapenak terrorismoaren biktimen eskubideen estaldurari dagozkio; praktikan, horrek esan nahi du gaur egun aitortu gabeko eta are ukatutako biktimak daudela oraindik. Giza eskubideen urraketak jasan arren, egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea ukatuta duten pertsonak. Bestetik, terrorismoaren biktimei babes eta errekonozimendua emateko Estatuko arau esparrua ez da beti egian eta justizian zertu. Aitzitik, nagusiki laguntza eta erreparazio ekonomikoaren esparruan eman dira aurrerapauso handienak.

1.3.2 Aurrerapausoak erakundeetan eta gizarteetan

2012. urteaz geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoan bi eremu instituzional espezifiko sortu dira memoriaren, biktimen eta bizikidetzaren arloko politika publikoak ezartzeko. Eusko Jaurlaritzaren esparruan, 2012. urtean Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia eratu zen; 2014ko azaroan, berriz, Gogora sortu zen, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua.

Gaur egun, Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritzak jarraitzen du arau esparrua zabaltzeko eta biktima guztiak aitortzeko lana. Hainbat institutu, zentro eta adituri eskatutako txostenak argitaratu dira bidegabekerien, urraketan eta sufrimenduen errealitateen arretagunea zabaltzeko, eta askotariko indarkeria errealitateak jasotzen dituzte; besteak beste, jazarpena, estorsio ekonomikoa, tortura eta tratu txarrak, ETak mehatxatutako pertsonak edo ETak ertzainei eta haien senideei egindako mehatxuak.

Era berean, 2013an, «Bizikidetzaren sustatzen» programa jarri zuen martxan Gipuzkoako Foru Aldundiak. Legegintzaldiz legegintzaldi

eboluzionatu egin du, eta gaur egun «Bizikidetzaren lantzen» izenez ezagutzen da. Gipuzkoako 28 udalerritan eraman da aurrera programa hori, eta aterki instituzional bat eta laguntza ezinbestekoa eman du aurrerago deskribatuko ditugun tokiko elkarrizketa esperientziak garatzeko.

Eremu instituzional horien eta aipatutako lan ildoen sorrerak esparru instituzional espezifiko bat taxutu du, beste toki erakunde batzuei eta beste gizarte eragile batzuei aterki eta babes gisa balio izan diona. Horrek guztiak asko lagundu du bizikidetzaren eraikitzearen prozesu orokorraren aurrerabidean.

Era berean, udalerritan mailan, Gipuzkoako hainbat herririk memoria berreskuratzeko lan nabarmengarriak egin dituzte. Haietako bakoitzak txosten bat atera du argitaratu, eta hor jaso du giza eskubideen zer urraketa larri eta indarkeriazko zer egintza egin diren motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan, XX. mendeko 50eko hamarkadaren amaieratik hasi eta gaurdaino. Lehen aipatutako euskal erakundearen ikerlanak osatzera etorri dira txosten horiek.

Ikerlanen egileak bi erakunde izan dira: Argituz Giza Eskubideen Aldeko Elkarte²⁷ (lehen lana Errenterian aurkeztu zuten, 2015ean) eta Aranzadi Zientzia Elkarte²⁸ (lehen liburua Azpeitian aurkeztu zuten, 2018an). Ikerketa horiek irudi zabal eta inklusibo batez hornitu dute udalerririk bakoitza, bai giza eskubideen urraketan biktimei dagokienez, bai sufrimenduzko errealitatei eta horien eraginei dagokienez. Hala ere, ezin dugu esan irudi hori behin betikoa denik; izan ere, gaur egun oraindik ez da erraza indarkeriaren ondorioak sufritu dituzten pertsona

27. Argituz-en helburua da, batetik, giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura bat bultzatzea eta, bestetik, ezagutaraztea nola erabili den Nazioarteko Zuzenbidea hurbileko urraketak ikertzeko, Euskal Herrian izandako urraketekin alderatuz.

28. Elkarte horrek ondare zientifiko, historiko eta kulturala zaintzea eta balioestea du xede, gizarte modernoaren bilakaera ulertzeko erreferentzia den aldetik.

guztiekin hitz egin nahi izatea eta ez dugu gertatutakoaren egian sakontzeko aukera ematen duen dokumentazio guztia eskuratzetik. Horregatik, berez amaitu gabekotzat jotzen dira txosten horiek, etorkizunean lekukotza eta dokumentu iturri gehiagorekin osatu ahal izango direlakoan. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea eta ekitate printzipioa irizpide gidari izan dituen metodologia profesional batean oinarrituta, egin diren udalerrietan ordezkatutako indar politikoen adostasuna izan dute azterlan horiek. Horretarako, aurretiazko lan bat egin behar izan da oinarritzko adostasun beharrezkoak lortu eta, hortik abiatuta, udalerriko biktimen guztiak onartu eta aitortzeko, ikuspegi partzial eta polarizaturik gabe. Txosten horiek tokiko egitura instituzionalen bidez onartu dira (osoko bilkuretan) eta, hortaz, erakundeek baliozkotzat jo dute udalerrri mailan gertatutakoaren egia. Baliozkotze horrek ez du ordezkatzen udalaz gaindi eta, batez ere, Estatuan lortu beharreko aitortpena, haren bidez gauzatu ahal izango baitira biktimei dagozkien eskubideak, baina urrats garrantzitsua dira memoria partekatuaren eraikuntzan eta biktimen aitortpenean.

Gainera, txosten horiei esker, oinarri komun bat finkatu ahal izan da, biktimen aitortpenaren eta erreparazioaren lan labain baina beharrezkoari aurre egiteko. Udalerrri batzuek ibilbide orriak eta laguntza eta aitortpen protokoloak sortu dituzte –egitera ausartzeak ematen duen ikaskuntza enpirikotik abiatuta–.

Azkenik, 2012an, askotariko indarkerien biktimen batzuek (ETA, GAL, BVE, indar polizialak) elkarrekin izandako bilerak ezagutarazi ziren, bost urtez isilpean mantendu ondoren. «Ezberdinen» eta batzuetan «etsaien» arteko elkarrizketa ezinezkoa zirudienean egin ziren bilera horiek. Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimen Zuzendaritzak sustatutako ekimen horri Glencree²⁹ izena jarri zioten, Irlandako

29. Esperientzia hori lan honetan jaso zen: Martin Beristain, Carlos; Bilbao, Galo eta Ibañez de Opacua, Julian. *Ondas en el agua. Un análisis de la experiencia Glencree*. Instituto Catalán Internacional para la Paz, 2015.

gune horretan jarri baitzuten martxan. Espazio berean, elkar entzun, askatasunez hitz egin, «bestearen» sufrimendua onartu, eta oinazean elkar ezagutu eta biktima izaera aitortu zioten elkarri. Norberaren ideologietatik harago, gai izan ziren pertsonari balioa emateko. 2012ko ekainaren 16an, ondorioen aurkezpen publikoan, dei hau egin zioten gizarteari:

Gizartea osoa gonbidatu nahi dugu, elkarte, erakunde zein herritarrak, autokritikaz azter dezaten iragana, egiarekiko eta justiziarekiko konpromisoak. Zauriak sendatzeko, ez dago tentsiorik eta gatazkarik gabeko prozesurik. Guk, beharbada, inork ez bezala bizi izan dugu hori. Baina espero dugu partekatu dugun esperientzia honek beste batzuk animatzea guk elkarrekin egin dugun bideari ekitera edo jarraitzera.

Faktore eta eragile askok aktiboki lagundu dute gure gizartean bizikidetzaren prozesuak aurrera egiteko baldintzak sortzen. Hala ere, testuinguru labur honetan, alderdi batzuk nabarmendu nahi izan ditugu, gure ustez eragina izan dutelako, hein handiago edo txikiagoan, hala elkarrizketa guneetako parte hartzaileengan nola elkarrizketen sustatzaile edo bultzatzaileengan.

Azken urteotako aurrerapenak aurrerapen, oraindik bada lanik egiteko. Gaur egun ere, errealtatearen ikuspegi edo posizionamendu polarizatu batetik hurbiltzen dira batzuk memoriara edo bizikidetzara. Zenbait sektoretan, oraindik irauten dute biktimen sufrimenduaren eta aitortpenaren gaineko begirada partzialak. Onen eta txarren ikuspegi binario batetik, gure gizarteko errealtatearen konplexutasuna sinplifikatu nahi dute batzuek; iraganaren irakurketa bakarra egin ahal izatearen ideia elikatzen jarraitzen da; elkarrizketarako, zaintzarako eta akordio politiko zabalak lortzeko espazioak falta dira; sufrimendu espazioek irauten dute; eta hizkuntza elementu bereizlea da oraindik, abegi egitekoa baino gehiago.

Makro mailan jendaurrean eszenifikatzen diren zailtasun horiek eragina dute udalerrietako elkarrizketa guneetan, eta baldintzatu egiten

dituzte. Ikusiko dugun bezala, eragina handiagoa da espazio politikoetan, zeren, neurri handi batean, tokiko mailan lortzen ari diren adostasun eta lankidetzaren dinamiken aurka baitoaz.

1.4 Bakegintzaren eremuko elkarrizketen eta bideratze lanaren bilakaera

Argitalpen honetan, batez ere, 2012tik Gipuzkoako zenbait udalerritan garatzen ari diren elkarrizketa esperientzietatik ateratako ikaskuntzak deskribatuko ditugu, baina, horretarako, gogora ekarri behar dugu zer bilakaera izan duten dinamizazioak eta elkarrizketek azken hamarkadetan. Urteetan garatutako elkarrizketa ekimenei esker ikasitakoari balioa eman, eta beste hurbilketa metodologiko batzuen ekarpena nabarmendu.

Esan bezala, ez ginen hutsetik abiatu. Indarkeriaren eta bazterketaren urte gogorrenetan ere, «desberdinen» arteko elkarrizketa defendatu eta sustatu da, gizarte zibilaren aldetik neurri handi batean, baina baita euskal erakunde batzuen aldetik ere, gure gizartearen bizikidetzaren arazo larriak konpontzeko tresnarik egokiena eta eraginkorra zelakoan.

XX. mendeko 90eko hamarkadan, norberaren erreferentzia taldearen kontrako traiziotzat, ahulezia sintomatizat edo norberaren identitatearen ukaziotzat hartzen zen aurkari politikoari, «besteari», etsaiari hitz egitea edo entzutea. Bizitzaren, osotasun fisikoaren edo askatasunaren gaineko mehatxu erreala beldurra markatzen zuen garai hura, gainera. Testuinguru horretan, bi egiteko zituzten sortutako espazioek: alde batetik, elkargune seguruak sortzea, eta, bestetik, elkarrizketari balioa ematen laguntzea, gatazkak kudeatzeko tresnarik egokiena baita, indarkeriaren eta inposaketaren aurkako antidotoa izateaz gain. Alde batetik, ikusarazi nahi zen «desberdinen» artean gutxieneko adostasunak lor zitezkeela, eta, bestetik, «besteari» hitz egitea ezinezkoa delako uste errota deseraiki. Entzute aktiboaren bidez, gizartearen polarizazioa eta inkomunikazioa elikatzen zuten estereotipo eta egia absolutuetako batzuk hautsi nahi ziren. Garrantzitsuena, orduan, esperientzia arrakastatsuak erakustea zen.

Horrek guztiak baldintzatu egiten zituen sustatutako elkarrizketa guneak edo foroak gidatzeko edo dinamizatzeko metodologiak eta moduak. Elkarrizketen moduko (1992-2006) gizarte zibileko erakundeek, edo *Konpondu*³⁰ ekimenaren esparruan garatutako elkarrizketek, ezaugarri hauek zituzten, besteak beste:

- Forma eta eduki aldetik oso norabide markatua zuten, eta dinamizatzailerak gidatzen eta zaintzen zuten taldea.
- Elkarrizketak oso zurrunik ziren, bai denboretan –txanda arautuekin–, bai ezarritako gai edo helburuetan –elkarguneak aurkitzea, desadostasunak ezkutatu gabe, baina partekatutako gerezakeena bilatzea nabarmenduz–.
- Maila dialektikoak izan zuten prebalentzia, eta ez hainbeste emozionaltasunak, baina sentimenduak oso presente zeuden, eta orduan ez genekien zer egin haiekin, nola eutsi, gure burua arriskuan jarri gabe.
- Elkarrizketa esperientziak hasiera eta amaiera markatua zuten, baita saio kopuru jakin bat –bizpahiru saio– eta epe argi bat ere, eta horrek segurtasuna eta konfiantza sortu zuten.
- Oso espazio kontrolatuak ziren, oso marjina txikia uzten zuten gatazkaren konfrontazio edo eszenifikaziorako. Gatazka modu negatiboan eta suntsitzailean ulertzen zen, gure inguruan bizi genuen moduan.
- Gai zehatz bat zegoen: bakegintza edo indarkeriaren amaiera, normalizazio politikoa, gatazka politikoa, bakerako agenda...
- Entzute aktiboak garrantzi handia zuten. Elkarrizketen sortutako «Hiru Txandatan» elkarrizketa metodologiak, adibidez, entzutea behartzen zuten azken fasean, entzundakotik interesgarriena edo baliotsuena nabarmentzea eskatzen zuelako. «Bestearengan» jartzen zen arreta, ekarpen garrantzitsuak egiteko duen norbait zelakoan.

30. *Konpondu* herritarrek bake prozesuan parte har zezaten bultzatzeko programa oso bat izan zen. Eusko Jaurlaritzak sustatu zuen, 2007. eta 2008. urteetan. Ehunka lagunek hartu zuten parte udalerritan, unibertsitateetan, gazteen artean, diasporan eta sareetan abian jarritako foroetan.

Perspektibaz begiratuta, metodologia horiek beren sorrerako helburuak lortu zituzten: kontrako testuinguru batean espazio seguruak sortzea eta «desberdinen» arteko elkarrizketari balioa ematea. Gainera, gizarteak bakea lortzeko zeregin aktiboa duela aldarrikatzen lagundu zuten, eta entzute aktiboko eta elkarrizketako ariketa benetakoak eta berritzaileak ekarri zituzten. Era berean, eta esperientzia horietako parte hartzaile batzuei entzun ondoren, askotan «bestearekin» elkartzeko lehen esperientzia izan ziren foro horiek, bizkar emandako errealitate batzuetara hurbiltzeko aukera bat. Lortutako errespetu giroa gogoratzen da bereziki.

Hala ere, elkarrizketa horiek bilakaera bat izan dute, halaber, testuinguru sozial eta politikoak bezala. Bilakaera horrek, halabeharrez, dinamizatze modua eta hurbilketa metodologikoak egokitzea eskatu du, sortutako premia berriei, testuinguruaren baldintzei eta gizartearen lehenetsune erantzuteko.

Elkarrizketa gune horiek dinamizatzen ditugun pertsonen eta erakunde ezaugarrietako bat da testuinguru berean gaudela. Espazio horietako bideratzaileok gizarte honetako parte gara, eta gure hasierako egoerak eta posizionamenduek zailtasun bat gehitzen digute. Baina, aldi berean, testuingurua ezagutzeak abantaila bat ematen digu egindako urrats eta mugimendu bakoitzaren garrantziaz jabetzeko orduan.

Atal honen hasieran aipatu dugun bezala, 2012az geroztik lagundu diren tokiko esperientzien esparrutik atera dira dokumentu honetan jasotako ikaskuntzak. Elkarrizketa gune horietara lehenengoz hurbildu ginen sinetsirik ezen bideratzailearen erantzukizuna zela jarraitu beharreko bidea eta egin beharreko urratsak markatzea, konponbideak bilatzea eta espazioan gertatzen zenaren ardura hartzea. Iragana, oraina eta etorkizuna bereizten hasi ginen, konpartimentu estankoak balira bezala; landu beharreko gaiak definitu genituen, gizarte premia nagusiak jada ezagunak zirelakoan. Baina esperientziak laster jarri gintuen gure lekuan, eta erakutsi zigun kaxoi estankoez ez zutela balio, elkarrizketek guk markatutako egiturak gainditzen zituztela, eta galdera sortzaileak

motz geratzen zirela entzuten zen guztia hartzeko. Eta hasi ginen igartzen elkarrizketa zirkular batzuetara ari ginela hurbiltzen, linealak baino gehiago. Elkarrizketan zehar, planteatutako gaietan sartu eta irteten ginen, gai berriak azaleratzen zirela ikusten genuen. Hori guztia itxurazko logikarik gabe, baina, azkenean, hitz egindakoak eta noraezean esandakoak aurreikusi gabeko zentzu bat hartzen zuen.

Ikusi genuen elkarrizketak ez zirela maila politikoan soilik mugitzen, ezta «gatazkaren kausak» eta gisako gaiak jorratzen zirenean ere; aitzitik, geruza humano eta pertsonalenak bere tokia eskatzen zuen. Bizitakoa partekatu eta azaltzeko nahia zen nagusi, bizipenei tokia uzteko beharra.

Elkarrizketa guneetara hurbiltzen ziren pertsonak prest zeuden beren emozioei leihoak eta ateak irekitzeko, batzuetan urte luzez isildutako bizipenak partekatzeko, eta hortik iraganari eta orainari aurre egiteko, etorkizuna eraikitzearen. Elkarrizketa korapilatsu, konplexu eta are deserosoei aurre egin behar zitzairen. Hortik premia berri batzuk agertu ziren, eta espazioetan egoteko modu berriak eskatzen zituzten. Elkarrizketen prozesuzko izaera sumatzen zen: bagenekien nola hasiko ginen, baina zaila zen azken emaitza asmatzea, eta horrek prozesuaren gaineko kontrola galtzea zekarren.

Gure tresnen eskasiaz jabebarazi gintuen horrek guztiak. Pausatzea zegokion, beraz, metodologiak birpentsatzea eta elkarrizketa testuinguru berrira egokitzeko prozesu pertsonalei aurre egitea. Horretarako, tresna eta teknika metodologiko eta esparru kontzeptual berriak mailegatzeko aukera ematen ziguten profesional eta prestakuntza batzuetara hurbildu ginen, gure gatazkarekin berariaz lotuta egon ez arren. Hainbat diziplinatatik ikasitakoari esker –besteak beste, psikologia soziala, psikodrama³¹, indarkeriarik gabeko komunikazioa³² edo Brasilgo faveletan garatutako

31. Psikodrama psikoterapiaren adar bat da, Jacob Levy Morenok XX. mendeko 20ko hamarkadan asmatua. Antzerki teknikak erabiltzen ditu barne elkarrizketa eszenatoki gainean jarri eta hortik esku hartzeko.

zirkulu leheneratzaileen metodologia³³—, askotariko baliabideak txertatu ahal izan ditugu gure lanean: gatazkara hurbiltzeko modu berriak, taldeetan mugitzen diren emozioak eta beharrak identifikatzeko eta itzultzeko tresnak, talde dinamika irakurtzeko tresnak, eta entzute sakonagoa eta konexio handiagoa ahalbidetzen duten teknikak.

Guztia ere, gure elkarrizketa guneetan zentzua izango zuen hizkera batera egokituta. Guk lagundutako testuingurura eta elkarrizketetara egokitzeko bide horretan, antzeko esperientziak zituzten beste pertsona batzuk bilatu genituen, baita indarkeriak polarizatutako edo astindutako gizarteetan bizikidetzara eraikitze jardunbide egokiak ere. Gainera, bideratzaile gisa ditugun mugez jabetu ginen. Batzuetan denbora behar izan dugu prozesuren batean bizitakoari perspektibaz begiratu, gertatutakoa ulertu eta zentzuz hornitu, eta etorkizuneko beste esperientzia batzuetarako baliagarriak diren ikaskuntzak ateratzeko. Argitalpen honetan jasotako ikaskuntzetako batzuk prozesatu eta kokatzeko denbora behar izan duen esperientzia askiez baten emaitza dira. Geoffrey Corry-k³⁴, hogeita hamar urte baino gehiagoko esperientzia duen

32. Indarkeriarik gabeko komunikazioaren eredia Marshall Rosenberg-ek garatu zuen, XX. mendeko 60ko hamarkadako bitartekari, hezitzaile eta terapeuta estatubatuarrak. Pertsonak elkarrekin (eta nork bere buruarekin) enpatiaz eta eraginkortasunez komunikatzea bilatzen du. Nabarmentzen du zein garrantzitsua den oharrak, sentimenduak, beharrak (desirak-jomugak) eta eskaerak argi eta garbi adieraztea, bazter utzirik etiketatzen eta epaitzen duen hizkera ebaluatzailea eta esijentziazko hizkera.

33. Zirkulu leheneratzaileaz hitz egitean, Dominic Barter-ek 90eko hamarkadan Brasilgo faveletan garatutako metodologiaz ari gara. Metodologia horrek urrats oso zehatzak dituen elkarrizketa prozesu bat planteatzen du, entzute sakonean, autoerantzukizunean eta konexioan oinarritua. Gatazkak eraldatzen eta komunitate zentzua eraikitzen laguntzen du.

34. Geoffrey Corry Irlandako familia eta lan arloko bitartekaria da. 1991n bitartekaritza komunitarioa sartu zuen Dublinen, eta elkarrizketa politikorako berrogeita hamar tailer baino gehiago eskaini zituen bakerako eta adiskidetzeko Glencree Zentroan bake prozesuaren urteetan, 1994tik 2006ra bitartean.

bitartekari irlandarrak, zintotasunez eta erantzukizunez aitortu bezala, «ziurrenik ez nintzen izan elkarrizketa talde hartako bideratzailearik onena, baina neu ninduten», eta ardura horretatik behar dugu lagundu.

Elkarrizketa guneak, arian-arian, elkarrengana hurbiltzeko, elkartzeko eta bestea ezagutzeko prozesu sakonak garatzeko aukera ematen duten tokiak bihurtu dira. Eta elkarrizketa guneak dinamizatzetik, pixkanaka, haiek bideratzerara eta bizikidetzara prozesuetan bidelagun izatera igaro gara. Horrek guztiak elkar konfiantzazko eta artisautza kolektiboko ariketa handia eskatu du. Horrela, hainbat ibilbide edo bide marraztu dira, elkarrizketak adina, baina izendatzaile komun bat dute guztiek: aldaketarako eta desberdinen arteko bizikidetzarako espazioak dira. Izendatzaile komun horrek ematen die esangura elkarrizketa esperientzia guztiei; gainerakoan, berdinek gabeak eta errepikaezinak dira.

2. Udalerriko testuingurua, bizikidetza espazioa

Puntu honetatik aurrera, azken hamar urteotan tokiko mailan lagundu ditugun elkarrizketa prozesuen ezaugarriak deskribatzen hasiko gara. Aipatu dugun bezala, Gipuzkoako 28 udalerrik jarri dituzte abian bizikidetza esperientziak erakunde bideratzaileez lagunduta.

Hala ere, argitalpen honetan, bideratze lanaren ikuspegi jakin batetik ateratako ikaskuntzak baino ez ditugu jasoko. Oso pertsonala da, beraz, eta lagundutako hamabi prozesuetan ikasitakora mugatuko gara.

2.1 Udalerriak. Gertutasun eta auzotasun dinamika

Nabarmendu behar da, garrantzitsua baita, elkarrizketa prozesu horiek udalerrri mailan eraman zirela aurrera, eta, zehazki, Gipuzkoako lurralde historikoan. Zenbait udalek beren udalerrietako bizikidetzarekin lotutako ekimenak eta proiektuak abian jarri nahi zituztenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak programa espezifikoa abiarazi zuen 2013an, tokiko ekimen horiei laguntza ekonomikoa emateko. Horri esker, udalerrientzako finantzaketa ildo zehatzak ireki dira, ikuspegi orokorragoa eta interkonektatua eman zaie tokiko esperientziei (prozesu zabalago baten barruan eta udalaz gaindiko elkarrizketa guneak bideratuz) eta aholkularitza eskaini da giza eskubideen, gatazken konponketaren eta bizikidetzaren arloan.

Udalerrietan, hizpide ditugun esperientzia gehienak tokiko gobernuek bultzatu dituzte (udalek), eta bakan batzuk jarri dira martxan herritarren ekimenez. Udalerrri mailako hurbilketa horrek dinamika lagungarria sortu du oso presente dagoen sufrimenduzko iraganari eta gizarte ehuna oinarritik berreraikitze lanari aurre egiteko.

Erreferentzia esparru berriak eraiki behar izan dira, behetik eragiteko, alboetarantz (eratutako elkarrizketa gune formaletatik kanpoko beste espazio batzuetan) eta gorantz (udalaz gaindiko eremuan, oro har, eta egitura politikoaren barruan, zehazki). Gertutasun dinamika horrek lotura sakona du Harold Good-ek adierazitako auzotasun ikuspegiarekin.

Etsaia auzokidetzat hartzeko ariketa ezinbestekoa entseatzeko esparru bihurtu da udalerrria. Udalerrriaren beraren gertutasunak aukera eman du harremanak berrezartzeko edo, neurri batean, zauri batzuk sendatzeko. Hala ere, aldi berean, zailtasun batzuk sortu eta elkarrizketak konplexuago bihurtu ditu, beharbada «beste» gure minaren erantzuletzat hartu den heinean, bai bizitako isilune eta absentsien ondorioz, bai sumatutako arbuiozko jarreraren ondorioz.

«Bestearekiko» gertutasun horrek benetakotasun handiagoa eta gizartea eraldatzeko gaitasun handiagoa eman die egindako esperientziei. Esperientzia benetakoa izan dadila lortzeko lagungarria baita gure burua jokoan jartzea, egunero gure espazio bera partekatzen duen eta ispilu gaituen «beste» baten aurrean. Benetakotasuna, kasu honetan, egoteko modu bat da, ez diskurtsoak batzuetan ematen digun distantziatik, baizik eta «auzokidearekiko» loturak eskatzen duen zintzotasunetik. Zenbaitetan partekatuak izan diren gertaera batzuek ari gara: haietan oinarrituta, bakoitzak bere narratiba eraiki du, eta horren arabera eratu du errealtateaz zein «besteaz» duen irudia. Hala ere, norberarena zintzotasunez adieraztea eta besteen bizitza sakonki entzutea ahalbidetzen duen espazio seguru bat partekatzean, eratutako irudi horretatik eta eraikitako estereotipoetatik harago ikus dezakegu.

Hala, ohartu gara zer inpaktu izan duten gure isiluneek; zenbateraino ezkutatu duten gertuko batzuek beren biktimia izaera, arbuioaren edo ulertezintasunaren beldur; zenbateraino isilune batzuek ez zuten esan nahi enpatiarik eza, baizik eta norberaren taldeari traizio egiteko edo manipulatuak izateko beldurra; hain antzekoak diren bizipenekin enpatia sakona sentitu dugu, alde batera utzirik diferentzia ideologikoak edo nondik bizi ziren... Hortik, espazioa partekatzen dutenei ez zaie arrotza

egiten hitz egindakoa eta entzundakoa, eta hori abagune bat izan daiteke, ezjakintasunetik eraikitako irudiak gainditu, eta «besteak» zer behar eta eskatzen duen hobeto ulertzeko.

Era berean, «besteen» bizitzara sakonki hurbiltzen gaituzte esperientzia horiek, eta horrek komunitatearen edo udalerraren bizitzan eragiteko ahalmen handia du, elkarrizketa gunean bizitakoak espazioa bera gainditzeko duen neurrian. Hori gertatzen da bizitako prozesuak elkarrekin harremanak izateko, elkarri begiratzeko eta espazio segurutik kanpo komunikatzeko modua aldatzen duenean. Elkar agurtzen ez zutenek orain agurtzea, edo beren jendearen aurrean adeitasunez hitz egitea: horrek begiratzeko modu berriak eta estereotipoak gainditzera bideratutako elkarrizketak sortzen ditu.

Azken batean, egiaztatzen denean elkarrekin lan egin daitekeela eta adostasunak lor daitezkeela halako gai mingarri eta gatazkatsuetan, errazagoa da ezinezkoaren mitoa apurtzea eta bide berriak irekitzea motibazio politikoko indarkeriaren ondorioei nahiz gizarte plural baten berezko gatazkei elkarrekin aurre egiteko.

Udalek hainbat ekimen bultzatu dituzte, publikoak nahiz diskretuak, eta elkarrizketa guneak sortu, eta herriko beste eragile batzuen ekimenak ere babestu dituzte: kasurako, herritarrenak, ikastetxeenak edo biktimenak. Hori guztia, ongi jakinik urte luzeetan jasandako indarkeriak eta bazterketak herritarren bizitza sozial eta politikoa zeharkatu dutela. Ezagutza eta gertutasun horri esker, bizikidetzan aurrera egiteko beharizan eta lehentasun sozialak hauteman dira.

Halaber, udaletako bizitza politikoa bera baldintzatuta egon da, eta baldintzatuta jarraitzen du neurri batean. Horrela, tokiko esparru politikoan bizirik dagoen behar bati lotzen zaio iraganari aurre egiteko eta beste elkarbizitza mota bat eraikitzeko lana: urteetan zehar, hautu politikoak berekin zekarren norberaren bizitza arriskuan jartzea eta gertuko askatasuna eta etorkizuna baldintzatzea. Horrek eragina zuen bizitza politikoan, ez soilik osoko bilkuretan, baita zer kaletan ibiliko ziren aukeratzeko orduan ere, eta bazterkeria, marjinazio eta estigmatizazio dinamikak sakondu ditu.

Egia da gorantz eta alboetarantz eragitea dela esperientzia horien erronka handienetako bat, baina egia da, orobat, iragan mingarriari modu partekatu eta inklusiboago batean aurre egiteko bideak eta ereduak sortzen ari direla, baita gatazkak ardura eta eraginkortasun handiagoz kudeatzeko prozedura batzuk ere, zalantzan jartzen dituztenak edo, gutxienez, arrakalak sortzen dituztenak guztiz kontrakoak izan eta gaur egun oraindik oso finkatuta dauden beste dinamika batzuetan.

2.2 Elkarrizketa guneak eta horiek abian jartzea

Hainbat udalerritan egituratu diren elkarrizketa guneen osakerari erreparatzen badiogu, bi taldetan bereizten dira nagusiki: herritarren espazioak eta espazio politikoak. Hala ere, prozesu horiek aurrera egin ahala, baldintza egokiak sortu dira beste elkarrizketa batzuk eduki ahal izateko, beste maila batean eta beste eragile batzuekin. Beste bilera eta elkarrizketa batzuk sortzen ari direla jakiteak elkartze prozesua edo dinamika handiagoa dela pentsarazten du. Era berean, baldintza aproposak sortu dira udalerriko beste eragile batzuek prozesuan parte hartzeko, dela jadanik sortutako elkarrizketa guneren batekin lankidetzan (biktimen oroimenezko lanak sortzen dituzten eskultoreak, biktimen aitorpenerako ekitaldietan parte hartzen duten herriko musikariak), dela memoria eta bizikidetzaren berreskuratzeko ildo bereko beste ekimen batzuk bultzatuz.

Nola jartzen dira martxan elkarrizketa gune horiek? Nork deitzen ditu? Nondik sortzen dira?

2.2.1 Herritarren elkarrizketa guneak

Herritarren kasuan, bi abiapuntu bereiz daitezke: tokiko erakundearen ekimenez sortzen direnak, hau da, udalen ekimenez, eta herritarren beren ekimenez sortzen direnak.

Udalaren ekimena. Udalaren ekimena dela diogu, baldin eta udalak edo korporazioko alderdi politikoek adierazi badute elkarbizitza prozesu bat hasi edo udalerrian bizikidetzaren programa bat abian jarri nahi dutela. Nahi horren atzean, udalerriko herritarrak talde batean elkartzeko interesa datza, beren bizi esperientziak parteka ditzaten. Kasu horietan, talde politikoek izendatzen dituzte parte hartzaileak. Hala ere, azpimarratu behar da alderdi politikoek parte hartzaileak izendatzeak ez duela esan nahi parte hartzaile horiek alderdiari lotuta daudenik edo haien ordezkari gisa parte hartzen dutenik.

Elementu hori oso garrantzitsua da elkarrizketak garatzeko, bai hitza hartzeko orduan, bai besteei entzuteko orduan; izan ere, parte hartzaileetako batek ere ez du alderdien mezuak helarazteko zeregina. Hau da, zeinek bere izenean hitz egiteko askatasuna dute, eta ez dute beren gain hartu beharrik beren mundu ideologikoaren edo aukeratu dituen alderdiaren pisua. Aitzitik, beren ekintza eta esku hartzeen erantzukizuna besterik ez dagokie. Azken hori oso garrantzitsua da, are gehiago kontuan hartzen badugu parte hartzaileek normalean ez dutela lotura ideologiko argirik izaten izendatu dituztenekiko.

Hasiera batean, udalerrian gatazkari lotutako ahalik eta errealitate edo bizipen gehien biltzeko izendatzen dituzte alderdiek parte hartzaileak.

Batzuetan modu mistoan osatzen dira, gonbidapen zuzenez edo deialdi irekiz, hitzaldien bidez, halako ekimenetan parte hartu nahi duenak bere parte hartzea proposatu ahal izateko aukera zabalduz.

Gutxieneko pluralitate bat bermatze aldera, garrantzitsua da taldeko parte hartzaile batzuk zuzenean izendatzea, betiere profil batzuk oinarri hartuta. Hau da, batez ere bizipen mailan ekarpenak egin ditzaketen eta entzuteko nolabaiteko gaitasuna duten pertsonak bilatzen dira. Izan ere, deialdi ireki baten bidez soilik osatzen badira, taldea orekatua ez izateko arriskua dago: alde batetik, beti egongo dira ekimen handiagoko pertsonak, ausartzen direnak; beste batzuek, aldiz, ez dute lehen urrats hori egingo; edo, besterik gabe, egongo da norbaitek deitu ezean interpelatuta sentitzen ez denik ere.

Biktimen arteko elkarrizketa guneak. Udalerribatuetan, biktimen arteko elkarrizketarako guneak ere sortu dira. Horretarako, garrantzi handikoak izan dira Argituz Giza Eskubideen Aldeko Elkarteak eta beste erakunde batzuek memoria berreskuratzeko egindako lanak. Udalerriko giza eskubideen urraketan eta sufrimenduen egia eta errealitatea ezagutzeak esparru garrantzitsu bat eskaini du pertsona horien errealitate humanoenera hurbiltzeko. Lanak kontrastatzeko, protagonistetako batzuen iritzia eta are kritikak ezagutzeko, eta berreskuratzeko lana nola jarraitu behar den eraginkortasun handiagoz zehazteko aukera eman du. Gertatutakoaren egia jasotzeko sufrimenduaren aitortpena eta erreparaziora igarotzea ahalbidetu du.

Gainera, udalerriko bakoitzean abian jarri den dinamikaren edo bizikidetzaren prozesuaren barruan ere ulertu behar da halako espazioen sorrera. Koherentziaz eta zintzotasunez janzten du hasitako lana, prozesua inplikaturako eragile gehiagori irekitzea dakarrelako eta, hala, elkarrizketa dinamika horizontalagoa eta inklusiboagoa eraikitzen da.

Espazio horiek udalak deitu izan ditu beti, ezarritako zereginaren barruan. Gainera, pertsona horiengana hurbildu dituzte instituzioak eta, hortaz, biktima gisa ez ezik, bizikidetzako subjektu aktibo gisa ere aitortu ditu.

Espazio horietan, eta deitutako biktimentzat zentzua izan dezaten, garrantzitsua da oso zintzoak izatea sortutako itzaropenei eta sufrimenduaren askotariko bizipen eta errealitateei dagokienez.

Herritarren ekimena. Gizartearen ekimenez sortutako taldeez ari gara. Euskal gizarteak kultura asoziatibo eta kolektibo zabala du. Alde batetik, eremu ludikoan, topagune formal nahiz informalek leku berean bildu dituzte askotariko ikuspuntu eta bizipenak dituzten pertsonak, baita gizarte polarizazio handiko uneetan ere. Eta, bestalde, gatazkaren testuinguruarekiko lotura eta konpromiso handiagoa duen eremuak urte luzez sustatu eta bultzatu dituzte elkarrizketa eta akordioa, baita giza eskubideak defendatu ere.

Hain zuzen ere, kolektibo «bakezale» edo bakearen aldeko talde aktibista horietako batzuk desagertu heinean, fokua beren udalerrietan jartzea erabaki dute militantzia horietatik zetozen kide batzuek, eta, bizikidetzan nola lagundu dezaketen galdetu diote beren buruari. Hortik, eta testuinguruak emandako baldintzak kontuan hartuta, ohartu dira aniztasun handiagoa behar dutela gertatutakoa lantzeko, eta agian beste uneren batean kontaktatu ezingo zituzten beste pertsona batzuk gonbidatzeko pausoa eman dute. Halakoetan, parte hartzaileek kanpo laguntzaren beharra hautematen dute momenturen batean, eta, hortaz, udalaren babesa eskatzen dute azkenean, proiektuaren gastuak ordaindu ahal izateko.

Hori horrela denean, ekimen instituzionaletan bezala, herritarren elkarrizketa gunearen eta udalaren arteko komunikazio iraunkorra bermatu ohi da. Gainera, tokiko ekimenak batera bultzatzera daraman lankidetzat bat gauzatu ohi da.

Hala ere, komunikazio eta lankidetzat hori beti egiten da gune bakoitzaren funtzionamendu eta erabaki autonomia errespetatuz.

2.2.2 Elkarrizketa politikorako guneak

Talde politikoei dagokienez, modu batean baino gehiagotan jar daitezke abian esperientzia horiek.

Gehienetan, udaletik bertatik sortzen dira elkarrizketa politikorako guneak (bozeramaileen batzordearen bidez), eta alkatearen edo gobernu taldearen ekimenez gehienak. Dena dela, batzuetan, zeharka sortzen dira gune horiek. Horrelakoak dira, adibidez, beste elkarrizketa esperientzia misto batzuk bultzatuz sortzen diren guneak, non herritarrek, gizarte eragileek eta udal ordezkariak bat egiten duten. Azken kasu horretan, konplizitateak eta hurbilketak eraiki ahal izaten dira elkarrizketen benetakotasunari eta zintzotasunari esker, eta elkarrizketa hori alor instituzionalera eramaten lagundu dute. Alderdi desberdinetako ordezkari

politikoei, ehundutako konfiantzetatik abiatuta, politikan elkarrizketa gune bat elkarrekin bultzatzeko indarra sentitzen dute.

Indar politiko guztien parte hartzea bermatzea muga bat izan daiteke batzuk prozesua martxan jartzeko prest daudenean eta beste batzuk ez. Noiz edo noiz, denbora behar izaten da horrelako prozesuek sortzen dituzten kezkak eta erresistentziak uxatzeko. Beldur batzuk ager daitezke: gobernu taldeak esperientzia patrimonializatuko ote duen beldurra; prozesuan alderdietako batentzat funtsezkoak diren gaiak tratatuko ez diren kezka; elkar ezagutuz eta ulertuz gero norberaren esentziari uko egingo zaion mesfidantza, edo azkenean «besteak» gu limurtzeko arriskuan egongo garelakoa.

Horrelako elkarrizketa esperientzia bat abian jartzeak berekin dakar prozesu berritzaile bati aurre egitea ere; izan ere, oinazea eta gatazka sortzen duen horri buruz hitz egin behar da. Horregatik, lagungarria da beste pertsona batzuk antzeko dinamiketan murgilduta daudela jakitea, arrisku sententzia murrizten laguntzen baitu. Ildo horretan, prozesu horiek proposatzeko orduan, udalerririk gehienetan garrantzitsua izan da beste udalerririk batzuetan zer urrats egin dituzten jakitea. Era berean, zentzu horretan aterki instituzional garrantzitsua eskaini du Gipuzkoako Foru Aldundiak, udalaz gaindiko erakunde gisa, ezarri dituen programa espezifikoaren bitartez.

Azkenik, badira herritarren ekimenez abiatutako udalerririk mailako bizikidetzat esperientziak ere. Une jakin batean politika mailan horretarako baldintzak betetzen ez ziren udalerririk, herritarren elkarrizketa guneek lagundu dute elkarrizketa politikoa ahalbidetzeko baldintzak sortzen. Udalerririk horietan, herritarren espazioak hartu du bere gain biktimen memoria zaintzeko edo indarkeriaren, iraganaren kontakizunaren edo bizikidetzaren inguruko hausnarketa sozialerako espazioak sortzeko lana. Kasu horietan, zeregin jakin batzuk jada saihestu ezin dituztela erabakitzen dute indar politikoei momenturen batean, beren eskumenean eta erantzukizunaren eremuan sartzen direla uste duten neurrian. Eta, modu paraleloan, beren elkarrizketa prozesuari ekitea erabakitzen dute indar politikoei.

2.2.3 Guneen eta udalerrien arteko lotura

Udalerrien arteko edo udalerrri bereko elkarrizketa guneen arteko interkonexioa da esperientzia horien beste ezaugarri bat. Arian-arian, espazioa bera gainditzen duten lotura zenbaitetan ukiezin edo egituratu gabeak sortu dituzte. Udalerrri barruan, elkarrizketa guneetatik igarotzeak alor pertsonalean eragina duen heinean, egon, entzun eta begiratzeko modua aldatzen du; harremanak izateko moduari eragiten dionez, gizarteko beste geruza batzuetan ere inpaktua du prozesuak, modu egituratu gabeen.

Udalerritik kanpo, esperientzia berriak garatu ahal izateko baldintzak sortzen laguntzen du, eta dimentsio berri bat ematen dio prozesu bakoitzari. Sortutako inpaktuen bitartez, beren lurralde eremua gainditzen dute udalerrria ardatz duten esperientziek. Era berean, elkarrizketa prozesu bakoitzak efektu biderkatzailea du, nahiz eta batzuetan ezin den hauteman, ezin direlako neurtu edo egiaztatu sortzen dituen inpaktu guztiak edo agian ahalbidetuko zituen bilera gertagaitz eta elkarrizketa berri guztiak.

Esperientzia horiek udalerriko testuinguruan gauzatzen dira, baina beste norabide batzuetan eragiteko asmoz: alboetarantz, alegia, erreferentziako taldeetan, eta gorantz, udalaz gaindiko testuinguruan. Eta, aipatu dugun bezala, parte hartzaileek esperientzia horiek beren egunerokoan, bizitza sozialean eta politikoan integratzen dituzten heinean, beste dinamika bat sortzen da pixkanaka, batez ere bizitza politikoan nagusi diren konfrontaziozko eta posizionamenduzko dinamiketan arrakalak sortzeko gai dena.

2.3 Udalerrietako elkarrizketa guneen ezaugarri batzuk

Udalerriak elkarbizitzarako eremu gisa nabarmentzeko orduan, elementu batzuk identifikatzen saiatu gara, aurrera eramaten diren prozesu motak ezaugarritu eta dimentsionatzeko aukera ematen baitute. Bi ardatz bereizi ditugu elementu bakoitzaren barruan. Zenbaitetan, herritarren elkarrizketa guneen eta espazio politikoaren espezifikotasunari erreferentzia egiten diote.

2.3.1. Motibazioa

Konpromisoa. Herritarren elkarrizketa guneetara deitu diren pertsonak norbanako gisa hartzen dute parte; hau da, beren buruaren ordezkari baino ez dira. Motibazioak eta abiapuntuak askotarikoak dira: beste errealitate batzuk entzuteko edo ezagutzeko gogo, entzunak eta onartuak izateko beharra, udalerriarren egoerari buruzko kezka, norberaren inplikazio sozialaren ibilbidearekiko koherentzia, jakin-mina edo ekarpen bat egin dezaketela sentitzea. Hortik, parte hartzea borondatezkoa da, eta horrek askatasuna ematen du espazioetan nahi dutenean sartu edo irten ahal izateko. Hau da, haien artean ez da nahitaezkoa lan horri aurre egitea. Hala ere, udalak deitu dituen edo beste herritar batzuek gonbidatu dituzten heinean, parte hartzea onartu ondoren, sortu egiten da «konpromiso» bat hartu izanaren eta haiengan jarritako konfiantzari erantzun behararen halako sentsazio bat.

Erantzukizuna. Dena dela, elkarrizketa guneetan parte hartzen duten ordezkari politikoek erantzun beharra sentitzen dute, bai beren errealitateari, bai beren udalerriarren eta ordezkatzeko dituzten herritarren gizarte eskaerei. Beraz, haien ekintzan erantzukizuneko osagai bat dago. Eta horrela sentitzen dute elkarrizketa ekimenei balioa ematen dieten herritarrek ere: udalei begiratzen diete, herritarrek bezala «bestearengana» hurbildu eta lankidetzaren eta adostasunaren lortzeko urratsak egin dituzten

bilatuz. Azken batean, ordezkari politikoak, lanaren bidez, sustatzen duten horren eredu izan daitezzen bilatuz.

2.3.2. Zeregina

Helburuak. Bi gune mota horiek metahelburu batzuk dituzte, garapen eta dimentsio desberdinekoak kasu bakoitzean. Metahelburu horiek honela laburbil litezke: bizipen eta errealitate desberdinetara hurbiltzeko eta horiek ulertzeko ariketa bat egitea, indarkeriazko eta sufrimenduzko iragana –oraindik oso presente– lantzea, eta bizikidetzari ekarpena egitea.

- **Herritarren espazioetan**, hauek dira helburu espezifikoenak: elkar ezagutzea eta onartzea; iraganari aurre egitea, zer gertatu zaigun eta zergatik gertatu zaigun ulertzeko; partekatutako ikaskuntza edo ondorio batzuk ateratzea; egungo eta etorkizuneko bizikidetzaren oinarriak identifikatzea; eta udalerritari ekarpen bat egitea.
- **Espazio politikoetan**, helburuak bi motatan banatuko dira: «barrurakoak» eta «kanporakoak». «Barrurako» helburuak esan nahi du «desberdinen» arteko elkarrizketa prozesu zintzo bat bizitzea, eta «kanporako» helburuen kasuan, ohikoenak dira giza eskubideen urraketan eta pairatutako sufrimenduen memoria berreskuratzea, biktimei ordaina eta aitortzea ematea, sufrimenduzko errealitateak kontuan hartzea, eta bizikidetzaren eta giza eskubideen kulturaren sakontzea.

Laneko agenda. Hortik, gune bakoitzaren zereginak desberdinak dira.

- **Herritarren guneetan**, gertatutakoaren bizipen eta ikuspegi pertsonal eta batzuetan kontrajarriak dira hizpide. Gertatutakoaren narratibak edo kontakizuna lantzeko zeregin horretan, hainbat hurbilketa entseatu eta tresna bat baino gehiago garatu da, pertsona eta bizipen guztiei lekua egiteko. «Zergatiei» eta gatazkaren arazoiei buruzko kontakizunak lantzea ere ahalbidetu dute. «Biluzteko» ariketa horien bidez sortutako

konfiantzan eta elkar ezagutzan oinarrituta, iraganaren gaineko begirada kritikoa jorratu dute herritarren espazioek. Horretarako, askotariko hurbilketak sortu dituzte, hemen eta orainetik ondorio partekatutako eta bizikidetzarako «zutabe» batzuk ateratzeko. Gaur egun, ia zortzi urteko prozesu baten ondoren, oraindik lanean jarraitzen duten herritarren espazioak bizikidetzarako eragile bihurtu dira, eta, hortik, beren ekarpena egiten jarraitzen dute, beren komunitateetan elkarrizketarako guneak eskainiz eta beren udalerrietan elkarrizketarako eta bizikidetzarako dinamika bat elikatuz. Ibilbidea amaitutzat eman duten prozesuei dagokienez, haien azken zeregina bizi izandako prozesuaren narratiba korala jasotzea izan da, eta esperientzia gizarteratzea.

- **Gune politikoan** laneko agendan jasotako zeregin nagusiak, berriz, honako hauek izaten dira: udalerrian gertatutako edo udalerriko auzotarrek pairatutako giza eskubideen urraketari eta indarkeria ekintzei buruzko ikerketa bat agintzea; udalerriko biktimei errealitatera hurbiltzeko prozesuak abian jartzea; biktimei aitortzeko ekitaldiak eta herritarrentzako hausnarketa ekintzak antolatzea; bizikidetzari heltzeko mekanismoen eta prozeduren inguruan lan egitea; eta presoan eta haien senideen errealitateari erreparatzea. Hau da, gertutasunagatik ezagutzen dituzten eta batzuetan propiotzat bizi dituzten gizarte eskaerei erantzuten saiatzea.

Gaur egun, udal askok egin dituzte memoria ikerketak, bakoitzak berea, eta liburuetan eta webguneetan jaso dira. Ikerketa horietan, udalerrietan gertatutako edo herritarrek sufritutako giza eskubideen urraketak eta indarkeria ekintzak islatu eta dokumentatu dira. Bi alditan banatu dira ikerketa horiek: 1936tik 1959ra bitarte, eta 1959tik gaurdaino. Lan hori, batez ere, Argituz Giza Eskubideen Aldeko Elkarteak, Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Intxorta 1937 Elkarteak egin dute. Gertatutakoaren egiari heltzeaz gain, ikerketa horiek ezinbesteko oinarria izan dira udalek biktimei aitortzeko eta haiengana hurbiltzeko zereginari heltzeko.

Laneko agenda gehienetan esplizituki jasotzen ez bada ere, elkarrizketa politikorako guneez aukera ematen dute udalerriko bizitza politikoa sortutako desadostasunei edo gatazka egoerei aurre egiteko, normalean kalte egiten baitiete guneko parte hartzaileen konfiantzei.

2.3.3. Osaera

Taldeak osatzerakoan, bermatu nahi da nahikoa **pluralak eta askotarikoak** direla udalerriko testuinguruari dagokionez, alegia, pluraltasun horretan ordezkaturak daudela udalerriko ideologia askotarikoak. Elementu horrek garrantzi handia hartzen du; izan ere, prozesuak segurtasunean eta konfiantzan aurrera egin ahala, elkarrizketa «korapilatsuak» izateko baldintzak sortzen dira. Testuingurua ez balitz hain zaindua, ez lirakeke posible. Gainera, lagungarria da prozesu horiek jendaurrean ezagutarazten direnean bizikidetzarako ekarpen esanguratsutzat har daitezten, «desberdinen» arteko ariketa erreal bat erakusten dutelako. Eta, espazio politikoen kasuan, esperientzia norgehiagoka politikotik hobeto babesteko aukera ematen du, indar politiko guztiek partekatzen dituztelako hala erabakitzeke ahalmena nola horren gaineko erantzukizuna.

Guneetan parte hartzeko, **jarraitutasuna** eskatzen da, prozesu izaera baitute. Espazio horietan, gaiak gainera, garrantzi berezia du giza elementuak eta elementu erlazionalak, eraikitzen diren loturek nabarmen eragiten baitute elkarrizketan. Herritarren guneetan, parte hartzaileen bat ez egoteak inpaktu handia du prozesuan, eta, beraz, talde dinamikaren barruan landu beharreko gai bat da. Elkarrizketa politikoen kasuan, partaideek jarraitzea hain da garrantzitsua, non zaila baita ordezkari baten batzuen gaitasuna. Baliabide hori oso gutxitan erabiltzen da, eta, betiere, absenteziak luze joko badu. Herritarren taldeei dagokienez, ezinezkoa da udalerriko askotarikotasun osoa ordezkatzeko, baina pluraltasun nahikoa adierazgarria izan dezatela bilatzen da. Nahikoa

pluraltasun, taldekideek aukera izan dezaten beste bizipen eta ikuspegi batzuk entzuteko, norberarenak ez bezalakoak eta are antagonikoak ere.

Pluraltasun hori definitzerakoan, zenbait ardatz hartzen dira kontuan, eta parte hartzera nor gonbidatuko den zehazteko orduan bete beharreko irizpide bihurtzen dira ardatz horiek. Hona hemen erabilitako ardatz batzuk: zer bizitza ibilbide, ibilbide sozial eta ideologiko duten; nolako harremana indarkeriarekiko; zenbateko inplikazio edo ordezkartza sozial eta politikoa; zenbateko inplikazioa gatazkan; adina; generoa, eta beste.

Taldea osatzerakoan ezarritako helburuak markatuko ditu hautaketa irizpideak, hau da, «zertarakoak» baldintzatuko ditu profilak. Hori garrantzitsua da udalerriko herritarren prozesu horietan sartzeko orduan; izan ere, norberaren itxaropenak kudeatzen lagunduko du –eta, beraz, taldean parte hartzeko pausoa ematen–, baita elkarrizketa prozesua bera kudeatzen ere.

Zenbaitetan, iruditu zaigu iraganera begiratzeko eta zer gertatu den jakiteko ezinbestekoa zela indarkeria zuzenean sufritu duten pertsonen parte hartzea, beharbada oso ondo jakin gabe zer premia izan ditzaketen pertsona horiek eta zein neurritan izan daitezkeen talde horiek haien zat lagungarriak –edo ez–. Adibidez, behin biktima bat gonbidatu zuten antzeko egoerarik bizi izandako beste inor ez zegoen talde batera; bada, horrek bakardadea sentiarazi zion, eta taldea utzi zuen ondorioz.

Oso aberasgarria da indarkeriaren era askotako bizipenak biltzea, baita intentsitate maila askotarikoak ere, baina kontuan hartu beharreko zerbait da hori, talde prozesua zaintzaren ikuspegitik. Talde berean indarkeriaren kalteak oso gertu bizi izan dituzten pertsonak eta printzipioz halako esperientzia pisutsurik ez dutenak elkartzen badira, horrek desoreka sor dezake elkarrizketetan. Dela indarkeriaren biktimari edo sufrimendu karga handia duenari esperientziak bakardade sententzia sortzen diolako, sentitzen baitu taldearengandik ez duela jasotzen bere minaren aringarrik. Dela gainerako taldekideek erantzukizun handiagoa senti lezaketelako, haren beharrei erantzutea eta hura zaintzea lehenesten den neurrian.

Elkarrizketa guneetako parte hartzaileen kopurua zortzi eta hamabi pertsona artekoa izaten da, baina esperientzia batzuetan parte hartzaileak sei izatera iritsi dira. Gutxienez zortzi kide izateak –baldin eta parte hartzaile bakoitzak askotariko bizipenak eta ibilbideak islatzen baditu– aukera ematen du pluraltasuna agerian uzteko, bai elkarrizketetan, bai alor publikora igarotzean. Bestalde, saioen iraupenak –bi ordu inguru– eta maiztasunak –hilean behin– ere parte hartzaileen kopurua mugatzen dute. Garrantzitsua da parte hartzaile guztiek saio bakoitzean parte hartzeko aukera izango dutela bermatzea, saio bakoitzean sortutako momentua eta giroa berezia izaten baita. Horretarako, gehienez hamar izaten da kopuru egokiena.

Ordezkaritza. Talde politikoen kasuan, udalean ordezkaritza duten indar politiko guztien parte hartzea bilatzen da, udalerriko dibertsitate politikoa islatzeko. Hala ere, batzuetan udalak ez ditu islatzen udalerriko errealitate edo sentsibilitate ideologiko guztiak. Kasu horietan, sortzen diren beste elkarrizketa gune edo ekimen zehatz batzuetan inplikaturako beste eragile edo pertsona batzuen bidez ekar daiteke dibertsitate hori prozesura. Elkarrizketa politikorako espazioa dibertsitate hori bermatuz martxan jartzeko baldintzak betetzen direnean, alderdiak berak izendatzen ditu bere ordezkaririk. Batez ere, udalerriko kargudun publikoak izaten dira: alkateak eta zinegotziak. Batzuetan, eta prozesurako zentzua duenean (errealitatearen ezagutza mailagatik, ematen duten konfiantzagatik edo beste arrazoi batzuegatik), alderdiko pertsona kargugabeekin osatzen da alderdi politiko bakoitzaren delegazioa. Hala ere, horretarako zinegotziak aukeratzeak badu garrantzia, prozesuan konfiantza batzuk sortzen direlako, eta eragin onuragarria izan dezakete gerora, zinegotzi horiek udaleko bizitza politikoko beste espazio batzuetan hobeto entzuten eta erlazionatzen badira. Elkarrizketen inpaktu positiboak irismen zabalagoa du, eta beste harreman batzuetan eragiteko gai da. Bestalde, aukera ematen du, hala adosten bada, udaleko bizitza politikoan sortutako gatazkaren bat elkarrizketa gunean landu ahal izateko.

Era berean, giza faktoreak garrantzi handia hartzen du hautaketa horretan; izan ere, kide bakoitzak bere bizipen eta hurbilketak ekartzen ditu taldera, nahiz eta alderdi berekoak izan. Gainera, giza faktorea da elkarrizketa prozesu sakon bat bizitzea ahalbidetzen duena. Elkar ezagutzeko gero, alderdiaren posizionamendutik harago ikus daiteke, eta hurbiltzeko edo erantzuteko modu berriak aztertzeko aukera ematen duten arriskuak onartu.

Azkenik, espazio politikoetako taldekideak hautatzeko orduan, garrantzitsua da zenbateko legitimitatea duten beren alderdien barruan eta zenbateko konfiantza jartzen duen alderdiak haiengan.

Espazio politiko horietako taldekideen kopurua aldatu egiten da prozesu bakoitzaren arabera, baina, gehienetan, alkateak eta udalean ordezkatutako alderdi bakoitzeko bizpahiru ordezkaririk politikok hartzen dute parte. Hortaz, lau eta zazpi pertsona artekoak izaten dira taldeak. Besteak beste, arrazoi hauek mugatzen dute kopuru hori: taldean jarraipena bermatu ahal izateak, jarduera hori udal mailako gainerako zereginekin bateratzeko gaitasunak, alderdi bakoitzak udalean duen ordezkaririk kopuruak eta prozesuen iraupenak.

2.3.4. Iraupena

Elkarrizketa prozesuak, batez ere, denborak zaintzea eskatzen du, gaiari eta dinamikari leku bat emateko. Beraz, iraupen zehatza izan ohi dute prozesu horiek, haien konplexutasuna, sakontasuna eta bereizgarri duten zaintzaren garrantzia direla medio.

Lan epea. Hasiera batean, herritarren guneek epe batzuk markatzen dituzte, eta hasieran garrantzitsuak dira, prozesuetan parte hartzeko erabakia hartzeari begira; izan ere, esperientziak hasiera eta amaiera zehatz bat duela jakiteak nolabaiteko segurtasuna sortzen du prozesuaren ideiak dakarren ziurgabetasunaren aurrean. Hala ere, normalean hasierako epeak gainditzen dituzte prozesuek eta, egindako prozesu

bakoitzak iraupen desberdina izan badu ere, bi eta lau urte artekoa izan da (8 urte iraun duen prozesu bat izan ezik).

Herritarren elkarrizketa esperientzia horietako batzuk ixtean, perspektibaz begiratzeko unean, egiaztatu dugu bi urte zentzuzko iraupena izan litekeela. Baina, adieraziko dugun bezala, talde bakoitzaren beharren arabera izango da hori, baita partekatze gai diren helburuen arabera ere. Azken batean, taldeak mantendu egiten dira esperientziak zentzu kolektiboa duen bitartean, hau da, taldeak oraindik egitekorik duela ulertzen duen bitartean. Zentzua ixtea denean, zeregin horri ekiten dio taldeak, eta lan horrek ere bere epeak ditu.

Jarraitutasuna. Talde politikoei dagokienez, ezarritako epea legegintzaldiak markatutako denbora izan da; hots, lau urte. Kasu horietan, aurrekoetan bezala, helburuek eta adostutako agendak markatzen dute prozesuaren iraupena. Eskuarki, bizikidetzaren agenda oso zabala da, eta prozesu horiek behar dituzten epeak zaindu beharri hauteskunde onduzko geldialdi ohikoak gehitzen zaizkio. Legegintzaldi aldaketak batzuetan taldeen osara aldarazten duenez, berriro landu behar izaten da konfiantza, berrantolatu behar dira agendak, eta ordura arte egindako bidearen zentzua barneratu. Hala ere, azpimarratu behar da hauteskundeetako etenaldiak gorabehera jarraitu egiten dutela prozesu gehienek, zeren fase berri baterako trantsizio gisa bizi baitira, itxiera gisa baino gehiago. Parte hartzaile batek zioen bezala: «zaila eta gogorra den arren, ez dago B planik: hau da jarraitu beharreko bidea»; eta inork ez du bere gain hartu nahi mahaitik altxatu eta prozesua hausteko erantzukizuna, are gehiago oraindik zer eginik badela jakinda.

2.3.5. Testuinguru soziopolitiko

Testuinguruaz hitz egitean, bi norabidetan eragiten duen elementutzat hartzen dugu. Testuinguru orokorrak edo udalerriko testuinguruak eragina du elkarrizketetan eta, batzuetan, baldintzatu egiten ditu, baina, era berean, elkarrizketa prozesuek eragina izan dezakete testuinguruan.

Normalean, testuinguru politikoak ez du bereziki eragiten **herritarren espazioetan**. Hala ere, batzuetan, baliteke egin diren urratsek edo herritarren prozesuen bultzadak eragin onuragarria izatea testuinguru soziopolitikoan. Efektu horietako bat emulazioarena izan daiteke: hain ezberdinak diren eta batzuetan hain ikuspegi kontrajarriak dituzten herritarrak elkarrekin bizi daitezkeela eta akordioak egin ditzaketela ikusteak esperientzia hori emulatzera eta udaletxean elkarrizketa guneak abiaraztera bultzatu ditu ordezkari politikoak noiz edo noiz.

Herritarren guneen kasuan, parte hartzaileen eguneroko gizarte inguruneak eta erreferentzia taldeak izan dezake nolabaiteko pisua edo eragina, eta parte hartzaileek testuinguru horretan eragin dezakete, halaber. Prozesuetan aurrera egitean, litekeena da erreferentzia taldeek edo kidetasun taldeek pisua izatea «beste» ulertzen hasten garenean. Baina «bestearen» ulermen horrek ere norberaren taldean lan pedagogikoa egitea ekar dezake.

Hala ere, testuinguruak garrantzi berezia hartzen du elkarrizketa politikorako guneetan. Gune horietako kideak, normalean, udalerriko kargudun publikoak izaten dira; beraz, udaleko beste organo batzuetan ere bizi dira elkarrekin eta udaleko espazio politikoak partekatzen dute. Gehienetan, edo beti, konfrontazio eta posizionamendu dinamikak ezaugarritzen ditu halako espazioak. Dinamika horretan, informazioa botere arma gisa erabiltzen da, norberaren interesak lortzea da helburua, kritika politikoaren eremu pertsonalera lerratzen da, eta bereizten gaituena eta alderdiaren posizionamenduak erakustea lehenesten da. Ezaugarri horiek elkarrizketa prozesuetan garatutako lankidetzaren eta adostasun dinamikaren kontra doaz bete-betean. Hortaz, deserosotasunak sorrarazten, mesfidantzak elikatzen eta taldearen zentzua bera zalantzan jarrarazten dute. Hala ere, bizitza politiko publikoari ekiteko moduen eta jarrearen aldaketak –elkar ezagutza handitzen den heinean – asko hobetzen ditu taldearen konfiantzak, eta izugarri errazten du lana.

Beste maila batean, udalaz gairik testuinguruan ez bada indar politikoaren arteko hurbiltzarik edo elkarrizketarik gai jakin

batzuei dagokienez, horrek zaildu egin ditzake udal mailan posible diren aurrerapenak. Baina, batzuetan, tokiko mailan aurrera egiteko bidea bilatu ahal izan dute beste maila batean enkistatutako gaiak, dela tokiko prozesuak berak hartutako garrantziagatik, dela tokiko ordezkari politikoengan jarritako konfiantzagatik, edo egiten utzi delako. Halakoetan, beste eremu batzuetan gertagaitzak liratekeen elkarrizketak ahalbidetu dira hurbilketa erreferentzia berriak sortuz.

Elkarrizketa politikoko prozesuen iraupenari eragiten dion beste testuinguruzko elementu bat hauteskundeak dira. Hauteskundeak baino hilabete batzuk lehenago, gatazka politikoaren giroa sartzen da espazioetan, eta, oro har, bost edo bederatzi hilabete arteko etenaldia izaten dute prozesuek, hauteskundeen ondoren udalak osatu arte itxaron behar izaten baita.

Azkenik, testuinguruak prozesuaren dinamikari eragiten dio espazio politikoan udalerriko beste eragile batzuk inplikatzen dituen gai bat lantzen denean eta erantzun bat eman behar zaienean. Kasu horietan, ordezkari politikoek akordioak egiteko behar dituzten denborak eta eragile horien denborak bateratu behar dira. Alde batetik, hartutako erantzukizunaz eta erantzun bat emateko beharraz jabetzea dakar horrek, baina, aldi berean, tentsio gehigarri bat sor dezake, adostasunak lortzeko behar diren denboren kontra doana.

Laburpen taula. Udalerrietako elkarrizketa guneen ezaugarri batzuk

	Herritarren espazioa	Espazio politikoa
1. Motibazioa	Konpromisoa. Bakoitzak bere izenean eta borondatez hartzen du parte, baina, parte hartzaileengan jarritako konfiantzaren ondorioz, konpromiso bihurtzen da.	Erantzukizuna norberaren errealitatearekiko eta udalerriko gizarte eskaerekiko. Sustatzen duten horren eredugarri izatea herritarren aurrean.
2. Zeregina		
Helburuak	Elkar ezagutzea eta onartzea. Iraganari kritikoki begiratzea eta udalerriko bizikidetzari ekarpena egitea. Bizikidetzarako eragileak izatea.	Elkarrizketa zintzoa edukitzea. Memoria berreskuratzea, biktimei ordaina ematea, sufrimenduzko errealitateei erantzutea, bizikidetzaren eta giza eskubideen kulturarako oinarriak jartzea.
Laneko agenda	Iraganaren narratibak/kontakizunak. Ondorio kritikoak. Bizikidetzaren oinarriak. Esperientzia gizarteratzea.	Giza eskubideen urraketek buruzko ikerketa. Biktimengana hurbiltzea. Biktimak aitortzeko ekitaldiak. Memoriari, giza eskubideei eta elkarrizketari buruzko dibulgazio eta hausnarketa ekitaldiak. Espazio publikoan bizikidetzara kudeatzera bideratutako prozedurak. Presoen eta haien senideen errealitatea. Gatazka edo konfiantza krisiak dauden egoerak kudeatzea.
3. Gunearen osaera	Gatazkara hurbiltzeko moduen eta bizipenen aniztasun esanguratsua bilatzen da.	Udalan ordezkariak duten indar politiko guztien parte hartzea. Kargudun hautetsiak eta legitimitate maila alderdiaren barruan.
Elementu komuna: kideen jarraitutasuna		

4. Iraupena	Lan epe bat ezartzeak nolabaiteko segurtasuna eta kontrola ematen du prozesuak dakarren ziurgabetasunaren aurrean.	Elkarrizketa guneen jarraitutasuna, agenda konplexu eta zabal baten gaineko erantzukizuna dela eta.
Elementu komunak: bi urtetik gorako iraupena, saioak hilean behin, bi orduko saioak.		
5. Testuinguru soziopolitiko	Erreferentzia taldea edo ingurunea, bi norabideko eragina. Inguruneak pisua du eta pausoak ematea zailtzen du. Esperientziaren integrazioak elkarrizketa eta mugimendu berriak sortzen ditu norberaren ingurunean.	Bi norabideko eragina testuinguru soziopolitikoari dagokionez: hartan eta hartatik. Testuingurua espazioan sartzen da, eta mugimenduak zailtzen ditu, mesfidantzak elikatzen ditu. Espazioak testuinguruan eragiten du, beste maila batzuetan uste ez izatekoak diren mugimenduak eta harreman dinamika berriak sortuz. Hauteskondeen ondoriozko etenaldiak iraupena baldintzatzen du. Udalerriko beste eragile batzuen inplikazioak elkarrizketaren denborei eragiten die.

3. «Desberdinen» arteko elkarrizketa prozesua gizartea eraldatzeko tresna gisa

Beste elementu garrantzitsu batek ere zerikusia du elkarrizketa esperientzia horiek bizikidetzarako ekarpen garrantzitsua izan daitezen: nolakotasuna, hau da, elkarrizketa prozesua bera. Garrantzitsua baita nola egin den, bidea bera: talde bakoitzak egin, esan edo adostu dezakeena bezainbat, eta talde bakoitzak iraganera begiratzeko eta bizikidetzara eraikitzeko lan labainari heltzeko egin ditzakeen ibilbideak bezainbat.

Atal honetan, asmoa da hizpide ditugun elkarrizketen «prozesuzko izaera» eta esperientzien sakontasuna ulergarri egitea. Adostutako zeregin zailari eta prozesu bakoitzean gertatzen diren giza interakzioen konplexutasunari heltzeko aukera eman duten tresna metodologikoetako batzuk deskribatu nahi ditugu, funtsean bi plano horiek zaindu behar izan ditugulako bideratze lanean.

Urte hauetan zehar, ikaragarri lagungarriak izan zaizkigu beste diziplina batzuetatik hartutako tresna metodologiko eta hurbilketa batzuk, bai bideratzeko, bai lanari zentzua emateko. Atal honetan, besteak beste, gizarte psikologian, indarkeriarik gabeko komunikazioan eta zirkulu lehenetaraileen metodologian garatutako kontzeptu metodologikoak aipatuko ditugu. Haietako bakoitzetik, espazioetan sortzen ari ziren beharrek lotzen zena eta elkarrizketa zintzoago, benetakoago eta sakonago baterantz aurrera egiten lagunduko ziguna hartu dugu. Horrek, neurri handi batean, tresnak eta hizkuntza egokitzera behartu gaitu. Horren guztiaren emaitza lan egiteko modu berezi bat izan da, pixkanaka eta eskuz kolektiboki ehundua, zeina, nolana ere, lotuta baitago prozesu horien bidelaguntzak ekarri digun ikaste bidean gureganatu ditugun beste ikaskuntza eta esperientzia batzuekin.

3.1. Lan esparru partekatua

Aurreko ataletan aipatutakoari tiraka, susmoa har dezakegu hasieran zaila, mingarria eta are arriskutsua den elkarrizketa bati ekiteaz ari garela. Horri guztiari gaineratu behar zaio prozesuzko izaera dutela elkarrizketa horiek, eta, hortaz, badakigula nola hasiko garen, baina ez nola amaituko dugun. Hau da, azken emaitzaren gaineko kontrola galdu, eta bide zalantzarri bati ekiten zaio.

Horregatik, elkarrizketa gune guztietan egin behar izan den lehenengo lana da espazio horiek gutxieneko egitura partekatu batez hornitzea. «Egoera arriskutsurik bizi gabe arriskatzea ahalbidetzen duen» egitura bat³⁵, esperientziaren gaineko nolabaiteko kontrol maila bat eman, eta hortik diferentziak esplizitatzeko aukera ematen duena. Ikusiko dugun bezala, prozesua zaintzeko ezinbesteko elementu ez ezik, elkarrizketa esperientziari esangura ematen dion erreferentzia esparru ere bihurtzen da egitura.

Taldeetan lan esparru izendatu dugun egitura hori taldekide guztion artean adostuta eraiki da hasiera-hasieratik. Eraikuntza horrek esan nahi du guztiok partekatzen dutela espazioaren eta elkarrizketaren gaineko boterea (boterea «hitzartutako ekintzarako gaitasun» gisa ulerturik³⁶), batetik, eta, bestetik, guztiona dela espazioa eta prozesua zaintzearen erantzukizuna; izan ere, hura edukiz hornitzean, esperientziak zentzua izateko zer behar duen adierazi ahal izan dute taldekide guztiek, berdin-berdin.

Lan esparrua –batzuetan taldearen kontratu deritzona– definitzeko, argitu behar da zer egingo dugun eta zer ez. Oso lagungarria da hasierako

35. Dominic Barter-en ekarpena Indarkeriarik Gabeko Komunikazioaren Espainiako Elkarteak 2018an Madrilan antolatutako prestakuntzan.

36. Hannah Arendt-ek honela definitzen du boterea *Indarkeriaz* saiakeran: zenbat gizabanako izango diren elkarrekin antolatuta eta jarduteko gai, munduan zerbait berria sorraraziko duten ekintzak eta proiektuak gauzatze aldera. Hortaz, berdinen arteko lankidetzara, akordio eta koordinazio gisa ulertzen da boterea. Ikusmolde horretatik, indarkeriaren aurkako bihurtzen da boterea.

kezkak kudeatu eta itxaropenak doitzeko. Neurri handi batean, esan nahi du alde batera utzi behar direla beste modu batzuk, bihozminez bada ere, eta erreferentzia esparru berri bat integratu behar dela, batzuetan gure imaginario kolektiboan eta eguneroko jardunean oso errotuta dauden beste esparru batzuen kontrakoa dena erabat.

Azkenik, taldea eratutakoan, kide bakoitzak erabakiko du elkarrizketa prozesuan parte hartzeko konpromisoa hartuko duen ala ez. Argitu behar da esparruak berak bere baitan daramala taldearen beharretara egokitze gaitasuna, eta, beraz, berrikusi eta alda daitekeela, baina lankidetzan eta adostasunez betiere. Berrikuspen bakoitzak hura egokitzea eskatzen du, hobeto lagundu ahal izan dezan taldearen lana lortzen eta esperientzia zaintzen.

Oro har, osagai hauek ditu esparruak: elkarrizketarako baldintzak; helburu partekatuak; erabakiak hartzeko prozedurak; zailtasunak kudeatzeko prozedurak; laneko agenda; prozesuaren iraupena; eta funtzionamendu elementuak (bileren aldizkakotasuna, saioen egutegia, aktak, data aldaketen kudeaketa, komunikazio bideak...).

Puntu honetan, lan esparruko hiru elementu nuklear aztertuko ditugu nagusiki, elkarrizketa prozesuak gizartea eraldatzeko prozesu bihurtu, prozesuaren gidari eta iparrorratz bilakatu, eta espazioei segurtasuna ematen dietenak.

3.1.1. Elkarrizketarako baldintzak

Elkarrizketa da esperientzia hauen bereizgarria, baina, elkarrizketa benetan gauzatu ahal izateko, egiaztatu behar da guztiok esanahi bera ematen diogula, kontzeptu hori ere zeharkatu duelako gizarte polarizazioak, eta, hortaz, aurkariari arrazoia emateko edo hura konbentzitu edo limurtzeko prozesutzat jotzen da batzuetan; hau da, norbait arbitro bihurtzen den prozesu bat, zer eta nor dagokion esateko. Beraz, esparru partekatua adosten hasten den unean bertan jartzen da martxan esperientzia horiek aldatzeko prozesua. Baldintzez hitz egitean,

ez dugu esan nahi elkarrizketa baldintzatu behar denik, horrek botere harremanak desorekatuko lituzkeelako, baizik eta adostu behar dela zer baldintzatan hitz egin nahi den.

Elkarrizketa prozesu bati ekiteko borondatea gunetako parte hartzaile guztiok daukatela harturik abiapuntutzat, lehenengo urratsa da taldekide bakoitzak adieraztea zer behar duen hitz egitean eta bere burua arriskatzean nolabaiteko erosotasun eta segurtasun maila bat sentitzeko, eta zerk lagundu diezaiokeen entzuten eta defentsazko jarrerak arintzen.

Eskatu bezala, bide beretik lagundu dezakeena eskaintzera ere gonbidatzen da. «Elkarrizketarako baldintzez» hitz egitean, beldur partekatuak, gizaki guztiok ditugun beharrak ematen dira ikustera: errespetua, entzunak izatea, epaituak ez izatea, batzen gaituena bilatzeko borondatea, hitz egiteko askatasuna, zintzotasuna, konpromisoa, enpatia, etab. Era berean, batzuetan entrenatu behar izaten diren giza gaitasunei egiten diete erreferentzia baldintza horietako batzuek eta, horrenbestez, ezin dira beti hasieratik eskaini, baizik eta elkarrizketa prozesuak berak ahalbidetuko du apurka-apurka gaitasun horiek garatu eta integratzea. Baina «baldintza» horiek identifikatzeak aukera ematen du sistema edo esparru desiragarri bat marrazteko, elkarrizketa benetakoa gauzatu ahal izan dadin.

Enpatia da eskatu eta eskaini, baina –nahiz eta horretarako borondate zintzoa egon– beti hasieratik eman ezin den horren adibide bat. Entzutea posible den neurrian garatuko da enpatia, eta, horretarako, lehenbizi desaktibatu egin beharko dira defentsa mekanismoak eta entzuten dugunari kontra egiteko aurretiazko joera.

Pertsonen arteko lotura handitzen denean, berez handituko da enpatizatze gaitasuna ere, edo, bestela esanda, «zuk nahi duzun leku horretara joateko prest agertuko naiz, nik nora joan nahi dudan gorabehera»³⁷.

37. Pilar de la Torre Institutu de Comunicación No Violenta erakundearen webgunean partekatutako «Para tu práctica CNV» gogoetetatik hartutako aipua.

Baldintza guztiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, zaintzeaz, pertsonaz eta esperientziaz hitz egiten digute. Jarraian, esperientzia guztietan agertzen diren hiru baldintza eta haien inguruko zenbait ikaskuntza garatuko ditugu.

Konfidentzialtasunak sesan nahi du taldean gertatzen dena ez dela inorena, guztiona baizik, eta, neurri horretan, taldekide guztiek hala erabakitzen dutenean baino ezin dela hautsi. Esan nahi du taldean entzundakoa zaindu behar dela, baliotsua den aldetik, beste kide batzuek partekatu dutena zaintzeko ardura hartu behar dela. Beraz, harremanak zaintzeaz nahiz esperientziaz hitz egiten du. Konfidentzialtasuna bermatzea prozesuarekiko konpromisoaren adierazlerik handienetako bat da, esperientzia erabiltzearen eta patrimonializatzaren beldurra murrizten laguntzen baitu. Jakinez gero hitz egindakoa, azaldutakoa, ez dela taldetik aterako, elkarrizketa zintzoagoa izan daiteke. Posizionamenduen atzean ezkututzen diren motibo, beldur eta beharretan sakontzea ahalbidetzen du. Eta horrela sakonagoa da elkarrizketa, askatasun handiagoz azaleratzen dira-eta kontraesan eta desberdintasunak.

Diskrezioak esan nahi du elkarrizketa gunearen existentzia publiko ez egitea. Noiz edo noiz, gune batzuek jakitera eman dituzte haietan adostutako ekimenak, baina prozesuaren berri eman gabe. Kasu horietan, arrazoi nagusietako bat izan da gunea kanpo presioetatik babestea, gunearen agendaren gaineko ekimenari eutsi ahal izatea eta gai bakoitzak behar dituen lan denborak zaintzea.

Elkarrekikotasuna. Elkarrizketa horiek norberaren burua arriskatzeko dakarte, hurbiltzeko eta elkartzeko moduak bilatzeko norberaren mugei aurre egitea, guztiok arrisku berberak hartzeko eta gauza berak emateko prest gaudela jakitea: hori guztia garrantzitsua da. Jakina, nahiko kontu subjektiboa da elkarrekikotasun maila neurtzea, norberari beti iruditzen baitzaio «bestea» baino gehiago ematen edo galtzen ari dela. Baina, parte hartzaileek aldi-aldi zer jartzen duten aztertzen duten bezala, garrantzitsua da alderdietako batek nolabaiteko

desoreka sentitzen duenean hori aintzat hartzea, taldearen barruan segurtasunik sumatzen ez duela erakusten baitu. Elementu hori, gainera, taldeko konfiantzen egoeraren edo mugimenduaren adierazgarri izan ohi da, eta, hortaz, zaindu egin behar da.

Elkarrizketa giroa sustatzen duten baldintzak zehaztu ondoren, garrantzitsua da argitzea baldintza horiek ez direla bihurtzen haiek betetzen ez dituztenak epaitzeko eta zigortzeko arau. Prozesu horien beste ezaugarri bat da epaiketa moralak egiteko erabiltzen diren onen eta txarren dinamika dualak gainditu behar direla, eta begirada leheneratzaileago baterantz jo behar dugula, zintzotasuna eta erantzukizuna harturik aintzat. Esparru partekatua betetzen ez denean, beharrezkoa da gertatutakoa argitzea, arrazoiak ulertzea, norberarenaz zintzoki arduratzea eta pertsonengan nahiz bidean konfiantza berreskuratzeko modua ikustea. Hori guztia –nola landu eta integratzen den barne– elkarrizketa prozesuaren parte da.

3.1.2. Helburu partekatuak

Talde horiek osatzeko orduan, bizikidetzari ekarpena egitea da abiapuntuko motibazioa. Ohartuki nahiz oharkabea, esperientzia guztien ezaugarri da ekarpen soziala egiteko motibazioa. Batzuetan, gainera, lortu nahi den azken emaitza irudikatzen saiatzen dira: adostasun orri bat edo ekintza zehatz bat, ezagutzen ditugun erreferentziak erabiliz. Hala ere, prozesuek aukera ematen dute arazo zaharretara modu berrietan hurbiltzeko eta prozesuaren hasieran nekez imajina litezkeen emaitzak lortzeko. Bidean, azken emaitzatik helburu komunitaria eramaten da fokua, eta elkarrizketen eta helburu horiek lortzeko estrategia partekatuen gida eta erreferentzia esparru bihurtzen dira.

Bi helburu mota bereiziko ditugu:

- **Helburu inplizituak:** beti zehazten ez diren helburuak dira, prozesuaz beraz hitz egin eta berau bideratzen dutenak. Elkarrizketek aurrera egin

ahala, jabetzen gara lan egiteko moduak ematen diola zentzua eta esanahia esperientziari. Orobat konturatzen gara talde prozesuak «inpaktuan daukan potentzial biderkatzaileaz»³⁸. Horren guztiaren ondorioz, prozesuaren zaintza helburu bihurtzen da eta zentraltasuna hartzen du, nahiz eta ez den beti agerian jartzen.

- **Helburu esplizituak:** espazioko kideek zehaztutako eta esplizitatutako helburuak dira, urrats bakoitzari zentzua eman eta prozesua nahiz egin beharreko lana gidatzen dutenak. Hau da, zeregina kokatzen laguntzen digutenak –parte hartzearen zergatia gogoratzen laguntzen digutenak–, baita beldurrak, erresistentziak edo zailtasunak agertzen direnean ere.

Zeregina, beraz, partekatutako helburu esplizituak definitzea eta adostea da. Horretarako, lehenengo urratsa norberaren espektatibak azaltzea da, haietan nahiak, beharrak eta amaiera posibleak sartzen baitira. Helburu guztiek ez dutenez taldekide guztientzat pisu bera, partekatzen direnak bilatzen dira, egun landu dezakegun horrekin zerikusia dutenak. Eta, taldekide guztiek onartzen dituzten heinean, partekatua da helburu horiek lortzeko edo lantzeko erantzukizuna, eta ondorioz, norberarenak ez ezik besteen beharrak ere zaindu behar dira, adostutakoan norberarenak bihurtzen baitira.

Batzuetan, badira hasiera batean partekatuak ez diren helburu edo zeregin batzuk, taldeak sendotu ahala, egindako bideari eta sortutako konfiantzei esker, gerora adosten direnak. Garrantzitsua da ezarritako helburuak aldizka berrikustea, lorpenen maila aztertzea, ezarritako ekintzak edo estrategiak egokiak diren begiratzea eta, beharrezkoa bada, unean uneko premia eta aukeretara egokitzea.

38. Mirtha Cucco Garcíaren hausnarketatik sortu da ideia hori: «Taldea kideen batura baino gehiago da, potentzial biderkatzailea du inpaktuan». Hemendik atera da: *La metodología de los Procesos Correctores Comunitarios (Metodología ProCC)*.

Bereizi behar ditugu, batetik, jarduna (landu beharreko gaiak eta laneko agenda osatzen duten ekintza zehatzak) eta, bestetik, helburuak. Ekintzak helburuak lortzeko ezarriko ditugun estrategiak dira. Beraz, helburu bat lortzeko estrategia ugari egon daitezke, eta horrek zabaldu egiten ditu auzi edo gai bati erantzuteko aukerak, betiere helburua alde batera uzten ez bada.

Helburu partekatuak finkatu ondoren, batzuetan, taldearen osaera egokitu behar izaten da, helburuek zehazten baitute horiek lortzeko pertsona egokien profila zein den.

Taldearen zentzua krisian eta helburuen zeregina. Elkarrizketa prozesuek askotariko tentsioak bizi dituzte etengabe, testuinguruko elementuen, elementu pertsonalen edo talde dinamiken beren eraginpean daudelako. Esperientzia horietan bide zalantzarri bati ekin behar zaio, ezagutzen edo aukeratu ez diren bidelagun batzuekin, eta ahalegin handia egin behar da, bai gaiarengatik eta gogora ekartzen diren emozioengatik, bai eskatzen duten denborarengatik eta dedikazioarengatik. Horrengatik, prozesu osoan, jokoan dago esperientziaren «zentzua». Legezko eta zaindu beharreko gauza normal bat da. Litekeena da tartean diren eragileek zalantzan jartzea esperientziaren zentzua, zein bere egongunetik: zentzurik al du oinazea pasatzeak? zentzurik al du nire zaugarritasuna erakustek? zentzurik al du arriskatzek? zentzurik al du mintzen, gogaitzen edo deserosotzen duena ukitzek? zentzurik al du gordeta, isilduta edo ukatuta eduki dudana erakustek? zentzurik al du nire diferentziak erakustek, azpian dagoen gatazkari aurpegia emateak?...

Zentzua berreskuratzeak –bidaia honi zergatik ekiten diogun gogoratzeak– ilusioak eta ahaleginak berriro sinkronizatzen laguntzen du, eta hortik egin dezakegu aurrera talde gisa eta hel diezaiokegu zereginari.

3.1.3. Aktak

Gure esperientzian aktak lan tresna baliotsuak diren arren, elementu gatazkatsu bihurtu daitezke, erraza baita haietan bideratzailearen interpretazioak edo balorazioak sartzea eta, hala, saioan bizitakoa desitxuratzea.

Egindako aktek adostutako konfidentzialtasuna gorde behar dute; beraz, pribatuak dira izatez, eta laneko tresnatzat hartu behar dira. Nagusiki, bilera bakoitzean hartutako erabakiak, izandako elkarrizketen garapen maila, eta adostasun eta desadostasun puntuak markatzen dituzten gakoak jasotzen dira. Azken puntu hori bereziki lagungarria da bileran zenbat aurreratu den ikusteko, eta ez geratzeko gertatutakoaren sentrazio edo pertzepzio pertsonal eta subjektiboarekin soilik. Gainera, aktak onartu egin behar direnez –bilera bakoitzaren hasieran zerbait zuzendu edo osatu behar den galdetzen da–, taldekideek ezinbestean irakurri behar dituzte akta horiek. Horrenbestez, bilera kokatzen, puntu berean gaudela iruditzen zaigun egiaztatzen eta, hortik, aurreko bilerari jarraipena ematen laguntzen dute.

Azkenik, espazioaren osaeran aldaketaren bat izan denean, orain arte landutakoa transmititzen laguntzen dute aktek. Kideek beren erreferentzia taldeei gai baten berri eman behar dietenean (normalean espazio politikoetan gertatzen da egoera hori), oso lagungarriak dira aktak, taldeak zer jakinaraztea erabaki duen zehazten baitute. Gauza bera esperientzia dokumentatu edo sistematizatzeari dagokionez.

3.2. Taldea lanerako espazio gisa

Aipatu ditugun prozesuen lan eremu partekatu eta adostua taldea da. Dena ez da taldean gertatzen, baina prozesuarekin erlazionatutako guztiak lekua du taldean. Bileratik irteteen, parte hartzaile bakoitza bere

errealitatera itzultzen da. Batzuetan, testuinguru orokorrak edo udal taldeetako dinamika politikoak eragin nabarmena du kideren batengan. Taldea ez denez irla bat, baizik eta bere inguruarekin konektatuta dagoenez –kanpoan gertatutakoa taldera ekartzen eta ingurunean eragin nahi den heinean–, taldeak lekua egiten dio horri guztiari. Funtsean, gure hizpidea erreala den zerbait delako, eta taldean hari modu seguruan heldu ahal izateko baldintzak betetzen direlako. Beste batzuetan, bileraren baten oihartzunak dira inpaktua eragiten dutenak: entzundako edo entzun gabeko zerbaitek eragina du taldeko kideren batengan, eta ondoeza, haserrea edo mina sortzen du. Batzuetan, horrek esan nahi du bideratzailearekin hitz egin behar dela, zer mugitu den hobeto ulertu ahal izateko edo inpaktua hain handia izan delako, non esperientziarekin jarraitzea ere baldintzatzen duen. Kasu horietan, gertatutakoa taldera ekartzea da beti akordioa, bizitzen ari den prozesuaren berri ematen baitu.

Taldeak honela defini daitezke: «zeregin baten arabera denbora eta espazioa partekatzen duten pertsonen multzoa»³⁹. Bada, zeregin edo helburu nagusia bizikidetzari ekarpen bat egitea izanik, lanerako espaziotzat hartzen dira talde horiek. Hala ere, guregan zerbait mugitzen eta eraldatzen denean, prestakuntza espaziotzat ere har daiteke taldea, eta badu izaera terapeutiko bat ere. Erronka handia izan da taldearen ideia hori bateratzea, laneko, prestakuntzako eta, neurri batean, izaera terapeutikoko espazio gisa.

Herritarren espazioetan oso presente dago bizipenezko dimentsioa eta, hain zuzen ere, horrek sortzen ditu batzuetan nolabaiteko erresistentziak. Taldean geure burua agerian utzi eta zaurgarritasun maila handia bizi dugu. Horrek beldurra sortzen du, eta, ondorioz, baliteke plano arrazional batetik zereginarekin ados dauden kideek zalantzan jartzea beren parte hartzea. Halakoetan, segurtasuna eman dezakeen gauzetako bat izan liteke

39. Cucco García, Mirtha; Códova Llorca, Dolores eta Rebollar Sánchez, Maricel Alba. *La intervención sobre los malestares de la vida cotidiana. Aportes de la Metodología de los Procesos Correctores Comunitarios*. NuevosEscritores, 2010.

jakitea taldeak ez duela inoiz eskatzen norbera emateko prest dagoena baino gehiago, eta bakoitzak libreki erabakitzen duela zenbateraino ireki bere burua.

Espazio fisikoari dagokionez, normalean espazio berean biltzen dira beti taldeak, eta horrek talde esperientziarekin konektatzen eta geure burua hemen eta orainean kokatzen laguntzen du. Prozesua gertatzen ari den tokian gaude. Formatu ideala aulkien zirkulua da, edo, Dominic Barter-ek dioen bezala, «botere partekatuaren geometria», alderdien arteko negoziazio mahaiaren dinamika hausten eta multipartzialtasuna ikusten laguntzen duelako. Formatua horizontalagoa da, hierarkiarik gabea, eta hitz egiteko eta entzuteko beste leku batzuk bilatzen laguntzen du. Berdintasun handiagoko tokiak, konexiokoak, hauskortasunekoak eta elkar zaintzekoak. Batzuetan, bideratzaileak hasieratik emanda dator zirkulua, eta prozesuak aurrera egin ahala ulertzen du taldeak zer zentzu duen horrek. Beste batzuetan, dinamika mahaidun batean sartzen da bideratzailea. Halakoetan, prozesuaren parte izaten da mahaia kentzea, eta taldekideek segurtasun edo erosotasun handiagoa sentitu ahala kentzen da. Hori ez denez beti posible izaten, erronka handiagoa bihurtzen da dinamikotasuna lantzea.

Denborari dagokionez, aurreko ataletan aipatu dugu «hemen eta orainak» testuinguru jakin bati erantzuten diola, non, indarkeria politikoaren amaiera gorabehera, pertsonen bizitzan oraindik oso bizirik dauden haren eraginak eta, haren ondorio batzuk ez direnez erabat zaindu, sufrimendua oso presente dagoen. Elkarrizketa horietan, taldekideek lehen pertsonan hitz egin dezakete oraindik, gatazkaren parte dira eta zuzenean bizi izan dituzte indarkeria edo haren ondorioak, edo indarkeriak nabarmen baldintzatu ditu haien harremanak eta eguneroko bizitza. Hortaz, denbora kronologikoek eragina dute espazioan. Nahiz eta talde bakoitzak hasieran bere denborak markatzen dituen, hasieran aurreikusitako hilabeteak urte bihurtzen dira. Horri gehitu behar zaio, ikusitakoaren arabera, uste baino denbora gehiago behar izaten dela auzi eta gai batzuk jorratzeko.

3.2.1. Talde prozesua

Taldea, espazio gisa ez ezik, bere dinamika duen lan metodo gisa ulertzea oso lagungarria izan da prozesuan zer gertatzen den ulertzeko eta, hortik, prozesua modu eraginkorragoan lagundu ahal izateko. Taldearen gaineko begirada honetan, nabarmengarria da zenbait egilek, hala nola Pichon-Rivière-k⁴⁰ eta Mirtha Cucco-k⁴¹, psikologia sozialetik egin duten ekarpen baliotsua. Puntu honetan, elementu kontzeptual batzuk eta tresna jakin batzuk baino ez ditugu aipatuko, zeinak baliotsuak gertatu zaizkigun hala talde dinamika irakurtzean nola talde prozesua zentzuz hornitu eta laguntzean. Ziur aski, aipatutako egileek garatutakoaren interpretazio oso pertsonalak dira, baina oso erabilgarriak izan dira, elkarrizketa guneetan sortzen ziren beharrei lotzen zaizkien heinean.

Espazio horietan gertatzen dena ondoen deskribatzen duen hurbilketetako bat talde prozesua «**espiral dialektiko**»⁴² baten gisan ulertzea da; hau da, aurreranzko eta atzeranzko mugimendu batzuk, elkarren segidan. Elkarrizketa prozesuari prozesu dialektiko gisa begiratzea, mugimenduan dagoen prozesu gisa, lagungarria da aldaketaren lan zailari aurre egiten ari gatzazkiola konturatzeko. Prozesu hori espiraltzat ulertzeak zentzu berri bat ematen die ager litezkeen zailtasun edo blokeoei. Esan nahi du onartu egiten dugula mugimendu edo aldaketa orok erresistentzia batzuk sortzen dituela, eta horiek, zeregina desitxuratzea baino gehiago, ikasteko aukera bat direla, eta atzeranzko mugimendu horiei jaramonik egin gabe ezinezkoa dela helburu partekatua lortzea.

40. Enrique Pichon-Rivière mediku psikiatra bat izan zen, psikoanalisi Argentinara eraman zuenetako bat, eta «talde eragile» gisa ezagutzen den talde teoriaren sortzailea. Gizarte psikologian oso tresna garrantzitsua da teoria hori.

41. Mirtha Cucco García gizarte psikologiako eta psikologia klinikoko aditua da.

42. Pichon-Rivière garatutako kontzeptu bat, «kono alderantzikatu» izeneko talde prozesua ebaluatzeko tresnan oinarritua.

Beraz, prozesua espiraltzat hartzen duen ideia horrek bete-betean lotzen du esperientzia horietan gertatzen denarekin. Batzuetan, taldeak gai bat lantzen ari dira, eta bat-batean erritmoa motelarazten edo geldiarazten duten egoera batzuk sortzen dira; askotan, konfiantzari kalte egin, eta zalantzan jartzen dute lanaren zentzua. Lagunarteko hizkeran «krisi» edo «blokeo» deritzona da. Talde prozesuaren parte direla onartuta hurbiltzea egoera horietara eta talde dinamika irakurri eta zentzuz hornitzeko tresna metodologikoak izatea oso lagungarria da, bai bideratzailearentzat, bai taldearentzat.

Hurbilketa metodologiko horretan, beste elementu baliotsu bat da talde dinamikaren barruan mugitzen diren bi plano interkonektatuak identifikatzea, hots: **esplizitua edo tematikoa** dena, esaten duguna, taldean adierazten dudana, itxuraz gertatzen dena, eta **estalia edo inplizitua** dena, emozionala, erlazionala, gertatu eta esplizitatzen ez dena. Mirtha Cuccok dioen bezala, «edukiak ez dira afektiboki neutroak», gure bizi eta gizarte ibilbidearekin lotzen gaituzte, iraganeko esperientziekin, gure «motxilekin»... Hortaz, alderdi dinamikoa eta tematikoa prozesu beraren parte direla ulertzeak taldean gertatzen dena hobeto ulertzen laguntzen du, eta hortik aukera ematen du energiak non jarri lehenesteko.

Taldearen definiziora itzulita –alegia, «pertsonek multzo bat, zeregin baten arabera denbora eta espazioa partekatzen duena, eta rola hartu eta esleitzeko mekanismo konplexu batetik erlazionatzen dena»⁴³– rolen gaitasun sartuko gara, laburki. Lagundu ditugun esperientzietan, ez diegu sistematikoki begiratu betetzen ziren rola, hein handi batean menperatzen ez gunden metodologia bat zelako, baina neurri batean txertatu dugu begirada hori, oso modu puntualean, prozesuan zer gertatzen ari zen irakurri eta ulertzeko orduan.

43. Cucco García, Mirtha; Códova Llorca, Dolores eta Rebollar Sánchez, Maricel Alba. op. cit.

Lehen aipatutako egileek garatutako teoriaren arabera, pertsonok rol erreperitorio bat dugu, eta gure bizitzan zehar giza taldeetan parte hartzen dugunean, antzestu egiten ditugu. Talde baten barruan, rol horiek talde prozesuaren zerbitzura daudela ulertzen da: funtzio bat betetzen dute, baina, horretarako, taldeak esleitu eta kideak onartu behar ditu, nahiz eta batzuetan inkontzienteki onartu. Hortik abiatuta, talde prozesuaren egoeraren adierazle bihurtzen dira rola. Pertsonak, dei egiten dien zereginaren arabera, ilusioak eta ahaleginak sinkronizatzen dituztenean eta talde bihurtzen direnean –alderdi guztien batura baino gehiago den organismo bat–, aitortzera ausartzen ez dena adieraziko duen norbait behar du taldeak, eta zeregin hori betetzen dute rola. Espiral dialektikoaren ideiarekin jarraituz, alderdi dinamiko edo ezkutuari aurrera-atzera ardatzetik begiratzen lagundu digute orain arte erabili ditugun rola. Eta, batez ere, lanean hasi eta gero taldeak bat-batean galga jartzen edo atzera egiten duenean hobeto ulertzeko aukera eman diguten rola erreparatu diegu. Arrazoietako bat, beharbada, pertsonak zein esperientzia zaintzeko beharra izan da. Etenaldiek izugarriko frustrazioa eta ondoreza sortzen dute, eta, maiz, atzerapausoarekin lotzen dugun taldekidea jartzen dugu gure ondorearen erdigunean. Beraz, rola irakurketa oso lagungarria izan da pertsona eta arazoa bereizteko.

Esaten dugunaren adibide bat honako hau izan liteke: norbaitek lanean aurrera egiteko zailtasunak dituztenean, arrazoiak askotarikoak izan daitezkeela ulertzea, hala nola erresistentzia pertsonalak, kanpo presioak edo beharbada taldean gertatzen den zerbait. Kasu horietan, zer rola betetzen ari litekeen eta gertatzen ari denarekin zentzurik al duen berriku dezakegu, pertsona eta rola bereizten eta fokua guztiok zaindu behar dugun talde prozesuan jartzen lagunduko baitugu. Norbaitek atzerapausoaren rola betetzen duenean, horrek esan nahi du taldea azkarregi doala, gai batzuk ez direla behar adina argitu, taldekide guztiak ez dutela sentitzen toki berean daudenik urrats berriei aurre egiteko. Aditzera ematen digu taldea aurrerapauso bat ematekotan dela, eta horrek beldurtu egiten duela. Une horretan, taldeak –sistema bizitzat

ere hartuta– bere burua erregulatzen du eta norbaiti esleitzen dio egoera hori adierazteko modua emango duen rola.

Prozesua espiraltzat hartzen duen ideiaren pertzepzioa etengabea izan da espazio guztietan, eta Pichon-Rivièrek deskribatutako faseek, betiere interpretazio oso pertsonal batetik, espiralaren ideiak zer esan nahi duen hobeto azaltzeko aukera ematen digute.

1. **Talde prozesuaren hasieran**, beldur eszenikoari aurre egiten diogu. Taldea aurretiazko zereginetan hasten da. Helburu nagusia da norbanakoen baturatik taldea egitea. Hasieran, lehentasuna egitura bat adostea da –gure kasuan, lan esparru partekatua–, elkarrizketari aurre egiteko segurtasuna eman dezan. Era berean, zer helburuk dei egiten digun adostu behar da. Segurtasuna, babesa eta gisako oinarrizko beharrak asetzea lehenesten dugunez, kidekoak bilatzera jotzen dugu. «Soziabilitate sinkretiko» deritzo horri, eta berdinen artean erasorik ez egiteko itun ez esplizitu bat eratzen da.

2. **Inflexio puntua**. Taldea aurretiazko zereginetatik lanera igarotzen den unea da. Modu inkontzientean, zereginak eta funtzioak banatzen dira, eta horrek rolak esleitzea eta onartzea dakar. Taldea lanerantz mugitzen da; hau da, desberdina dena bilatzen hasten gara, osagarria dena. Taldean leku seguru bat hartu dugula sumatzen dugu, edo taldea espazio segurutzat hartzen dugu. Horrek desadostasunak agertzeko eta arriskuak hartzeko aukera ematen digu. Hemendik aurrera, «erasorik ez egiteko ituna» hausten da; izan ere, desadostasuna agertzea ez da arriskutsutzat sentitzen, eta konexiotik eta ulermenetik posible da. Desioak nahiz ahaleginak sinkronizatzea lortzen dugu: taldeak jada talde gisa funtzionatzen eta pentsatzen du.

3. **Bihurgunea iristen da**, edo oztopo/krisi deritzoguna. Taldeak atzeranzko mugimendu bat egiten du, freno aktibatzen du eta aurretiazko zereginetara itzultzen da. Bat-batean helburua galtzen da. Berrero antolatuta behar da taldea, alderdi tematikoa gelditu eta barrura begiratu. Zeregina kokatu eta helburuak berreskuratu behar dira, zehaztu gabeko beldurrak eta erresistentziak irakurri.

Atzeranzko mugimenduak esan nahi du tokia egin behar zaiola pisua duen horri, nolabait elkarrizketa baldintzatzen duen horri. Batzuetan, pertsona jakin batek eragiten du gai batez hitz egitea, tentsioz bizi den kontu bat aipatzen du. Esaten duenak zerikusirik badu taldean gertatzen ari denarekin, Pichon-Rivièrek definitutako bozeramailearen rola betetzen ari da pertsona hori. Hau da, batzuetan, norbaitek gai gatazkatsu bat dakar, berarentzat garrantzitsua dena, baina gatazka gisa bizi dena. Gogaikarritzat hartzen den heinean, beste kide batzuekin lotzen den heinean, aditzera ematen du taldean badela konpondu gabeko zerbait, arta behar duena. Kasu horietan, garrantzitsua da ez nahastea pertsona eta rola, edo sortzen den arazoa.

Normalean, egoera hori atzerapausotzat, oztopotzat edo krisitzat hartzen da taldeetan. Izan ere, tentsio une bat da, gelditzeko beharrik ikusten ez dutenen eta badutenen artean. Baina gelditzeak eta azaleratzen denari jaramon egiteak gogorarazten digu bestearen denborak zaindu behar direla, eta zintzoak izan behar dugula prozesuarekin, hartan botere bera baitugu denok, eta guztion erantzukizuna baita hura zaintzea. Gogorarazten digu taldearen osasuna zaindu behar dela; izan ere, inkontzienteki, baliteke jarduteko konpultsio batean sartzea gogaikarritzat hartzen den horri ez begiratzearren.

Bideratzailea gertatzen ari denaz jabetzen denean, inplizitua agerira ekartzeko hainbat tresna erabil daitezke. Adibidez, saio bakoitza kokatzeko erabilitako galderak baliatuz: nola zatozte gaur taldera? badago azken bileratik ekarri nahi duzuenik? Galdera horiek lotura handiagoa dute gogoarekin, geruza emozionalenarekin, eta hortik ate bat ireki diezaiekete elkarrizketetan garrantzia hartzen ari diren eta kanalizatzeko biderik aurkitzen ez duten behar batzuei.

Hala ere, batzuetan beharrezkoa da pixka bat gehiago esku hartzea. Bideratzaileak bere ustez gertatzen ari dena adieraz dezake, beldur edo ondoez batzuk aipatuz eta horiek beharretara ekarri, bileraren testuinguruan. Esandako zerbaitek gertatzen ari denarekin loturarik duen aztertu. Hala bada, nolabait «legezkotu» egin da hura izendatu

ahal izatea eta, hortik, taldean zer lotura eta inpaktu dituen ikus daiteke. Horrek mamua desagerrarazten du.

Beldur edo erresistentzia horietako batzuk izan daitezke taldea bera traizionatzeko beldurra, talde identitatea handitu ahala norberaren nortasuna galtzeko beldurra, edo limurtua edo manipulatu izateko beldurra.

4. **Bihurgunetik irtetea.** Bideratze lanaren bitartez bihurgunetik ateratzeko, gaiari dagokionez erritmoa jaitsi behar da, eta fokua alderdi dinamikoan jarri. Barrura begiratu behar da, eta mugitzen ari den hori, elkarrekin aurrera egitea eragozten diguna, entzun. Helburua da denontzat funtzionatuko duen irtenbide bat bilatzea, taldea zaintzea, geldiarazi gaituen arrisku sentsazioa murriztea, eta ilusioak eta ahaleginak sinkronizatzeko moduari erreparatzea berriro. Lehen aipatu dugun bezala, halakoetan, une horiei zentzua emateko lagungarria da taldera deitu ziguten helburuak berreskuratzea.

Prozesu horien ezaugarri ere badiren nekearen eta frustrazioaren ondorioz, begizta bat edo irteerarik gabeko biribilgune bat balitz bezala bizi ohi da bihurgunea. Halakoetan, gelditzeak eta ibilitako bideari perspektibaz begiratzeak lagunduko digu; lortutakoak berreskuratzea, esperientziaren alde onak ekartzea gogora. Denbora lerro bat harturik ardatz, hemen eta orainean kokatu, eta non geunden eta non gauden begiratzea. Gogoratzea nola hasi ginen, ezarritako helburuak zein diren, zer bide egin eta zer mugarri lortu diren, eta, hortik, etorkizunari begiratzea: zer nahi dugun eta zer egin dezakegun gure lana gauzatzeko bidean aurrera egiteko.

Irtenbidea prozesuan barneratzen den ikaskuntza bat da. Bihurguneari buelta emanda beste toki batean jartzen denean, taldea indartuta ateratzen da normalean.

3.2.2 Talde prozesuari eragiten dioten beste elementu batzuk

1. **Jarraitutasuna** saioetara bertaratzeko orduan. Taldean egiten den lanaz eta landutako gai edo zereginez gain, esperientzia bizipenezkoa da nagusiki. Horrek esan nahi du nork beretik eman behar duela, eta zentzua hartzeko bilera bat baino gehiago eskatzen duten elkarrizketa gogaikarri eta batzuetan gatazkatsuak bizi. Esan nahi du garrantzi berezia hartzen duela bilera guztietara joateak, taldean bizirik dauden gaiak ulertzeko eta konpontzeko abagune bat delako haietako bakoitza.

Bestalde, bilerara itzultzean berriro konektatzen dugu talde esperientziarekin, zirkulua osatzen duten inguruko aulkietara begiratu, eta guztiak gauden egiaztatuko dugu. Taldekideak prozesuari sostengu ematen dioten horma dira. Aulki bat hutsik dagoenean, horrek kezka sortzen du, prozesuan hutsune bat uzten duelako. Kasu horietan, garrantzitsua da huts egitearen zergatia egiaztatzea, halabeharrez izan al den eta hala jakinarazi al den. Bestela, eta huts egitearen arrazoiak zentzurik hartzen ez badu, horrek aditzera ematen du zerbait ari dela gertatzen prozesuan, eta berreskuratu egin behar dela, prozesatzeko, ulertzeko eta kokatzeko. Gainera, norbait saio batera bertaratu ezin denean, horrek pisua du huts egin duen kidearengan ere, hurrengoan konektatzea gehiago kostatzen zaiola sumatzen baitu.

Horrelako esperientziek asko exijitzen digute, hainbat alderditan: esaterako, hartzen dugun arrisku maila, iraupena eta jorratzen diren gaiak. Horregatik, ez ortotzeak besteen elkarrekikotasun eta konpromiso maila aztertzea eraman gaitzake.

2. Taldearen **osaera aldatzea**. Batzuetan, elkar ezagutzan aurrera egitean, taldean falta diren beste bizipen batzuk entzun behar dituela nabaritzen du taldeak, eta taldea osatu arte gelditzea erabakitzen du. Erabaki horiek, epe ertainean onuragarriak izan arren, ondorioak ditu talde prozesuan. Dagoeneko taldean dauden kideentzat, normalean, prozesuaren fase batzuk errepikatu beharra dakar: adibidez, norberaren bizipenak berriz

azaltzea. Aldiz, litekeena da taldekide berriek taldeko bizitzan oso garrantzitsua eta esanguratsua den zerbait galdu dutela sentitzea, aurreko bizipenak oso presente dauden heinean.

Bestalde, herritar taldeetan kideak **boluntarioak** direnez, taldekideek hala erabakitzen dutenean sartzeko eta irteteko askatasuna dute. Nolanahi ere, osieran izandako aldaketa horiek eragin nabarmena dute prozesuan. Kasu horietan, pisua du absentziak. Absentziak taldea bertan behera utzi dela edo taldeak porrot egin duela pentsaraz dezake. Normalean, taldea uztea erabakitzen duten kideak bilera batera gonbidatzen dira, aukera izan dezaten agur esateko, taldeari beren zergatiak jakinarazteko, eta taldearengandik jasotzeko haien parte hartzeak zer esangura izan duen. Nolabait, galerari zentzua ematen eta dolua egiten laguntzen du erritual horrek. Hala ere, beti ez da egiten urrats hori eta, halakoetan, absentziaren arrazoiak ez ulertzeak, agur esateko aukerarik ez izateak, zaildu egiten du beharrezkoa den itxiera egitea eta falta den kidea oso presente dago prozesuan.

Espazio politikoaren kasuan, taldearen osaera legegaldi aldaketarekin batera aldatu ohi da. Orduan, prozesuak geldialdi bat izaten du alderdi tematikoari dagokionez, eta lan esparru partekatua berrikusi behar izaten da, kide berrien beharrak ekartzeko. Ez du hainbesteko eraginik lan agendan, ez eta helburuetan ere; izan ere, ordezkari politikoak diren heinean, alderdiaren konpromisotzat jotzen dira, eta, beraz, baita propiotzat ere. Hala ere, prozesua hasieratik bizi ez izanak batzuetan zaildu egiten du emandako pausoak eta eztabaida aurreratuak ulertzea. Nahiz eta landutako gaien berri jaso, kide berriek ez dute aurreko prozesuaren bizipenik, ez dakite zenbaterainoko konpromisoa eta arriskua erakutsi duten beste alderdi politikoek, eta, beraz, hasiera batean begirada politikoa da, gizatiarra baino gehiago. Kasu horietan, udaleko harreman mailak markatuko ditu konfiantzak, eta batzuetan saldo negatiboa izango dutenez, denbora gehiago beharko dute. Hala ere, osieran izandako aldaketak ez dira berez txarrak: batzuetan, elkarrizketa enkistatu batzuk errazten dituzten hurbilketa pertsonalak ekartzen ditu erreleboak.

3.3. Elkarrizketa zentzu fluxu gisa

Pentsatzen dudanaren, esan nahi dudanaren, ustez esan dudanaren, esaten dudanaren, entzun nahi duzunaren, entzuten duzunaren, ustez aditu duzunaren, aditu nahi duzunaren eta aditzen duzunaren artean, bederatzi aukera daude elkar ez ulertzeko⁴⁴.

Batzuetan elkarrizketak esan nahi duenaren ikuspegi estereotipatu batzuetatik abiatzen gara, are gehiago gurea bezalako gizarte polarizatuetan. Askotan, arrazoa ematearekin edo argudiatuz konbentzitzearekin lotzen da elkarrizketa, edo gure bizipenen pisua eta taldean nahiz gizartean dugun maila edo estatusa baliatuz limurtzearekin. Hala ere, esandakoaren zentzu sakona ulertzea bilatzen duen prozesutzat har daiteke elkarrizketa; hortik, «bestearekin» pareko gisa konektatzea ahalbidetzen digun prozesutzat. Ikusmolde horrek aukera berriak irekitzen ditu estrategia eta irtenbide partekatu batzuk bilatzeko, «arnasa luzeko eraldaketak» sortuko dituztenak, Jean Paul Lederach gatazka bitartekaritzako adituak zioen bezala.

Batzuetan, guretzat garrantzitsua dena argi adierazi, eta besteak esaten diguna ulertu nahi dugu; baina, sarri, badirudi bide desberdinetatik doazela esandakoa eta entzundakoa. Ez gara gai komunikazio kanal bat edo konexio bat irekitzeko. Egoera horiek ezintasun, frustrazio, ulertezintasun eta bazterketa handiko sentimenduak sortzen dituzte.

Erronka, beraz, kideen arteko lotura hori nola ezarri da, elkarrizketan elkar ulermena bermatzeko. Marshall Rosenberg-en indarkeriarik gabeko komunikazioaren metodoa oinarri, Brasilgo faveletan zirkulu leheneratzailearen metodologia sortu zen, eta hartan irakurri dugunez, konexio hori ezar dadin, mintzatzailearen eta entzulearen arteko zentzu fluxutzat hartu behar da elkarrizketa.

44. Bernard Werber-en *L'Encyclopédie du savoir relatif et absolu* liburutik aterata.

Ulertzeko nahi zintzoa eta jakin-nahia aktibatzea esan nahi du berririo, ez zentratzea hainbeste esaten edo egiten den horretan, ezpada esan nahi den horretan; «izan ere, pertsona bakoitzak bestearen hitz nahiz ekintzen bidez adierazi den esanahia edo beharrak aditzen dituenean lortzen da ulermen modurik sakonena», Marshall Rosenberg-en arabera. Hala ere, entzutea ez da beti erraza izaten. Batzuetan, amorruek, minak edo haserreak ez digute uzten entzuten, are gehiago solaskideak gatazkan «bestea» ordezkatzeko badu. Zenbat eta handiagoa minaren intentsitatea, orduan eta handiagoa gorreria. Espazio horiek emozioei leku bat egiteko aukera ematen dute, emozioak talde prozesuarekin konektatuta dauden heinean. Batzuetan, azaldutako emozioek eta beharrek ez dute gunean zer gertatzen ari den soilik adierazten, dimentsio pertsonalagoa edo sozialagoa dute. Kasu horietan garrantzitsua da taldearen helburuak eta hasierako akordioak, bileraren zertarakoa, gogoratzea. Espazioaren ahalmen terapeutikoa eta terapia bera bereiztea. Argi eduki behar dugu espazioaren izaera zein den, bideratzaile gisa prozesatzen lagundu ezin duguna ez irekitzeko eta taldeari eman dezakeena baino gehiago ez eskatzeko. Bideratzailearen lana da egoera horiei eustea eta elkarrizketa prozesuarekin izan ditzakeen loturak bilatzea, alderdi tematiko nahiz dinamikoan. Leku horretatik lagundu beharko du, batetik, kidea ez dadin bere emozioak erakusteagatik epaitua edo baztertua sentitu, eta, aldi berean, egoerak taldea gaindi ez dezan.

Beste une batzuetan, hitz egiten duenak dauzka zailtasunak garrantzitsu deritzon hori ulertarazteko, eta, behar duen hortaz hitz egitean baino gehiago, ustez bere beharra nola ase behar den defendatzean zentratzen da. Hau da, eskatzen edo exijitzen du zerbait eman dakiola, bere beharrak asetzen lagundu diezaiokeen gauza bakarra delakoan.

Eta gehienetan ez dakigu nola aditu; uste dugu aditzen dugula, baina aditu baino gehiago hizketa entzuten dugu.

Zirkulu leheneratzaileen metodologiaren barruan, zentzuaren fluxua berreskuratzeko eta hortik konexioa berrezartzeko aukera ematen duten teknika batzuk erabiltzen dira. Teknika horiek entzute sakona garatzea

eskatzen dute, eta, batez ere, hitz egiten duena babestu eta zaintzea. Oso modu errazean, taldekide batek mintzatzaileari adi entzuteko funtzioa hartuko du bere gain –talde osoaren zerbitzura–, eta aldian behin ustez entzun duena itzuliko dio: mezu nagusia, esaten duenaren zentzua edo jakinarazi nahi duen beharra. Itzultze lana egindakoan, mintzatzailearekin egiaztatuko da ea hori nahi zuen adierazi, eta horrela jarraituko dute mintzatzaileak bere burua ulertaraztea lortu duela deritzon arte. Entzundakoak zentzua hartzen duen heinean sortzen denez elkarrizketa, elkar ulermena posible da, eta horrek ulertezintasunak sor dezakeen ezintasun, haserre edo min sententzia gutxitzen laguntzen du. Gainera, elkar ulermena handitzen den heinean, entzutea enpatikoago bihurtzen da, eta «besteak» garamatzen lekura joatea onartzen diogu geure buruari.

Itzulketaren teknika hori nagusiki bideratzaileak erabiltzen du, sumatzen baldin badu entzutean ulermenik edo adieraztean argitasunik ez dagoela, alderdiei berriz konektatzen laguntzeko. Hala ere, prozesuek aurrera egin ahala, parte hartzaileek ere barneratzen dute entzuteko modu sakonago hori, elkar ulermenak zentzua eta balioa hartzen dituelako.

Halako entzute sakonari ematen zaion balioaren erakusgarri da gune horietan adostasunez hartzen direla erabakiak. Zerbait adostu behar denean, desadostasun eta adostasun puntuak identifikatzea bezain garrantzitsua da horietako bakoitzaren atzean dauden mugak, beldurrak eta beharrak ulertzea. Horretarako, zintzotasun ariketa handia egin behar da konexioa berrezartzen lagundu eta, hortik, askatasun handiagorik erabaki ahal izateko zer eman nahi duen bakoitzak eta zeri uko egiteko prest dagoen. Eta horrela bakarrik, emateko askatasunetik, araka daiteke unean-unean zer egin eta zenbateraino parteka daitekeen.

Komunikazioa zaintzea erronka bat da, zintzotasun maila handia eskatzen digulako. Baina, aldi berean, engainuaren, erabileraren edo manipulazioaren beldurra gaitzetzeko modurik onena da. Denbora askoan nolabaiteko anbigutasun konstruktiboa erabili dugu, gauzak modu generikoan izendatzeko terminoak edo moduak, guztiok gauza

bera ulertzen al genuen egiaztatu gabe, edo, gauza bera ulertu ez arren, iruditzen zitzaigun geurea ere kontuan hartzen zela. Espazio horietan baldintza egokiak daude bakoitzarentzat garrantzitsua zer den esplizitatu ahal izateko, exijentzia eta posizionamendu zurrunetatik harago. Baldintza egokiak daude adierazten dugunaren zentzu sakona, gure mugak eta nahiak zintzoki erakusteko; azken batean, gure zaugarritasuna erakusteko.

3.4. Harremanen dimentsioa eta konfiantza

Harremanen dimentsioaz hitz egitean, pertsonok gure nortasuna eraikitzeke erabiltzen ditugun loturez eta harremanen testuinguruez ari gara. Bideratze lanaren bitartez, prozesuak maila horretan zer inpaktu dituen ere identifika dezakegu.

Alde batetik, elkarrizketa esperientzia horietako parte hartzaileek lotura batzuk eraikitzen dituzte gainerako taldekideekin elkarreraginean; hala, elkarrizketetan eragin nabarmena duen «armiarma sare» ia hautemanezina sortzen da.

Bestalde, zintzotasuna eta sakontasuna irabazi ahala, elkarrizketa prozesuaren bizipenak norberaren mundu ikuskerarekin konektatzen du jendea; hau da, ibilbide pertsonalaren arabera eta testuinguru bakoitzeko imajinario soziala barneratuz eraikitzen du pertsona bakoitzak bere pentsamolde eta jokamoldea. Beste pertsona batzuekiko elkarreraginak zabaldu egiten duenez gure mundu ikuskera, eragina du sinesten, pentsatzen eta egiten dugun horretan. Eta, azkenik, lotura sakonak daude norberaren erreferentzia munduekin, urteetan zehar gurekin beste historia eta ibilbide sozial eta politiko batzuk bizi izan dituzten pertsonekin.

Elkarrizketek eragina dute «besteekiko», norberarekiko eta «gurekiko» harremanetan, aldatzen dituzte, eta horrek eragina du prozesuetan. Hori dela eta, zaindu eta arreta eman behar zaie, onartu, naturalizatu eta lagundu behar dira. Izan ere, aldaketek, mugimenduek, testuinguru segurua behar dute barneratu daitezen, halako moldez

non baliagarriak izango baitira, prozesurako ez ezik, baita prozesua ahalbidetzen duten pertsonentzat ere.

Batzuetan, taldearen barruan sortutako loturak elkarrizketen zintzotasuna mugatzera irits daitezke. Zaintzea atseginaz izatearekin, arrazoia ematearekin edo ikuspegi desberdin edo kontrajarriak adierazteak sor lezakeen gatazka saihestearekin nahasten da. Kasu horietan, pertsona batzuk beren burua zentsuratzera irits daitezke, bestelako iritzi edo ikuspegiak ez erakustera, «alferrik» minik ez egitearren.

Prozesuan, elkar ezagutzera iristen da taldea, kide bakoitzaren mugak, zailtasunak eta erosotasun guneak identifikatu ahal izateraino ere. Hortik, kide batzuek, inkontzienteki, ez diete heldu nahi beste taldekide batzuentzat mingarriak edo deserosoak izan daitezkeen gaiei. Baina, hala ere, garrantzitsuak dira eta esplizitatu ahal izan behar dira. Elkarrizketa korapilatsuak irekitzea elkarri eraso edo min egiteko arriskutzat hartzen da, eta, orain, beste testuinguru batean pentsaezina zen gertutasun puntu horretara iritsitakoan, pisu handia du hura galtzeko beldurrak, inork ez du hartu nahi erantzukizun hori bere gain. Harremanen dimentsioaren zaintza nagusitzen da, batzen gaituen lotura ukiezina babestea. Orain arte, desadostasun, oinaze, bazterketa eta eraso gisa bizi izan baita gatazka edo «bestearekin» gai jakin batzuei buruz izandako solasaldiak. Hala ere, hain justu lotura horrek, lortutakoa zaindu eta babesteko premia partekatu horrek, ahalbidetzen du gatazkari eta desadostasunei modu zintzoago, arduratsuago eta sakonago batean heltzea. Taldeak, jakin gabe, badu nahikoa muskulu elkarrizketa horiei aurre egiteko prozesuan pausoak emateko.

Prozesuek aurrera egiten duten heinean, proban jartzen da hartutako konpromisoarekiko koherentzia. Bizipen oso intimo eta batzuetan inoiz partekatu gabeen ezagutzak –batez ere, herritarren espazioetan– konplizitate eta lotura hautemanezin batzuk sortzen laguntzen du, taldea trinkotzen dutenak. Era berean, espazio politikoetan adostutako urrats bakoitzak norberaren mugak erakustera darama, eta, ezarritako helburuekiko koherentziagatik, beti errazak ez diren urrats batzuk

egitera. Baina alde guztiek zerbait uko egin behar izan diotela sentitzen den heinean eta nolabaiteko elkarrekikotasuna sumatzen den heinean, onuragarria da taldearen kohesiorako. Boterea partekatzea zer den sentitzen da.

Espazio bat segurutzat hartzen denean, zaurgarritasuna azaleratzen da. Taldekideek taldeari barru-barruko kontuak azaltzeko adina konfiantza lortu dutenean. Opari bat eta erantzukizun bat da. Entzundakoa zaintzeko eta gordetzeko ardura, ez baita nirea.

Talde politikoezikiko konfiantza krisi handienaren arrazoietakoa bat konfidentzialtasunaren konpromisoa haustea da. Agerian geratzeari, erabilkeriari edo erasoari beldurra pizten du. Espazioa arriskutsutzat hartzen da, eta denak galtzen du zentzua, bai lortutakoak, bai prozesuaren etorkizunak. Konfidentzialtasun horren hausturak esperientziari zentzua ematen dion beste elementuetako bat ere apurtzen du: beste testuinguru batzuetan ez bezala, gune horretan boterea partekatzen dela. Beraz, taldeari traizio gisa bizi da eta haserrearekin, amorruekin, ezintasunarekin eta desengainuarekin lotzen da.

Taldeetan horrelako egoerak gertatzen direnean, eta eskuarki elkarrizketa politikoetan gertatzen da maizago, taldea benetan jabetzen da zein ederra zen irabazitako konfiantza, zer lotura sortu diren. Hura galtzearen inpaktuak agerian uzten du zein garrantzitsuan zen, bizitzako edozein galeratan gerta bezala.

3.5 Zaintzea

Zaintza elkarrizketaren geruza eta fase guztietan presente dagoen ikuspegi bat da, baita bideratzailearen begiradan ere. Talde prozesua, komunikazioa eta harremanen dimentsioa irakurtzean nahiz zereginari ekitean, kontuan hartzen da zaintza. Baina, puntu honetan, denboren eta esperientziaren zaintza aipatu nahi dugu bereziki, zuzeneko lotura baitute lehen aipatutako harremanen dimentsioarekin eta konfiantzarekin.

Denborak zaintzea. Prozesuak denboren kontzientzia hartzea eskatzen du, ez mugatzaile, premiagarri edo baldintzatzaile gisa, baizik eta zaintzaren eta koherentziaren ikuspegitik. Prozesu izaera tarteko, iraupen luzea izaten dute elkarrizketa guneek, eta horrek eragina du kideek hasiera batean hartutako konpromisoan. Pertsonak zaintzea denborak zaintzea da, iraupen epe batzuk finkatu eta horiek berrikusteko mekanismoak ezartzea. Horrek nolabaiteko kontrol sentsazioa dakar, eta jarraitutasunari zentzua emateko nahikoa segurtasun ematen du horrek. Era berean, eta batez ere gune politikoetan, laneko agendako gaiak egutegian jartzea eta betetzen diren berrikustea ere zaintzaren erakusgarri da. Jardunbide lagungarria da konturatzeko agendako zer gairen lana ari den atzeratzen, dela denbora materialik ez dagoelako, dela gai batzuek erresistentzia jakin batzuk sortzen dituztelako, bereziki gatazkatsu edo deserosoak izanik. Agenda konplitzen den aztertzeak esan nahi du zintzotasunez onartzea unean-unean zer landu dezakegun eta zer ez. Garrantzi handiagoa hartzen du, baldin eta gai batzuk atzeratzeak, datarik gabe alde batera uzteak, prozesuak fruiturik ematen ez duela sentiarazten badie prozesuarekin konprometitzeko orduan gai horiek garrantzitsutzat zituzten pertsonen. Hori gertatzen denean, erraza da taldearen elkarrekikotasun mailari buruzko autoebaluazio prozesu batean sartzea, aztertzea ea taldekide bakoitzaren beharrekin konektatzen duen hori lantzeko konpromisoa hartu den ala ez, eta, beraz, norberarenaz nahiz besterenaz arduratzekoa, agenda hori lan esparru partekatuaren barruan adostu zen neurrian.

Gai batzuek luze jotzen dutela ikusteak mesfidantza sortzen du, eta prozesuaren zentzua bera ere zalantzan jartzeko arriskua dago, eraginkorra eta erabilgarria izateari uzten baitio, eta gailentzen den sentsazioa da norberaren ekintzarako gaitasuna edo boterea txikiagoa dela beste kide batzuen aldean, haien gaiak bai lantzen ari badira.

Esperientzia zaintzeak konfiantza zaintzea esan nahi du neurri handi batean. Prozesuetan nekez pentsa daiteke urrats bakoitza azkena izango dela; aitzitik, prozesu izaerak urrats bakoitza beste baten

aurrekotzat jotzera darama. Ikuspegi horretatik, urrats bat prestatzean, horretan ez ezik, hurrengoan ere zentratu behar da. Espazio politikoetan batik bat, gai bat lantzen denean edo ekitaldi bat prestatzen denean, ez da epe laburrera pentsatu behar horrenbeste, epe ertainera baizik. Izan ere, prozesuaren testuinguruak eta baldintzek ahalbidetutako adostasunak lortzen dira une bakoitzean. Horrela, koherentziagatik eta eraginkortasunagatik, urrats bakoitzak hurrengo urratsa ahalbidetzeko baldintzak sortzen lagundu behar du. Espazio politikoetan batez ere, esperientzia zaintzeak, batzuetan, esan nahi du arreta eman behar zaiela elkarrizketa guneko kideen artean beste esparru batzuetan sortutako ondoezi ere. Batzuetan, udalean bizi izandako gatazka egoerek edo udalerriko bizitza politikoaren oihartzunek oso eragin kaltegarria daukate mahaikideengan. Konfiantzei edo elkarrizketa gunearen zentzuari berari eragiteko adina inpaktu duenean, egoera horiek leku bat dute taldean. Mahaikideek hala adostuta, behar den denbora ematen zaio gertatutakoa argitzeari.

«Lan esparru partekatu» guztietan «zailtasunak kudeatzeko» deritzogun mekanismoak jasotzen dira. Taldearen bizitzan zehar eboluzionatzen eta baliozkotzen doaz mekanismo horiek, prozesuaren zerbitzura dagoen elementu garrantzitsutzat hartzen diren neurrian.

Mekanismo horietako batzuk zirkulu leheneratzaileen metodologian inspiratuta sortu dira. Hona hemen mekanismo horiek osatzen dituzten urratsen deskribapen labur bat:

- Gertaerak. Saio horietan zertaz hitz egin nahi dugun zedarritzen hasten gara, gertaeren deskribapenean zehaztasuna eta objektibotasuna bilatuz.
- Gertatutakoaren inpaktuak eta autoerantzukizuna. Elkarrizketan, gertatutakoak zer sentimendu sortzen dituen adierazten da. Azalpenaren helburua ez da une bakoitzean hartutako erabakien atzean dauden arrazoiak zuritzea, baizik eta horiek ulertzea, eta elkarri entzunez nor berearen ardura hartzeko baldintzak sortzen dira.

- Irtenbidea. Amaitzeko, adierazten da zer eman dezakeen pertsona bakoitzak aurrera egiteko, guztiontzat eta prozesuarentzat baliagarria den modu batean.

Elkarrizketa horiek emozioen, beharren eta erantzukizunaren lengoaia hitz egitea eskatzen dute. Gainera, aukera ematen dute kaltetutako harremanak eta gure solaskideekiko nahiz prozesuarekiko konfiantzak leheneratu eta zaintzeko.

3.6. Erabakiak hartzeko prozesua. Adostasuna

Elkarrizketa prozesu osoan, adostasunez hartzen dira erabakiak eta egiten da aurrera. Ongi jakinik hainbat hurbilketa ideologiko eta akademiko daudela termino horretara, «denei leku bat emateko bidetzat» ulertutako adostasuna hartuko dugu hemen ardatz⁴⁵. Horrek zer esan nahi duen hobeto azaldu aurretik, argitu behar dugu zein den onartzen ez dugun adiera: hain justu, adostasuna pentsamendu bakartzat, homogeneizaziotzat, desadostasun eta desberdintasunen bazterketatzat eta irakurketa bakartzat duena. Adostasun mota hori bortitz gerta daiteke, eta aurrera egiten lagundu baino gehiago, zauri eta laidu berriak sor ditzake, elkarrizketak gure gatazkei aurre egiteko ahalmenik duen zalantzan jarri, eta polarizazioa eta bazterketa elikatzen duten estereotipoak berretsiko dituztenak.

45. Komatxo artekoa Enrique Saracho irakasleak Ediren kooperatiban emandako «Formación en Psicodrama y técnicas grupales» prestakuntzatik atera da. Ez da eskuliburu honetako ideia bat jatorriz, baina prozesu horietan adostasuna lantzeko eta ulertzeko modua kontzeptualizatzen du. Horregatik, hartu eta modu pertsonalean interpretatu da.

Adostasuna denei leku bat emateko bidetzat onartzeak «dibertsitatea onartzea» dakar, eta prozesu batez hitz egiten digu. Beraz, taldean erabakiak adostasunez hartzeko garaian, hori ez da une bat izaten, baizik eta elkarrizketa prozesuaren fase bat, bere denbora eta prozedurak dituen. Esan nahi du «ziurtzat jotzen dugun horri buruzko galderak egitea geure buruari»; hau da, zalantzan jartzen du erantzun posible bakarraren ideia, eta arrazoiaren jabe izateak ematen digun boterezko lekuari uko egitea dakar. Bestalde, «begien bistakoa dena problematizatzea eta begien bistakoa dena interpretatzeko askatasuna ematea» ere eskatzen du. Hau da, zalantzan jartzea ziur dakizkigunak, segurtasuna ematen digun hori, eta erantzun berriak bilatzeari irekitzea, irudimentsuak izatea eta erantzun berriak sortzeko gai garela sinestea. Adostasunak ulertzeko modu horrek esan nahi du gure zaugarritasuna erakutsi behar dugula, kontrol osoari uko egin eta «bestearen» beharra onartu behar dugula, hura ulertu eta zaintzearena. Hartara, elkarrizketa prozesu horien berezko elkarrekikotasunetik, eskatzen duguna eskaintzera eramaten gaitu.

Adostasunak, horrela ulertuta, zintzotasun eta entzute ariketa sakona inplementatzea dakar. Entzute sakona ulertzeko, zalantzan jartzen dituelako gure ziurtasunak eta erantzun posible bakarrak; «bestearen» mugak eta beharrak ulertzeko eta, hortik, irtenbide partekatua berriak bilatzeko.

Nahiz eta taldeak etengabe ari diren erabakiak hartzen prozesuan aurrera egin ahal izateko, bi une argi eta garbi garrantzitsuak daude, sor ditzaketen tentsioengatik: espazioa eraikitze fasea –lan esparru partekatua adosten denean–, eta ixte fasea edo emaitzaren edo ekimen publikoren bat aurkeztekoa. Une horietan ohikoa da «krisi» edo «blokeo» gisa identifikatzen ditugun egoerak bizitzea, baina orobat har litezke gertu den mugimenduak sortutako tentsio edo erresistentzia egoera naturalizat. Izan ere, erabakiak adostasunez hartzeko fase horrek mugimendua dakar, gure segurtasun eta erosotasun gunearen galera, eta geure burua jendaurrean agerian jarri behar dugula gehitzen badiogu, arrisku

sentsazioa areagotu egiten da. Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da adostasunetara iristeko eta sortzen diren kezkak ulertzeko behar diren denborak zaintzea. Kasu horietan, eta aipatu dugun bezala, zereginari zentzua emateko lagungarria da partekatutako helburuak eta hartutako konpromisoak berreskuratzea, eta lortutako adostasunei koherentzia ematen die.

Erabakiak hartzeko dinamika hori, ordea, nagusi den gehiengo eta gutxiengoaren jokoaren kontra doa, errealitate horrek «betoaren» arriskua saihesten baitu, adostasunak bilatzeko dinamikaren berezkitzat dugun zerbait. «Betoaren» ideia etengabeko itzal bat da, botere desoreka bat adierazten digu, eta bortitza da taldeak ekintzarako gaitasun partekatua izateari uzten diolako. Elkarrizketa esperientzia guztietan, adostasunaren ideiak sortzen dituen ezintasunei eta mugei aurre egin behar izan diegu, baita prozesu mota horrek dakarren nekeari ere. Betoari aurre egiteak esan nahi du elkarrizketarekiko konpromisoa berreskuratu behar dela, gure arteko desadostasunen konponbide gisa, eta prozesuari dagokionez zintzotasuna eta erantzukizun partekatua eskatu behar dela.

Pauso adostuak emateak ez du esan nahi denok dena berdin egin behar dugunik, baizik eta egingo duguna elkarrekin egitea, eta denei leku bat emanez. Batzuetan, zentzu handiagoa du taldeko kideren batek protagonismo handiagoa hartzeak, esate baterako, biktimak aitortzeko ekitaldietan, non alkatearen parte hartzeak mezu esanguratsua adierazten duen berez. Beraz, adostasuna ez da berdin pentsatzea, arrazoa ematea, limurtzea edo dibertsitatea ukatzea. Horregatik, ahalegin handia eskatzen du erabakiak hartzeko modu horrek, elkarrizketa prozesuen beste fase bat baino ez izan arren.

Hein handi batean, adostasunak lortzeko prozesuak babesten ditu hartutako akordioak, zeren, ekintza gaitasuna guztiona den heinean, guztiona baita hura zaintzearen ardura ere. Normalean, ordezkari politikoen artean emandako pausoak adostasunez ematen direnez, askoz ere eragin handiagoa izaten dute herritarrengan. Izan ere, xehetasunak jakin gabe ere, udalerriko auzotarrek badakite zein zailtasuni aurre

egin behar izan dieten horietara iristeko. Horrek atzera elikatzen du taldea, elkarrekin egin dezaketaren garrantziaz jabeazten du, eta kideekiko nahiz elkarrizketa prozesuarekiko konfiantza berreskuratzen laguntzen du.

Adibide batzuk

1. Elkarrizketa politiko batean biktima bati aitorpena egiteko ekintza bat antolatzea erabakitzen denean, indar politiko guztiek aitorpen hori nola egin behar den adostea esanahi gehigarria ematen dio ekitaldiari. Ekitaldia «bestearenganako» hurbilketaren adibide gisa bizitzen da, bizikidetzaren adibide gisa; izan ere, aitorpen zabal bat dakar, batzuetan falta izan dena. Gerta daiteke ezarritako helburua lortzeko ezinbestekoa den gai bat alderdietako baten ikuspegiaren kontrakoa izatea erabat. Aukera batean, espazio publikoan elementu sinboliko bat jartzea ezinbesteko baldintza zen erreparazioarako. Hala ere, taldekide batzuen ustez, beren irizpidearen edo ikuspegiaren aurka joatea esan nahi zuen erabaki horri heltzeak. Azkenik, helburu partekatua lortzeak –hots, biktimen erreparazioak– eskatzen zuen zintzotasuna nagusitu zen, eta erabakiari aurka ez egitea adostu zen. Baina argi utzi zuten izandako eztabaida ere; ez zuten ezkutatu izandako elkarrizketaren errealitatea, alegia, desadostasuna agerian uzten zuena.

2. Herritarren talde bat ixte fasean dagoenean eta taldearen ondorioak adosteko lanari ekiten dionean, momenturen batean taldekideek ondorio batzuk jaso behar dituzte «folio» batean. Normalean, iraganaren irakurketa kritiko partekatu bati erantzuten diote. Talde batek egiaztatu ahal izan zuen haien artean oso zabala zela begirada kritiko horri buruzko adostasuna, baina kideetako batek ezin zuela dokumentu osoa sinatu, ez baitzen esplizituki jasotzen berarentzat «funtsezkoa» zen elementu bat. Puntu horretan, eta dokumentua taldekide guztiek sinatu ahal izateko formula bat bilatu ondoren, bakarra izan zen posible: adostasun dokumentuan taldekide horren desadostasuna jasotzea, izenik gabe. Taldea orduan zegoen puntuari buruzko adostasuna jaso nahi izan zen,

zintzoki, ezkutatu eta baztertu gabe, guztiei leku bat emanaz. Horrela bakarrik onartu ahal izan zen dokumentua taldearen dokumentu gisa.

3. Beste behin, itxiera fasean ere, beste talde batean ondorioen fasean ez parte hartzea erabaki zuen norbaitek, azken emaitzarekin pozik egongo ez zen beldur, eta taldeak onartu egin zuen. Fase horri aurre egitean, kide horren nahiak edo beharrak ez ziren kanpoan geratu; aitzitik, kontuan hartu ziren, dagoeneko prozesuaren parte zirelako. Elkarrekin ibilitako bideak nolabaiteko elkar ezagutza eta «bestearentzat» garrantzitsua denarekiko konpromiso maila bat ematen du, eta, akordioari ekiteko orduan, ez zuen zeinek berea soilik ekarri: besteek behar zutena ere hartu zuten kontuan. Prozesuaren amaieran berriz sartu zen kide hori, bera ere taldearen eta prozesuaren parte sentitzen zelako. Hau da, fase horretan parte ez hartzeak ez zuen baliorik gabe utzi haren partaidetza; kontrara, taldekide izaten jarraitu zuen, taldeak horrela parte hartzeko aukera eman ziolako. Horrek bi ideiarekin lotzen gaitu: batetik, prozesu horietan parte hartzearen borondatezkotasuna, eta, bestetik, taldeak ez digula inoiz eskatzen eman dezakeguna baino gehiago. Hortik, esperientzia zaindu dugu, etorkizuneko urrats eta mugimenduetarako baldintzak sortuz.

4. Espazio politiko batek memoria berreskuratzeko lan bati ekiten dionean, haren irizpide eta printzipio gidariak daude adostasunaren oinarrian. Funtsean, honako hauek izan dira: giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea, ekitatea eta inklusioa... Hortaz, giza eskubideen urraketan biktima guztiei eskubide berberak aitortzea dakartenez lan horiek, oso urrats esanguratsua da.

Horrek ez du esan nahi pertsona edo indar politiko bakoitzak bere gain hartzen duen dokumentuaren eduki guztia. Zailtasunak biktimei izenak jartzeko orduan iristen dira. Orduan, nahi gabe, gure ikusmiran jartzen dugu nor zen, zer ibilbide sozial edo politiko izan zuen, zer lotura zituen indarkeriarekin, eta zein hurbil senti dezakegun bakoitzak haren sufrimendua. Orduan sortzen dira deserosotasunak eta biktima guztiekin berdin-berdin enpatizatzeo zailtasunak. Hala ere, edukiak adostutako irizpideen arabera sailkatu eta ordenatu diren heinean, lan

mota horiek propirotzat sentitzen dira halaber, eta, hala, indar politiko guztiek defendatzen dituzte. Beraz, konplexutasun horrek balio handia ematen dio hartutako adostasunari. Gainera, balio sinboliko esanguratsua ematen dio, lan horiek, alde batetik, giza eskubideen urraketen biktima guztiei eskubide berberak aitortzea dakartenean, eta, bestetik, oinarri partekatutzat hartzen direnean biktimak aitortzeko ekitaldiak antolatzeko orduan, begirada partzialak eta baztertzailleak gainditzen dituztenez

3.7. Elkarrizketen ahalmen eraldatzailea

Esperientzia horiek zentzu berri bat ematen diote tokiko eremuari, aldaketarako gune bihurtzen dutelako, aldaketak goitik behera etorri behar dutelako pertzepzioa alderantzikatuz. Elkarrizketa prozesua gizarte eraldaketako laborategi bihurtzen da, gure inguruarekin maila sinboliko batetik erlazionatzeko gune. Taldekideek beren testuinguruko egoera eta gatazka erreal eta adierazgarriak ekartzen dituzte, eta baldintza egokiak izanez gero nola landuko lirakeen praktikatzen dute.

Mantentzen diren heinean, eta ibilbidea amaitzea erabaki dutenak alor publikora ateratzen diren heinean, prozesu horiek baliozkotzat ematen dituzte bai esperientzia bera, bizikidetzako ariketa zintzo gisa, bai elkarrizketa prozesu horiek ezaugarritzen dituzten elementuak ere. Esperientziari esker, erreferentzia berriak barneratu daitezke eta, haien bitartez, arazo eta gatazka errealei aurre egin. Integrazio horrek bestela sentitu, pentsatu eta jardutea ahalbidetzen du. Praxiaren bitartez, erantzun edo irtenbide posible bakarrak erakusten dizkigun imajinario sozial hegemonikoa zalantzan jartzeko aukera ematen du. «Bestearekin» beste modu batean erlazionatzen garenean harremanen egitura aldatzeko aukera ematen du. Sortzen dituen pitzadurek kolokan jartzen dute imajinario sozialean taxututako irtenbide bakar horien eraginkortasuna, ez soilik burutik, baita gorputzetik ere. Hala, lehen pertsonan bizitako praxitik abiatuta, teorizatu daiteke nola heldu bizikidetzari, askotariko

pertsonen arteko harremani eta gatazkei, beste modu batean, guztiontzat funtzionatuko duen modu sormen handiagoko, zintzoago, eraginkorrago eta baketsuago batean.

Norberaren autoestimua indartzen du, norberaren gaitasunak garatzen baitira, eta horrela beste rol, begirada, hitz egiteko eta entzuteko leku batzuk probatu daitezke. Ezezagunak, ziurgabetasunak, mugimenduek eta aldaketak ematen duten beldurrari aurre egiteko aukera ematen du.

Sistema, testuingurua eta errealitatea dinamikotzat ikusten uzten digu, mugimenduan dagoen zerbaiten gisan. Zintzotasunetik, estereotipoen zurruntasuna gainditzeko aukera ematen du, eta horrenbestez errealitatea ulertzeko erreferentzia izateari uzten diote. Hau da, karratua ikusteari utzi eta hexagonoa ikusten hasten gara, gizakiaren konplexutasun osoa. Konplexutasun hori abagunetzat ulertzen da, eta, aurrera egiteko eta akordioak lortzeko potentziala esperimendatzen den heinean, ez du jada ezintasun geldiarazlea sortzen.

Perspektibaz begiratuta, identifika dezakegu zer elementu lagundu duten elkarrizketa konplexu eta batzuetan gertagaitz horiek gertatu ahal izateko baldintzak sortzen. Era askotako pertsonen –batzuetan begirada eta bizipen guztiz kontrakoak dituztenak– arriskuak hartu ahal izateko, beren burua arriskatu gabe. Elementu horiek biltzeak aukera ematen digu erreferentzia esparru berriak zehazten hasteko. Hartara, iraganari, gatazkei eta «ezberdinen» arteko bizikidetzari heldu ahal izango diegu. Donostiako Herritarren Foroak, bere elkarrizketa prozesuaren metodologia sistematizatzen lehenak, «bizikidetzarako zutabe etiko» deitu zion erreferentzia esparru horri. Pixkanaka, elkarlanean, horizontalki eta adostasunez, bizikidetzaren eredu edo sistema bat eraikitzen ari gara. Eredu eraginkorrago bat, harremanak zaintzen dituen neurrian, eta indarkeria prebenitzen lagundu dezakeena, boterea partekatzea dakarren neurrian (hitzartutako ekintzarako gaitasuntzat ulerturik boterea).

Jarraian, arian-arian udalerrietako ibilbideen bidez zehazten doan erreferentzia esparru horren osagaiak bilduko ditugu. Elementu horiek

joera dute, taldekideen beren bitartez, beste espazio formal edo eguneroko batzuk gidatzen dituzten lan dinamikekin tentsioan sartzeko; izan ere, bestelako kode batzuk erabiltzen dituzte, batzuetan antagonikoak ere.

Erreferentzia esparru horren osagai hauetako bakoitza modu zabalagoan garatu da eskuliburuan zehar. Beraz, puntu honetan ez ditugu banan-banan definitu nahi, laburpen zerrenda gisa jaso baizik. Haietako bakoitzarekin batera elementu bat identifikatu dugu, erabakiak hartzeko edo eguneroko harremanetarako beste gune batzuen ezaugarri dena, edo zenbait pertzepzio, eskuarki haietako bakoitzarekin lotzen dena.

- **Inklusioa vs. bazterketa.** Inklusioak esan nahi du ikuspegi eta pertsona guztiei leku emango dieten baldintza batzuk lantzea. Batzuetan, sistemak edo botere talde batek finkatutako abiapuntuko baldintzek baztertzen dute alderdietako bat. Elkarrizketak ezin du abiapuntuko baldintza baztertzailerik izan.
- **Lankidetzeta vs. lehiaketeta.** Lankidetzan aritzeak esan nahi du «bestea» aintzat hartzea, aurrera egiteko modua bakarra delakoan: denok irabazle edo galtzaile garena. Lehiaketaren aldean, non, nik irabazi ahal izateko, zuk galdu egin behar duzun.
- **Zaintzea vs. denak balio du.** Elementu horrek lotura estua du aurrekoarekin. Elkarrekin aurrera egiten dugun heinean, «bestea» zaintzeak zentzua hartzen du. Lehiaketaren ikuspegian, norberaren helburuak lortu nahiak, batzuetan, denak balio duen eremu baterantz lerraraz gaitzake.
- **Giza duintasuna errespetatzea vs. instrumentalizazioa.** Indarkeria sufritu duten pertsonekin tratatzean batik bat, eta haiei duintasuna itzultzearen garrantziaz hitz egin arren batzuetan, erraza da pertsona horiek instrumentalizatzea. Arreta handiagoa jartzen dugu lortu nahi dugun asmoan, norberaren posizionamenduak indartzean, pertsona horiek benetan behar duten horretan baino.
- **Adostasuna vs. uniformetasuna.** Adostasuna berdin pentsatzea dela ulertu ohi da. Horrek asimilazioaren edo manipulazioaren beldurra

elikatzen du. Era berean, prozedura ez eraginkor eta arriskutsutzat hartzen da, desadostasunari beto ahalmena ematen zaio eta. Hala ere, egiaztatu ahal izan dugu adostasuna dibertsitatea onartzea izan daitekeela, guztiei leku bat ematea. Eta zintzotasunetik eta elkarrekiko loturatik posible dela.

- **Ulermena vs. arrazoia ematea.** Eskuarki, «bestea» ulertzea, haren bizipenak eta ikuspegiak ulertzea, justifikatzearekin, arrazoia ematearekin edo norberaren nortasunari uko egitearekin nahasten da. Beraz, ahulezia elementutzat edo elementu arriskutsutzat hartzen da ulermena, berez indarraren adierazle denean: errazena ulertu nahi ez izatea da.
- **Borondatezkotasuna/askatasuna vs. inposizioa/betebeharra.** «Gizakiak aukeratzeko askatasunetik ematen du»⁴⁶. Beraz, beste norbaitek guri behar duguna emateko modurik eragingabeena da exijentzia edo inposizioa.
- **Erantzunkidetasuna vs. erantzukizunak lausotzea.** Hori da, beharbada, elementu eztabaidatuenetako bat. Prozesuaren eta espazioaren gaineko erantzukizuna partekatua den heinean, horiek zaintzearen eta helburuak lortzearen erantzunkide dira parte hartzaileak. Horrek ez du esan nahi batzuetan ez denik bereizten egoera edo gertaera jakin batzuen gaineko erantzukizun mailarik, parte hartzaile bakoitzaren inplikazio maila kontuan hartuta.
- **Boterea partekatzea vs. indarra erabiltzea.** Ekintzarako ahalmen partekatutzat hartzen badugu boterea, ahalmen hori mugatzen denean, dela betoa erabiliz, dela elkarrizketa ukatuz, egoera bortitz bat sortzen da. Egoera horrek, indarra erabiltzen duena indarrezko posizio batean jarri beharrean, mesfidantza elikatzen du eta prozesuari kalte nabarmena egiten dioten zauriak sortzen ditu.
- **Komunikazioa/gardentasuna vs. ezkutatzea, gaizki ulertuak.** Elkarrizketak ahalbidetzen duen zentzu fluxua bermatzeko, komunikazio zehatzena bilatu behar da, begi bistakoa dena ere esplizitu egin behar da, eta

46. Pilar de la Torre Institutu de Comunicación No Violenta erakundearen webgunean partekatutako «Para tu práctica CNV» gogoetetatik hartutako aipua.

zenbateraino elkar ulertzen ari garen egiaztatu. Informazioa ezkutatzea edo zerbait gauza jakina dela auresuposatzea, elkarrizketa galarazteko, boterea desorekatzeko eta konfiantzak hausteko modurik errazena izan liteke.

- **Koherentzia vs. oportunismoa, konpentsazioa.** Egindako urratsen zentzua neurtzeko, kontuan hartzen dena da zenbateraino datozen bat, bai ezarritako helburuekin, bai egiteko moduarekin. Urrats horiek ez badatoz bat orain arte egindako bidearekin, oportunismoaren edo konpentsazioaren ondorio direla pentsa liteke. Hau da, batez ere interes pertsonalei edo koiunturazkoei erantzuten dietela.

- **Elkarrekikotasuna vs. asimilazioa, mendetasuna.** Elkarrekikotasuna bai emateko bai uko egiteko orduan. Gainerako parte hartzaileek baino gehiago ematen edo uko egiten ari garela nabaritzeak asimilazioaren eta mendetasunaren beldurra elikatzen du. Elkarrizketa prozesuari balioa eta zentzua ematen dion botere partekatuaren sentsazioa desorekatzen da.

4. Prozesuen faseak

Herritarren espazioetan zein espazio politikoetan garatzen diren elkarrizketa prozesuek hainbat fase dituzte. Fase bakoitzak bere helburuak, zereginak eta prozedurak ditu, eta berariazko zaintza behar du. Baina guztiek batera elkarrizketa prozesua osatzen dute, ikaskuntza hauen oinarritzat hartu ditugun esperientzien bereizgarria; izan ere, gure ustez, berau abian jartzeko aukera aztertzen hasten den unean bertan jartzen da martxan prozesua.

Fase horiek modu kronologikoan antolatu dira, eta horrek pentsaraz lezake linealak direla deskribatutako elkarrizketa prozesuak, eta faseak ordenatuta eta elkarren segidan garatzen direla. Haatik, prozesuzko izaera dutenez, modu zirkularrean garatzen dira elkarrizketak, eta hortaz, batzuetan, baliteke fase batzuk elkarri gainjartzea, jada igarotako fase bat berrikustea –baina beste leku batetik– edo bi fase modu paraleloan garatzea. Hori talde bakoitzaren premiek erabakitzen dute beti, haiek definitzen baitute zer momentutan dagoen prozesua. Beraz, faseei buruz hitz egitean, talde prozesuaren «momentuaz» ari garela ulertzen dugu. Momentu bakoitzak ezaugarri jakin batzuk ditu, eta prozesuaren bidelagun egokiagoak izaten lagunduko digute, funtsean, helburuak eta denborak doituz.

Gaur-gaurkoz identifikatu eta zentzuz hornitu ahal izan ditugun faseez ari gara. Elkarrizketa prozesuek aurrera jarraitu ahal, eta testuingurua aldatzen doan heinean, ziurrenik osatu egingo dira ikaskuntza horiek, baita etorkizuneko lanetan berregituratu ere. Azkenik, aipatu behar da itxieraren eta proiektuaren faseak herritarren elkarrizketa prozesuei dagozkiela zehazki; izan ere, sistematizazioa egitean kontuan hartu ditugun elkarrizketa politiko nagusiek martxan jarraitzen dute oraindik.

4.1. Prestatze fasea⁴⁷

Taldekideen arteko elkarrizketa gertatu aurreko fase hau garatu nahi den prozesuarekin lotuta dago, halaber. Elkarrizketa gune bat sortzeko aukeraz hitz egiten hasten denetik, mugimenduak hasten dira, prozesua jada hasia dela ulertzen da. Beraz, prozesu horien ezaugarri diren elementu batzuk bete behar ditu fase honek ere: denborak zaintzea, lankidetzeta eta adostasuna. Fase honetan, «elkarrizketari buruzko elkarrizketak»⁴⁸ deritzona gertatzen da, eta hasiera-hasieratik oso garrantzitsua da tartean diren alderdi guztiek sentitzea sortutako espazioan denek partekatzen dituztela boterea eta erantzukizuna.

Kasu askotan, abiarazitako prozesuak zer esan nahi duen neurtu behar da horretarako. Elkarrizketa horietan parte hartu behar dute ekarpena egin dezaketenek, dela pluraltasun nahikoa bermatzeari begira, dela deituak edo gonbidatuak izateko konfiantza sortzen dutelako; eta gune horiek legitimatuko dituztenek (espazio politikoaren kasuan, batez ere), prozesuaren une jakin batzuetan aliatu izan daitezkeenek, zertaz doan ulertzen dutelako.

Taldea osatzeko fase honetan, garrantzitsua da parte hartzaileei deialdiaren zergatia azaltzeko behar den denbora hartzea eta ekimenak sortutako zalantzak edo kezak argitzea, halakorik sortu bada.

Talde politikoaren kasuan, batzuetan talde politiko bakoitzarekin bilerak egin behar dira erakunde nahiz udal mailan, esperientziaren ezaugarriak ulertzeko, hau da, zer eska diezaiekeen, eta ager litezkeen

47. John Paul Lederachek, elkarrizketari buruz hitz egitean, honako hau dio: «prestalan bat egin behar da: elkarrizketaren baldintzak prestatzeko denbora eta espazioa bilatu behar dira, halako moldez non errazagoa izango den elkarrizketa, arrakala sozial sakonen erdian eratutako giza konexio gisa».

48. Ideia hori Elkarri-k, elkarrizketaren eta akordioaren aldeko gizarte mugimenduak, 2001ean sustatutako II. Bake Konferentzian inplementatu zen.

erresistentziak eta kezka argitzeko. Bilera horiek, beraz, parte hartzeko borondatea argitzeko ez ezik, baliagarriak dira zenbait alderdi baliozkotzeko, hala nola abiarazitako esperientzia, parte hartzaileak (haiengan konfiantza jartzen baita) eta bideratzailea. Testuinguru horretan, norbait baliozkotzeak edo konfiantza harengan jartzeak esan nahi du baliozko solaskidetzat hartzen dela. Gainera, alderdi politiko bakoitzeko parte hartzaile kopurua zehazteko baliatu ohi dira.

4.2. Esperientziara hurbiltzeko eta espazioa eraikitze fasea

Esperientziara hurbiltzeak beti dakar ezagutzen ez dugun zerbaitea agertzea, eta horrek kezka handi samarra eta hasierako zenbait larritasun sortzen ditu. Udalak nahiz beste herritar batzuek egin badiete parte hartzeko deia taldekideei, «zerbaitegatik deituko ninduten» sentiarazten da, «ekarpenen bat egin dezakedala uste dutelako-edo», eta hortik ere sentitzen da haiengan konfiantza eta erantzukizuna jarri dela. Erantzukizun horren adierazgarri, konturatzen gara garrantzitsua baina aldi berean korapilatsua izan daitekeen zerbaitean ari garela murgiltzen, ahalegin eta inplikazio maila pertsonal bat eskatuko duen ariketa batean.

Gertatutakoa eta haren ondorioak lantzeko espazio bat eskaintzen dugu, guztia ere, abiapuntuko beharrak kontuan hartuz eta zainduz: segurtasuna, errespetua, ulermena, aitorpena. Hori egiteko moduz hitz egitean, abiapuntua da gauza seguru bakarra: nondik eta zergatik ekiten diogun esperientzia horri. Azken emaitza, ordea, zalantzarria da, eta horrela esplizitatzen da hasiera batean. Horrek esan nahi du onartu behar dela haren gaineko kontrola galtzea. Zalantzazko egoera horretan, garrantzitsua da segurtasun baldintza batzuk sortzea, konpromiso hori hartzeko erabakia erraztuko duten ziurtasun batzuk azaltzea.

Beraz, prozesu ororen lehen urratsak «konfiantzazko espazio seguru» bat eraikitzea bideratuta daude. «Lan esparru partekatua» deitu

dugun horretan islatzen da hori. Esparruak taldearen lehen adostasunak biltzen ditu; azken batean, botere eta erantzukizun sistema partekatua definitzea dakar.

4.3. Prozesuaren garapen fasea

Behin espazioa eraikita, martxan jartzen da talde prozesua. Hirugarren puntuan garatu dugun bezala, espiralean mugitzen joango da prozesu hori, alderdi tematikoa eta dinamikoa konbinatuz, aurreranzko eta atzeranzko mugimenduen segida batean.

Fase honetan, gatazkari modu seguruan heltzeko gutxieneko baldintzak adostu ondoren, aurrean dituen elkarrizketa korapilatsuei ekiten die taldeak, desadostasunak agertu ahal izatea legezkatzen da eta, hortik, zertan bat datozen edo zertan ez identifikatzen da.

Puntu horretan, **herritar talde** gehienek, hasiera batean, taldekide bakoitzak bititako guztiari leku bat ematen diote. Indarkeria eta inkomunikazio urte luzeek «bestearen» errealitatea ez ikustea, ukatzea edo arbuiatzea ekarri dutela kontuan hartuta, sortutako espazioak aukera ematen du oztopo horiek hautsi eta «bestearekin» elkartzeko.

Azken urteotan hainbat teknika erabili ditugu hurbiltzeko, baina norberaren bizi biografiak azaltzean daude oinarrituta guztiak. Biografia horiek azaltzeko orduan, modu jakin batean azalduko ditugula adosten dugu: parte hartzaile bakoitzari hitz egiteko denbora bera ematea, ez moztea, «ni»tik itzultzea, ulertzeko galdetzea.

Elkartzeko esparru seguruak aukera ematen du irekitzeko eta esperientzia eta bizipen ezezagunak entzuteko, estereotipoak hausteko eta adierazitako sentimendu eta beharretan leku komunak aurkitzeko. Bizipenen fase honek ahalmen eraldatzaile handia du, ez baitu eskatzen norberarenari uko egitea, ezta arrazoia ematea ere: «besteari» abegi egitea baino ez du eskatzen. Eta, hortik, lotura sakonak sortzen dira, ikusezinak izanagatik ere, hein handi batean talde identitatea eraikitzen

dutenak. Taldea espazio seguru gisa baliozkotzen laguntzen du horrek, zaurgarritasun handiko uneetan kide bakoitzari eutsi, abegi egin eta hura zaintzeko gai izan den neurrian.

Horrek ez du esan nahi fase hau une deseroso edo mingarririk gabea denik, mingarria eta onartzeko zaila baita gertaera berari buruzko bizipen eta posizionamendu hain desberdin eta batzuetan kontrajarriak entzutea, errespetuz eta arretaz bada ere. Edo iraingarri gerta daiteke norberarentzat erabakigarriak izan diren egoera batzuek inolako tokirik ez hartzea beste norbaiten bizitzan.

Norberaren biografiak azaltzeko ariketa horiek lagungarriak dira sakonki ezagutzeko elkar. Hortik, taldekideek badakite zenbateraino parteka dezaketen, zerk ematen duen mina entzutean, zer eska daitekeen eta zer ez. Hau da, nondik hitz egiten eta entzuten duen bakoitzak, eta horrela sakonagoa eta zintzoagoa da elkarrizketa. Eta, hortik, zer partekatzen dugun eta zer partekatzen ez dugun ikusteko eta horrekin zer egiten den adosteko fase batean sartzen gara. Fase horretan, kezka berriak pizten dira. Beste batzuetan, ongi jakinik ezen gertatutakoari buruzko dialektika batean sartzeak urrundu egingo gaituela, nahiago izaten da batzen gaituen guztiari balioa ematea eta esperientzia amaitutzat ematea.

Espazio politikoen kasuan, garapen faseak taldearen laneko agendari ekitea dakar. Jorratu beharreko gai bakoitza lehenestea, planifikatzea eta egutegian jartzea. Normalean, eta esperientzia zaintze aldera, epe batzuk ezartzen dira helburu partekatuak eta planifikatutako zereginen garapen maila berrikusteko. Ikasturtearekin bat etorri ohi dira epe horiek.

Batzuetan, gaurkotasuneko gaiak sartzen dira taldearen laneko agendan (eskaera edo mozio gisa), eta landu beharreko erronka bat izaten da gai puntual horiek adostutako agendarekin bateratzea, agenda horrek ematen baitio zentzua espazioari.

Adostutako gaiak lantzearekin batera, batzuetan saio monografikoak egiten dira gai edo gatazka bat lantzeko, baldin eta eragin nabarmena badu taldekideen konfiantzetan eta espazioaren zentzuan.

Ikasturte bakoitzaren barruan, litekeena da batez bestean biktimentzako edo memoriarako ekitaldi bat, herritarrentzako ekitaldi publiko dibulgatzaile edo pedagogiko bat eta adierazpen instituzional bat antolatzea espazio batek, egutegiko egun adierazgarriak aprobetxatuz. Era berean, espazio gehienek beste lan diskretuago batzuk egiten dituzte; adibidez, gizarte eragileekin edo biktimekin bilerak edo elkarrizketak. Horrez gain, ekitaldi eta ekimen publikoak prestatzen dituzte, eta beren denborak eta prozedurak behar izaten dituzte halakoek ere.

Hasiera batean, fase honetan daude eskuliburu hau egiteko oinarritzat hartu ditugun espazio politiko guztiak. Udalerriek 2012-2018 aldian hasi zituzten beren elkarrizketa prozesuak, eta, legegaldiko aldaketak gorabehera, jarraitu egin dituzte.

4.4. Ixte fasea

Lehenik eta behin, bereizi egin behar dira fase hau eta orain arte «krisi» edo «blokeo» izendatu ditugun egoeren ondoriozko geldialditzat har ditzakegunak. Talde prozesuaren puntuan (3.2.1. puntuan) garatu dugun bezala, elkarrizketa espiralaren barruan gertatzen diren atzeranzko mugimendutzat hartu ditugu egoera horiek eta, beraz, prozesuaren garapen fasearen barruan sartzen dira.

Era berean, komeni da bereiztea fase hau eta nagusiki espazio politikoek hauteskunde ondoz bizi dituzten geldialdiak. Horiek trantsizio fasetzat hartzen ditugu, prozesuak berriz hasten direnez. Errealitate horrek, batzuetan, espazioen osaera aldatzen du, eta, normalean, berriro kokatu behar izaten da elkarrizketa prozesua: lan esparru partekatua berreskuratzea, helburuak eta agendak berregokitzea. Baina zeregin hori garapen fasearen barruan kokatuko litzateke. Beraz, puntu honetan, beren ibilbideari amaiera emateko erabakia hartzen duten taldeek –batez ere herritarrenak– aurre egin beharreko faseari erreparatuko diogu.

Taldeak modu kontzientean sartzen dira fase honetan, gogoeta prozesu baten ondoren eta hala adostuta. Herritarren espazioen sorrerako helburuetako bat da ekarpen esanguratsua egitea beren udalerriko bizikidetzari. Herritarren espazio bakoitzak bere modu eta uneak aukeratu ditu helburu hori betetzeko, baina urrats horrek beti ekarri du arlo publikora jauzi egitea, udalerrian nolabaiteko erreferentzialtasuna hartzea. Batzuek elkarrizketaren garapen fasean egiten dute hala, eta beste batzuek ez dute prozesua itxi arte ematen pauso hori.

Bi dira talde bat bere ibilbidea bukatutzat ematera eramaten duten arrazoi nagusiak: bata, barne hausnarketaren agenda (prozesuan zehar eraikitako konfiantzei esker diskretuki landu diren gaiak) amaitzea, eta, bestea, ohartzea ezin dutela adostu helbururik, esperientzia ixteaz beste. Beraz, une horretan taldeari zentzua ematen dion horren ariketa zintzoa da.

Erabaki hori hartzen duten herritar gune gehienak hasieratik epe batzuk markatuta zituzten taldeak dira. Epe horiek, jakina, luzatuz joan dira, baina beti adostasunez eta espazioko kideentzat zentzua baldin bazuen.

Partekatutako azken helburu horri heltzeak, beraz, prozesua ixteko faseari hasiera ematen dio. Agenda propioa izan arren, laneko esparru partekatu berari jarraituko dio fase honek ere, baina bereziki erreparatuko zaie zaintzari, zintzotasunari eta adostasunari.

Hortik, berriro adostu behar da zer eta nola egin. Fase honetan, neke eta kezka sentsazioa nagusitu ohi da, giro malenkoniatsua bizi du taldeak. Giro horretan, itxierako deritzegun antsietate batzuk sortzen dira, eta garrantzitsua da horiek detektatzea eta onartzea. Antsietate horietako batzuk azaleratzen dira: egindako guztia denbora galtzea izan delako ustea, errua gehiago eman edo lortu ez izanagatik, pena/agurra eta orobat amaitzeko gogoia, egindako guztiaz poztea edo hari balioa kentzea, «ez du ezertarako balio izan». Horri gehitu behar zaio badakitela fase honek arlo publikora jauzi egitea dakarrela, eta horrek beste kezka batzuk ere gehitzen dituela.

Balantzea egiteko ordua da: zer eramango dudan nirekin eta zer ez. Berriro ere, hasieran genituen itxaropen batzuen dolua egingo dugu, eta frustrazioa igaro. Une horietan, berriro ere garrantzitsua da taldeko helburuak berreskuratzea, perspektibaz begiratzen eta lortutakoari balioa ematen lagunduko baitigute. Geure buruarekin eta prozesuarekin zintzoago jokatzeko lagunduko digu horrek. Eta, horrela, lortutako guztia berreskuratuz, aztertu eta beste zentzu batez hornitzen.

Elkarrizketa esperientzia horietatik espero ohi dena da folio edo dokumentu batean jasotako akordio bat lortzea. Baina folioa beti eskas geratzen da halako prozesu batek taldeari edo kide bakoitzari –bi geruzak hertsiki loturik baitaude– zer ekarri dion jaso eta adierazteko.

Ixte fasea, eskuarki, taldeak ondorio batzuk ateratzea lortu duenean gertatzen da, edo jada jaso dituen bere barne hausnarketan inguruko akordioak, edo horiek jasotzeko dagoenean. Beraz, intentsitate handiko unea da, taldeak adostasunetara iristeko prozesuan murgilduta baitaude, eta, gainera, azken adostasunak direnez, pisu handiagoa dute. Hortaz, taldearen azken aukeratzat hartzen dira. Puntu honetan, garrantzitsua da gogoan izatea taldea ari dela bere prozesua ixten, eta orain taldearen errealitatea ikusarazi behar dela, non taldekideak elkarrekin bizi izan duten prozesuaren zerbitzura dauden. Taldekide bakoitzari leku bat emateak taldearen koraltasuna berreskuratzea esan nahi du, alegia, taldeari zentzua ematen dion hori, berau bakar eta errepikaezin bihurtzen duena.

Fase honetan, beste modu batean neurtzen da denboraren joana, deskontatzen hasten gara eta ezinbestekoa da epe bat jartzea itxiera duina eta bizi izandako prozesuaren neurrikoa izango dela bermatzeko.

4.5. Esperientzia gizarteratzeko fasea

Falta diren azken akordioak egin eta agendako gaiak amaitzen dituztenean, taldeak esperientzia gizarteratzeko prestatzen dira. Egindako ahalegina, bizitakoa garrantzitsua eta sakontasun handikoa izan delako

sentsazioa, eta gizarteari ekarpena egiteko hasierako motibazioa, zeina bidean norbanako bakoitzaren eta taldearen konpromiso bihurtu den: horrek guztiak bizitakoa transmititzeko beharra elikatzen du. Hala ere,aldi berean, beldur eszenikoa agertzen da eta hainbat galdera sortzen dira: «nola interpretatuko da bizi izan dugun eta adostu dugun hau?» «ulertuko al da esperientzia?» «nahikoa izango al da?» «zer ekarpen ari gara egiten?».

Batzuetan, beste sozializazio une batzuk bizi izan dituzte taldeek, ekitaldi publikoak antolatu dituzte edo adierazpenen edo akordioaren baten berri eman dute. Baina, besteetan, itxiera unera arte ez dute utzi taldearen esfera diskretu eta babestua, eta lehen aldiz agertzen dira beren auzokideen aurrean. Beldurrak agertzen dira: epaitua izatearena, ulertezintasunarena, arbuioarena edo are irainarena ere. Fase honek erabat arriskatzeko esan nahi du, batez ere, elkarrizketa prozesuak gidatu dituzten kodeekin bat ez datozen edo are guztiz kontrakoak diren kode batzuk erabiltzen dituen ingurune batean.

Horregatik, oso garrantzitsua da taldekide bakoitzak azaltzea zer behar duen nolabaiteko segurtasuna sentitzeko, elkar zaintzeko eta esperientzia ere zaintzeko mekanismoak adostea. Garrantzitsua da zer eta nola jakinaraziko den, eta oso modu egituratuan lantzen da, benetan adierazi nahi denaren gaineko nolabaiteko kontrola bermatzeko.

Esperientzia nola gizarteratuko den taxutzean, garrantzia hartzen du azken emaitzak bi alderdi dituelako kontzientziak: adostasunez landutako dokumentuak daude, baina baita elkarrekin ibilitako bidea ere. Gizarteratze faseak berak berezko funtsa hartzen du, eta garrantzi handia du esperientzia zaintzeko eta bizitako guztiari zentzua emateko orduan. Fase honetako zeregin nagusietako bat prozesuaren narratiba korala eraikitzea da: lehen pertsonan jasotzea gure abiapuntuak zein ziren, elkarrizketa prozesuak zer ekarri duen, zertan lagundu duen eta zer izan den zailena, eta esperientziaren azken balorazioa zein den. Bizipen bakoitza –berez berdinek gabea– besteenarekin batera jasotzeak taldearen koraltasuna ikusarazten du, eta prozesua benetako bizikidetz

esperientzia gisa sentitzen laguntzen du. Horrek sortzen du, agian, inpakturik handiena, lortutako akordio edo ondorio partekatuetatik harago: are gehiago, akordio horietara iristeak zer eskatu duen ikusaraztea lagungarria da adostasun horiei beste ikuspegi batetik begiratu eta balio eta zentzu handiagoa emateko.

Taldeko narratiba korala adostea ez du esan nahi prozesuaren bizipen bera helaraztea, berez ezinezkoa baita, baizik eta talde harmonia erakustea, elkarrekin ibilitako bidearen adierazgarri. Azpimarratu behar da, gainera, esperientzia kolektiboki bereganatzen laguntzen duela fase honek.

Errepikatu beharreko ereduak baino gehiago, beste prozesu batzuen inspirazio izan daitezkeen ibilbideak erakutsi nahi ditu fase honek. Azken batean, efektu biderkatzailea izan. Gizartearen ekarpen gisa, lagungarria da «desberdinen» arteko elkarrizketa, baita etsai gisa irudikatzen ditugunen artekoa ere, ezinezkoa den mitoa gainditzeko. Modu sinesgarrian erakuts dezake elkar ulermena eta are afektua posible direla hain pertsona ezberdinen artean ere, hargatik norberaren nortasuna galdu gabe, eta, hortik, bide partekatuak eraiki daitezkeela.

Prozesua oso modu desberdinean gizarteratuko da, taldeak zenbateko energia duen, kideek zer gaitasun eta jarrera dituzten, eta taldearen irudimena, baliabideak eta denborak zein diren. Batzuetan, herritarrei deialdi irekia egin eta, zirkuluerdian, taldearen espazioa erreproduzitzen eszenifikatu dute. Beste batzuetan, dokumental batean islatu da narratiba korala: hala egin zuen Donostiako Herritarren Foroak, adibidez.

Azkenik, gizarteratzeko fase honetan sar litekeen beste urrats bat esperientziaren sistematizazioa da. Lan hori egitean, taldearen ondarea jasotzen da. Horretarako, oso lagungarriak dira bileren aktak eta prozesuan zehar egindako dokumentuak. Sistematizazio horrek hainbat forma izan ditzake: web orri batean gorpuztu daiteke, Tolosako Bizikidetzaren Foroaren kasuan bezala, edo dokumentu batean jaso, Donostiako Herritarren Foroak *Prozesuaren kaiera* (2021) argitalpenarekin egin bezala, zeina praktikan baliabide pedagogiko bihurtu den. Prozedura horiek guztiak

direla bide, denboran luzatu egiten da jada amaitutako esperientzia horien eragin biderkatzailea.

4.6. Proiektuen fasea

Taldeak bere ibilbidea amaitzea erabakitzen duenean, parte hartzaile bakoitzarengan bizirik eta eragiten jarraitzen du bizitakoak eta barneratutakoak. Baliteke beste esperientzia eta ekimen batzuk abiaraztea, egindako bidearekin koherentea izateko beharrak eta beste bidaideenganako esker onak bultzatuta. Ekimen horiek proiektu pertsonal bihurtuko dira jada, baina talde prozesuaren oihartzuna dute nolabait. Dagoeneko ez gara prozesua hasi zuen pertsona bera, gurekin daramagu partekatutako bizipena, eta, ondorioz, gure begirada, entzuteko eta baita hitz egiteko modua ere, ez dira berdinak.

Batzuetan, esperientziaren lekukotza ematen dute, beste pertsona batzuk horrelako prozesu bati ekitera animatzeko. Beste batzuetan, berriz, antzezlan batean, iritzi artikulua batean edo artelan batean isla daiteke, baldin eta pertsona horiek kulturaren munduan mugitzen badira edo nolabaiteko erreferentzialtasun soziala badute. Beste batzuetan, elkarrizketaren militante bihurtzea esan nahi du horrek, eta ikasitako tresnak eta garatutako gaitasunak laneko, aisialdiko, pertsona arteko edo familia arteko eremuetan aplikatzea.

5. Tresna edo baliabide metodologikoak

Aipatu dugun bezala, elkarrizketa guneak bideratzeko erabilitako metodologia aldatuz joan da, tokian-tokian eta unean-unean sortutako abagune eta eskaeretara egokitzeko. Espazio bakoitzeko parte hartzaileen konfiantzari esker egokitu ahal izan dira espazioak; izan ere, prozesuaren zerbitzura jarri dituzte beren jakintzak eta gaitasunak. Horri esker, beren beharretara egokitutako metodologia bat eraiki ahal izan dute, eta errazagoa izan dute hura berenganatu eta barneratzea. Horregatik, eraikuntza kolektiboaren emaitza gisa ulertu behar dira tresna eta baliabide horiek.

5.1. Iraganaren eta orainaren narratibari aurre egiteko tresnak

Gertatutakoaren «kontakizunari» aurre egitea da herritar edo bizikidetzaren foroetako gai nagusietako bat. Galdera hauei erantzutea da kontua: zer gertatu da? zer gertatu zaigu? eta, zergatik gertatu da gertatu dena? Zeregin horri aurre egitean, ohartu gara gertatutakoaren gure bertsioa kontatzeko beharra dugula. Azken batean, gure historiaz hitz egitea, zintotasunez onartzea non egon ginen, zer hausnarketa egin genituen ekintza edo gertakari jakin batzuetan eta zer erabaki pertsonal hartu genituen. Pertsona bakoitzaren bizitzako erreferentziak, gure nortasuna markatzen duten gertaerak, errealitatea nola interpretatzen eta ondorioz nola jarduten dugun eraikitzen dutenak, askotarikoak izan dira, gure familia, gizarte edo ideologia ingurunearen arabera edo adinaren edo generoaren arabera. Horregatik, ikusi dugu zaila dela denbora tarte bat mugatzea nondik aurrera gogoratzen hasi behar dugun definitzeko orduan.

Horiek horrela, zeregin horretan garrantzia hartu du pertsona guztiei eta gertatutako guztiari edo une bakoitzean gogoratzeko gai izan garenari leku bat emateak. Aurkariaren edo are etsaiaren aldean leku bat izateak, praktikan, «besteak» hartu, onartu eta aitortzeko ariketa bat ekarri du berekin, eta ibilian gure bidaide edo bidelagun bihurtu dira⁴⁹.

Taldekide bakoitzaren bizipenei eta biografiei leku bat emateak, alde batetik, pitzadura bat ireki du Yaacob Naor-ek⁵⁰ «isiltasun horma» deritzon horretan. Hark deskribatu bezala, «isiltasuna babesa da, baina horma ere bihurtu daiteke». Isiltasun hori hausteak esan nahi du zaurgarritasuna agertzea, eta horrek, aldi berean, konfiantza eta segurtasuna sortzen lagundu du.

Era berean, iraganaz hitz egitea, min ematen duena izendatzea, beti samurra izan ez den entzute ariketa bat izan da. Entzuteko orduan, errespetatu egin dira pertsona bakoitzaren denborak, hautatu dituen une esanguratsuak, eta entzutean itxuraz falta zena ez esatea, ohartuki nahiz oharkabean. Baina eztabaidarik ezak, bizitakoa adosteko edo partekatze beharrik ez izateak, beste leku batetik entzutea ahalbidetu du.

Horri guztiari esker, elkar ezagutzan sakondu ahal izan da, hobeto ulertu ahal izan da nondik entzuten eta hitz egiten duen bakoitzak, eta, hortik, «bestearen» begirada zurrin eta estereotipatuak gainditu ahal izan dira. Ondorioz, identitateen konplexutasuna azaleratu, loturak eta elkar ulermena erraztu, eta elkarguneak aurkitu ahal izan dira.

Talde guztiek egiaztatu dute ezin dela eraiki gertatutako guztia barne hartuko duen kontakizun bakar bat, eta, ondorioz, beste ideia baterantz jo da: kontakizunak, kontakizunen koraltasuna edo kontakizun poliedrikoa. Gertatutako guztia modu inklusiboan kontatzeko irudimentsuak izatera behartu du.

49. *Bidaide* («bidelagun») da *Donostiako Herritar Foroa. Prozesuaren kaiera* (2021) argitalpenean jasotako sistematizazioaren izenburua.

50. ISIS Israel sortu eta zuzendu zuen, artearen bidezko psikodrama eta terapia zentro bat, Tel Aviven. 1986az geroztik, elkarrizketa psikodramatikoko taldeak bultzatu zituen holokaustoko bigarren eta hirugarren belaunaldiko bizirauleentzat, alemaniar gazteekin batera, baita palestinarren eta hebrearren arteko bilerak

Hala ere, kontakizun guztiei leku bat emateak ez du esan nahi zuritu, lausotu, erlatibizatu edo erantzukizunak lainotu direnik ere. Norberaren biografiak azalduta, ondorio partekatuetara iritsi, ikaskuntzak atera eta, ikuspegi autokritiko batetik, norberaren arduratzeko aukera izan dute taldeek. Urrats beharrezko bat, iragan mingarria ez errepikatzeko eta harreman narriatu edo hautsiak berreraikitze prozesuaren barruan. Prozesu horretan konpromiso bat baitzen gertatutakoaren gaineko begirada kritikoa egitea.

Azkenik, egiaztatu dugu taldekideengan beti eragin handia izan dutela norberaren biografiak azaltzeko esperientziak. Inflexio puntu esanguratsua izan dira beti, banako nahiz talde mailan. Momentum errepikaezin eta preziatua. Batzuetan, kostata ulertu da ariketa horiek metodologikoki kokatzeko beharra, benetakotasuna gal zitekeela sentiturik, baina begirada perspektibaduna lagungarria izan da ulertzeko ezen urrats hori beharrezkoa zela espazio seguru bat sortzeko, lortutako intimitate maila zaintzeko gai izango zena, eta ulertzeko, baita ere, taldekideek ez luketela horrelakorik azalduko, norberaren zaurgarritasuna erakusteko baldintza egokirik ezean.

5.1.1. Bizitza historiak

Tresna hau Yaacov Naor-ek garatutako «bizitza mapen»⁵¹ egokitzapen bat da.

Iraupena: 4 ordu/saio. 12 kideko talde batentzat aurreikusitako denbora. Espazioaren antolamendua: areto bat, eta aulkiak zirkuluan.

51. 2012ko urrian Iruñean egindako «El silencio en la transmisión generacional de guerras y conflictos. Técnicas psicodramáticas» prestakuntza tailerraren ondoren hasi ginen erabiltzen «Bizitza mapak», Yaacov Naor-ek garatutako tresna.

Saioaren deskribapena:

- Konfiantza ariketa bat egitea hasteko. Espazioa goxatu behar da, leku fisikoa eta entzute eta elkarrizketa ariketa gurekin egingo duten pertsonak ezagutu. Horrek esan nahi du pixkanaka gure ahotsa ateratzen joan behar dugula, isiltasuna hautsi eta apurka, kontu handiz, besteengana hurbildu eta, amaitzeko, aurkeztu.
- Parte hartzaileak binaka aurkeztea. Elkar ezagutzen hasten laguntzen du eta taldeko onarpen sentimendua indartzen du. Komunitatearen ideia indartzen du.
- Saioa kokatzea. Zer egingo dugun eta laneko metodologia eta denborak zein diren argitzen du. Esperientzia zaintzen duten elementu garrantzitsu batzuk hauek dira: konfidentzialtasuna, lehen pertsona hitz egitea (bizi, sentitu eta behar izan denaz), gure kontakizuna nahi dugun arte ireki eta ixteko askatasuna ematea, etenik gabe entzutea, denborak zaintzea...
- Gure historia idaztea. Parte hartzaile bakoitzak folio batean idazten du bere bizitzan esanguratsuak izan diren esperientzia, gertaera, erabaki eta jarreraren zerrenda. Bizitzako une ilun eta zailak, eta beste une batzuk, argitsuak edo ospatzekoak. Kontua da markatu gaituzten gertaerak bilatzea, garena bihurtu gaituena.
- Gure historiaren mapa marraztea. Gertaera horiek guztiak mapa batean jasotzen dira. Pertsona erdian jartzen da, eta gertaerak hurbil edo urrun jartzen dira, nola sentitu diren. Gertaera edo esperientzia bakoitzaren ondoan esaldi bat idazten da, eta hor jasotzen da gertaerak zer suposatu zuen, zer sentitu genuen.
- Gure historia kontatzea. Parte hartzaile bakoitzak bere historia kontatzeko erabiltzen du bere mapa.
- Saioa ixtea. Hitz egitean zein entzutean nola sentitu garen jasoko da. Mugitu denari leku bat eman, eta pixkanaka saioa itxiko da.

5.1.2. Biografia pertsonalak

Tresna hau herritarren hiru elkarrizketa gunetan aplikatu dugu 2014tik. Iraupena: 6 ordu/3 saio. 10 kideko talde batentzat aurreikusitako denbora. Espazioaren antolamendua: areto bat eta aulkiak zirkuluan. Urratsen deskribapena:

Bileraren aurretik, hainbat galdera bidaltzen dira orientazio gisa, partekatu nahi den gauzarik esanguratsuena zer den identifikatzen laguntzeko eta, ahal den neurrian, hitz egitean ahalik eta zehatzena izateko. Kasu batzuetan, erantzunak idatziz ekar daitezke, parte hartzaile bakoitzaren beharren arabera, baina ez da eskatzen.

Galderen adibideak:

- Zer gertakarik izan dute eragin nabarmena zure bizitzan? Mugarri batzuk. Gertaera positiboak edo mingarriak.
- Nola bizi izan genituen? Gertatutakoaren zuzeneko bizipena.
- Nola baldintzatu gintuzten edo eragin ziguten: harremanak izateko moduan, gertatzen ari zena interpretatzeko moduan, etab.? Inpaktuak bilatzen ditugu.

Saioen deskribapena:

- Parte hartzaileak aurkeztea eta saioa ixteko erabiliko dugun ainguraren bat bilatzea⁵².
- Bilera kokatzea. Zer egingo dugun eta laneko metodologia eta denborak argituko ditugu. Esperientzia zaintzen duten elementu garrantzitsu batzuk

52. Ainguratzearen definizioa www.mundopsicologos.com webgunean (geuk itzulia): «Psikologian, ainguratzeak programazio neurolinguistikoaren termino bati egiten dio erreferentzia; hartan, estimulu (aingura) bati lotzen zaio sentimendu on bat dakarkigun oroitzapen bat. Estimulua sentsazio edo emozio positiboekin lotuz, egoera zailei aurre egiteko errefortzu bat lortzeko modua sor dezakegu. Beraz, ainguratzea da esperientzia positibo baten oroitzapena lortzea, gure bizitzako une batzuei aurre egiteko nahi dugun egoera mental bat sortzeko».

hauek dira: konfidentzialtasuna, lehen pertsonan hitz egitea (bizi, sentitu eta behar izan denaz), gure kontakizuna nahi dugun arte ireki eta ixteko askatasuna ematea, etenik gabe entzutea, denborak zaintzea...

- Gure biografia pertsonala azaltzea. Parte hartzaile bakoitzak denbora bat du beretzat garrantzitsua zer den ahoz kontatzeko. Erabilitako batez besteko denbora hoge minutukoa da.
- Ulertzeko galderak. Zenbait gunetan galdera txanda bat ireki da hizketaldien amaieran. Helburua ez da eztabaidatzea edo zeren falta sumatzen dugun aipatzea, baizik eta ulertu gabekoari buruz galdetzea.
- Saioaren amaiera. Hitz egitean nahiz entzutean nola sentitu garen jasotzen da. Mugitu denari leku bat eman eta, pixkanaka, saioa ixten da.

5.2. Narratibak biltzeko eta ondorioak ateratzeko tresnak

Biografia pertsonalak halako hurbilketa ireki batetik partekatzen direnean, ikus dezakegu zein konplexua den entzundako guztia dokumentatzea, hautatutako momentu historikoak eta gertaera motak direla eta: kasu batzuetan, gertakari oso ezagunekin daude lotuta, baina, beste batzuetan, bizipen oso partikular batzuekin eta are familiako gertaerekin dute zerikusi handiagoa.

Dokumentazioa ez zen hasiera batean ezarritako helburu bat, baina hainbat esperientziatan aurrera egin ahala, pentsatzen hasi ginen nola transmititu azaldutako kontakizunen garrantzia prozesuan parte hartu ez dutenei. Nola eraman esperientzia hori, berau zuzenean bizi izan zuten pertsonengandik harago.

Herritarren bi elkarrizketa gunek zenbait hurbilketa entseatu zituzten, eta, azkenean, lagungarriak izan ziren transmisioa narratiba guztien bitartez gauzatzeko, taldeak garatutako elkarrizketa eta bizikidetzaren prozesuari balioa emanez, eta entzundako eta bizitako guztitik ondorio batzuk ateratzeko.

5.2.1. Kontakizun poliedrikoa

Kontakizun poliedrikoa Tolosako Bizikidetzako Foroarekin⁵³ batera sortutako tresna bat da. Hura osatzen duten kontakizunak 2021ean foroaren gizarteratze fasean sortutako webgunean daude jasota.

Kontakizun poliedrikoa sortu zen ohartu baikinen ezinezkoa zela taldekide guztiei leku bat emango zien kontakizun bakar bat eraikitzea eta ahalik eta modu osatuenean jaso behar zela norberaren biografia. Bagenekien, ordea, dinamikoa dela eta, ziurrenik, denboraren poderioz aldatu egingo dela. Azpimarratu behar da norberaren bizi ibilbidea ulertarazteko eta azaltzeko asmoz idazten direla kontakizun horiek, inoiz ez erantzukizunak zuritu edo lausotzeko. Beraz, praktikan, introspektzio eta autokritika ariketa pertsonala da.

Adostutako egiturak gutxieneko koherentzia bat ematen die kontakizun guztiei, horrela, taldearen koraltasuna erakutsiz⁵⁴:

- Pertsona bakoitza esan nahi duenaren testuinguruan jartzen da. Norberaren ibilbidean garrantzi berezia izan duten gertaera zehatzak eta une historikoak kontatzen dira; bizipenak, horien ondoriozko posizionamendu eta hausnarketak, inflexio puntuak.
- Norberaren bizi ibilbidearen irakurketa autokritikoa egiten da. Norberaren ibilbidea eta gertaeren garapena ikusita, identifikatzen da zer egingo zatekeen beste modu batera, zeren ardura eta erantzukizuna hartzen den, eta zein diren gainditu gabeko arantzak edo kontuak.

53. Tolosako herritarren elkarrizketa guneak hartutako izena (Gipuzkoa). Udalerrri horretako elkarrizketa prozesua 2013-2021 urteen artean garatu zen.

54. Hemendik aterata: «2019 Kronika. Eranskinak: egitura».

Kontakizun poliedrikoa berau idazten duenarena da, eta bakoitzak bere ibilbidea hartzen du bere gain, baina, batzuetan, esandakoa neurri batean beste batzuek ere parteka dezaketenean, jende gehiagori buruz ere ari dela uler daiteke. Azken hori taldea bera gainditzeko aukera ematen duen identifikazio elementutzat har daiteke.

5.2.2. Mapa mentalak

Mapa mentalen ilustrazio bat da, bizipen eta biografia pertsonal bakoitzean dauden geruzak erakusten dituzten kolore kodeak barne.

Tresna hau Donostiako Herritarren Foroarekin elkarlanean sortu zen, eta foroak berak egindako dokumentu honetan jaso da zabalago: *Donostiako Herritarren Foroa. Prozesuaren kaiera* (2021ean argitaratua).

Metodologia hori biografia pertsonalak partekatu ondoren sortzen da. Horretarako, biografiak partekatzean, idazkari lanak betetzen ditu bideratzaileak eta idatziz jasotzen du entzundakoaren laburpena.

Mapa mentalak egiteko urratsak:

- Taldekideen biografia pertsonalak partekatzean, «denbora lerroa» hartzen da erreferentziatzat. Rotafolio batean lerro horizontal bat egin, eta hor kokatuko dira, kronologikoki, kontatutako ekintza edo gertaera esanguratsu guztiak (dataren, urtearen nahiz hamarkadaren arabera), eta entzundakoaren laburpena.
- Forokidez osatutako talde txiki batek testu dokumentu batean islatuko du rotafolioetan jasotakoa. Kontatutako biografia bakoitzean zenbait geruza identifikatzen dira, eta horietako bakoitzari kolore kode bat esleitzen zaio. Hauek izan daitezke, adibidez, identifikatutako geruzak (koloreak): inpaktu orokorra izan duten indarkeria ekintzak eta inpaktu hurbilagoak dituzten beste batzuk; familiako edo gertuko ingurunean bizitako gertakariak; testuinguru politikoa; zuzenean bizitako gertaerak; inflexio puntuak, kontzientzia hartzea; emozioak, sentimenduak.

- Hori guztia mapa mentalen euskarrira eramaten da. Kolore kodea aprobetxatuz, bizipenak bakarrik jasotzen dira, norenak diren zehaztu gabe. Emaidza gertatutako guztiaren argazki koral bat da.
- Egindako mapa mentalak taldeari itzultzea. Hainbat saiotan, jasotakoa berrikusi, zuzendu eta osatu egiten da. Lotura berriak sortzen dira, eta norbaitek azaldutako gertaeretatik beste pertsona batzuen gogoetak ateratzen dira.

Mapa mentalen irakurketatik taldearen ondorioetara:

- Mapa mentalak irakurtzea eta kontzientzia hartzea. Kontakizun guztiak leku berean islatzen direnean, norberaren zein besteren biografiak bistaratzen dira, baita haien guztien arteko loturak ere. Gertatutako guztiaz jabetzeko aukera ematen du, eta horrek guztiak taldekide bakoitzarengan sortu duenaren kontu egiteko ere.
- Autokritikako talde ariketa. Bizi ibilbide bakoitza desberdina da, eta, beraz, baita nork bere gain hartzen duena ere, baina talde dinamikarekiko eta prozesuarekiko koherentziagatik, taldean autokritika egiteko formula zintzo bat bilatzen da. Hori guztia lortzeko, formula hau erabili da: «geure buruari entzutean, aitortzen dugu...».

6. Bideratze lana

Aipatu dugun bezala, prozesu horiek bideratzearen ezaugarrietako bat da hala gatazkaren nola gatazka eraldatzeko ekimen ugarien testuinguru soziopolitikoaren parte direla bideratzaileak. Gatazkak eta indarkeria politikoaren inpaktuek pertsonalki zeharkatzen dituzte bideratzaileak, eta horrek eragina du entzuteko eta begiratzeko moduan. Gainera, bideratzaileak bakegintzako ekimenak sustatu dituzten erakunde edo entitate sozial batzuen parte izan dira, eta litekeenik, gizarte polarizazioaren ondorioz, alde batekotzat edo bestekotzat etiketatuko ziren ekimen horiek. Horrek eragina du alderdiek bideratzaileei buruz duten pertzepzioan. Ezaugarri horrek prozesuetan gertatzen dena hobeto ulertzen eta dauden mugimenduak dimentsionatzen lagundu dezake, baina, aldi berean, zailtasun bat izan daiteke taldeetan multipartzialtasuna mantentzeko edo alderdien legitimitatea irabazteko.

6.1. Nork eta zertarako

Zer nolako bideratzailea izan nahi dugu? Galdera mamitsua da, eta beste galdera zeharo humano baten paraleloa: zer nolako pertsona izan nahi dugu? Bigarren galderaren kasuan bezala, lehen galderari erantzuteko, imitatu nahi diren prototipoak, jarraitu nahi diren ereduak bilatu ohi dira, harik eta, azkenean, konturatzen garen ez dagoela taldea bideratzeko edo hartan «egoteko» modu bakar bat, talde ereduzko bat ez dagoen bezala. Daukagunarekin –norberarena zein taldearena– lan egiten dugulako, egokitzapen eta ikaskuntza prozesu etengabe eta amaitu gabea da bideratze lana. Zeregin horretan, geure buruarekin zintzoak izan behar

dugu, eta geure talentuak eta ahuleziak onartu, geure estiloa hortik abiatuta eraikitzeko.

Hori garrantzitsua da laguntzen ari garen elkarrizketa esperientzien ibilbidea ulertzeko orduan. Prozesu horiek bizikidetzaren hobetzeko baldintzak sortzen dituzte, norberarena eta bestearena hobeto ulertzen laguntzen dute, lankidetzaren bultzatzen dute eta harremanak konpontzen laguntzen dute, inkomunikazioa eta estereotipoak gaindituz.

Bideratzaileak askotariko espazioetan esku hartzen du. Hurbilketa bera eta prozesu dinamika bera erabiliz, beste alderdi batzuetan desberdinak izango dira esku hartzearen zereginak. Herritar guzietan, taldeari laguntzea da zeregin nagusia; eremu politikoan, berriz, askotariko rolak jartzen dira jokoan. Espazio horietan, bideratzaileak elkarrizketak antolatzen ditu, lehenesten laguntzen du, eta, batzuetan, gai batzuei buruzko aholkuak ematen ditu: adibidez, giza eskubideak, biktimen aitorpena eta erreparazioa, memoria... Azken eremu horretan, bideratzailearen lana konplexuagoa da, oreka bilatu behar baitu: batetik, ez du markatu behar zer bideri jarraitu behar zaion, baina, aldi berean, elkarrizketa guzuen agenda politikoan jasotako gaietan aurrera egiten lagundu behar du. Hau da, «zer egiten den» ez ezik, «nola egiten den» ere zaindu behar du, bigarren alderdi horrek zentzu espezifikoak ematen baitio egindako urrats bakoitzari. Azken batean, prozesuaren eta zeregin zehatzaren arteko kongruentzia zaintzea eskatzen du.

6.2. Multipartzialtasuna eta entzutea

Bideratzaileak leku bat hartzen du taldean, eta, beraz, prozesuaren parte da. Taldearen parte da. Horregatik, garrantzitsua da bilatzea nondik lagundu ahal izango duen nolabaiteko «erosotasunez», gertatzen denarekiko eta prozesuan bizirik dagoenarekiko lotura mantenduz, eta zenbateko distantzia beharko duen, elkarrizketak ez oztopatzeke edo desitxuratzeke. Bideratzaileak prozesuaren barnetik ekiten dio

bidaiari, non sentitu, hauteman eta gertatutakoak hunkitzen gaituen; eta prozesuaren ertzetarantz doa, hartara, behar besteko distantziatik, galdetu, itzuli, izendatu, onartu, eutsi eta itzuli ahal izango baitu

Horrenbestez, prozesuak aurrera egin ahala, bideratzailea ere aldatu egiten da, ikasitakoak eta bizitako esperientziak barneratuz.

Bideratzailea, beraz, ez da pertsona neutral edo inpartziala. Aitzitik, multipartziala edo pluripartziala dela ulertzen dugu: sakonki eta jakin-minez entzutea da haren zeregin funtsezkoa, taldekide guztiak modu berean ulertu eta hartu ahal izateko. Enpatiaz, sakonki edo errukiz entzuteko talentua garatzea da kontua. Esandakoaren zentzua identifikatzen, emozioek zertaz hitz egiten diguten ulertzen, eta esandakoan inplizitu dagoena identifikatzen saiatzea. Hau da, taldekide guztien alboan dago bideratzailea eta, toki horretatik, bidelagun bihurtzen da.

Horrek ez du esan nahi ez dugunik ikusten partzialtasunak nola funtzionatzen duen; izan ere, entzuten dugunean beti ari gara aukeratzen eta ebaluatzen. Baina uko egiten diogu arrazoa eman edo kentzeari, aholkuak edo konponbideak emateari edo epaitzeari. Horrela, modu eraginkorrago eta arduratsugago batean lagundu dezakegu prozesua.

Hala ere, baliteke batzuetan parte hartzaileek ez ulertzea multipartzialtasun hori, deserosotasuna eta are mesfidantza ere sortzea. Horrelakoetan, gogaitzen duena zera da: ulertuak izan arren, behar dutena ez da soilik entzute ulerkorra, baizik eta arrazoa ere ematea. Multipartzialtasun horretatik, beste ikuspegi eta hurbilketa enpatikoago eta zintzoago batzuk entseatzen lagundu daiteke, baita arrazoa izateko beharra gainditzen lagundu ere, edo deskonexioa eta bazterkeria dakarten begirada dualak gainditzen: onak eta txarrak, zuzena dena eta okerra dena.

Bideratzailearen tokitik, begirada multipartzial hori praktikan jartzea eta sustatzea lagungarria da, halaber, taldekideek erlazionatzeko modu enpatikoagoak proba ditzaten, eta, hortik, arrazoa edukitzeari uko egin diezaioten. Amore eman eta berdinkide gisa onar dezaten «besteak»: ulertu behar dudan norbait, nirearen osagarri izan daitekeen informazio edo errealitatearen ikuspegi bat duena.

Hala ere, bideratzailea partziala da prozesuari eta elkarrizketa gune bakoitzeko «lan esparru partekatuetan» definitutako elkarrizketa dinamikari dagokienez. Bideratzaileak prozesuaren babesean eta zaintzan parte hartzen du, eta alderdi guztiak prozesuaren erantzule izateko bideak sustatzen eta jartzen ditu. Lan dinamika zaintzea elkarrizketa gunea osatzen duten pertsona guztiak zaintzea da.

6.3. Legitimitatea eta konfiantza

Bideratzailea gainerako parte hartzaileen akordio berberen mende dago, baita taldearen egitura edo «lan esparru partekatua» oinarritzen duten akordioen mende ere; hau da, azken batean, elkarrizketa prozesua ezaugarritzen duen sistemaren mende. Horregatik, bideratzaileak nolabaiteko erantzukizun bat du prozesuarekiko: lan dinamika zaintzen du, beharrezkoa denean argitzen laguntzen du, ondozei eutsi eta tokia ematen die, dinamika posizionamendu edo liskar pertsonaletara desbideratzen denean elkarrizketa berroneratzen laguntzen du, fokua altxatuz eta gertatzen dena prozesuaz hitz egiten digula adieraziz, hortik min txikiagoz landu ahal izateko.

Elkarrizketa gune horien laneko dinamikaren helburua da gunearen gaineko boterea partekatua izatea. Bideratzaileak badu nolabaiteko maila bat, eta hortaz eta dakarren erantzukizunaz jabetu behar du. Ezein prozesu ez da bestearen berdina, eta, beraz, bideratzaileak ez du aurrez suposatu behar zer gertatuko den, eta uko egin behar dio prozesua kontrolatzeari eta gidatzeari. Esanak esan, antzeko egoeretan bizi izandako esperientzien berri eman dezake, prozesu horiek guztiek dakarten ikaskuntza kolektiboaren barruan.

Bideratzailearen legitimitatea beti dago zalantzan. Horrelako prozesuek ahalegin pertsonal handia eskatzen dute, giza zaurgarritasuna azaleratzeko baldintzak sortzen baitira. Batzuetan, taldeak bideratzaileari begiratzen dio erantzunak, babesa, ulermena, lidergoa, konponbideak...

bilatzeko, batez ere, gatazka azaleratzen denean. Baliteke, orduan, bideratzailearengan proiektatzea ondoriozko antsietatea eta deserosotasuna, interpelatuz, erantzule eginez, espazioari eusteko gaitasunik duen zalantzan jarritz.

Halakoetan, garrantzitsua da geurearen erantzule egin eta taldeari berea itzultzea. Baina, horretarako, beharrezkoa da distantzia nahikoa hartzea, erruzko, tristurazko edo ezintasunezko sentimenduek gainditu ez gaitzaten, emozio horietan katigatuta geratu ez gaitezen eta fokua pertsona arteko eremutik taldekora eta prozesura altxatu ahal izateko. Horrek esan nahi du atzerapauso bat eman behar dela, emozionalki kateatuta ez geratzeko, objektibotasuna edo multipartzialtasuna galtzeraino. Psikodramaren teknikan talde mota bat baino gehiago aipatzen dituzte: badira bideratzaileari etengabe begiratzen diotenak, gida eta lidergo bila, eta badira itxuraz bideratzailea gorabehera funtzionatzen dutenak. Talde mota identifikatzea lagungarria izan daiteke egoera horiek bideratzailearengan sor dezaketean antsietatea murrizteko.

Erronka horren aurrean, distantzia hartzeak laguntzen du: gauzak pertsonalki ez hartzeak. Gure zeregina, bideratzaile gisa, ez da horri konponbidea bilatzea, eta ez dira gu arbuiatzen ari. Gertatzen ari dena ez doa pertsonaren aurka, baina eragina du, zer toki betetzen ari garen berrikustea eskatzen duenez.

Legitimitateaz hitz egitean, konfiantzaz ere hitz egiten dugu, taldeko kideek gugan jartzen duten konfiantzaz. Polarizatutako testuinguru baten barruan, konfiantza hori etengabe dago jokoan. Keinu batek, begirada batek, komentario batek eta, bereziki, izendatzeko modu jakin batek mesfidantza sor dezake, eta partzialtasun seinale gisa uler daiteke. Erabilitako hizkuntzak «alde» batean jartzen gaitu, esanahiari ez baizik eta hiztunari erreparatzen zaionez.

Bideratzeak, gainera, berekin dakar taldearen prozesuarekiko lotura maila bat mantentzea, barrura begiratzea eta norberetik jokoan zer den entzutea, eta prozesuaren dinamika barneratzea, kongruenteak izateko eta gure esku hartzeak distortsionatu ez dezan.

Ahalik eta gutxienik sartu behar dugu eskua, zer esan nahi dugun argi dugunean bakarrik saiatu behar dugu itzultzen edo hitza hartzen, baina ez iruditzen zaigulako guk entzun baino modu egokiagoan edo zuzenagoan esan dezakegula. Zerbait ekarri, argitu, jaso eta antolatu behar dugunean bakarrik hartu behar dugu hitza. Lan zaila da; hortaz, gehiago galdetzea eta gutxiago itzultzea izango litzateke egokiena.

Ildo horretan, bideratzailearen erronketako bat da kontrolari eta konponbide ideala bilatzeari uko egitea, eta ez minimizatzea edo baztertzea gogaitzen duen mina. Azken batean, taldean bete dezakegun zentraltasunaz jabetuta, onartu behar dugu ez gaudela erdigunean, prozesua eta haren protagonistak daudela erdigunean. Horregatik, paradoxikoki, zentrotik kanpo kokatu behar da bideratzailearen zentraltasuna, ertzetan, ia oharkabean pasatzeraino, kanpo behatzaile bat balitz bezala, baina prozesuak hala eskatzen duenean esku hartzeko erantzukizunarekin.

6.4. Norberaren lana eta prestakuntza

Bistakoa dirudi, baina bideratzaile lanean funtsezkoak dira norberaren lana eta zintzotasuna. Garrantzitsua da gure mugen jabe izatea. Ezinbestekoa da gelditzen eta laguntza bilatzen ikastea. Batzuetan, taldeak berak itzultzen diguna entzuteak lagundu diezaguke prozesuak zer behar duen hautematen. Beste batzuetan, ikertu egin beharko dugu eta prestakuntza egoki bat aurkitu, segurtasunez eta konfiantza handiagoz aurre egiteko talde prozesuari eta eusteko espazioari.

Bideratzailea ez da gertatzen denaren erantzule, baina haren erantzukizuna da beharrezko diren tresnak edukitzea gertatzen dena guztientzat modu egokiagoan prozesatu ahal izateko. Batzuetan, mekanismorik, prozedurarik edo tresnarik ezak zaildu egiten du beste hurbilketa eta irtenbide batzuk bilatzea arazo edo gatazka zaharretarako. Ildo horretan, tresna, teknika eta baliabide berriak ematen lagundu dezake bideratzaileak. Baina taldearen beharrei eta prozesuari erantzunez betiere,

ez ikasitakoa esperimentatzeko edo praktikan jartzeko nahiaren arabera. Azken batean, metodologia edo teknika bat partez inplementatzea da kontua, hura taldearen eta testuinguruaren hizkuntzara, eskaeretara, denboretara eta beharretara egokituz. Horrek, halaber, erabilera berehala ebaluatzea eskatzen du, kalterik egin ez dezan.

6.5. Prozesu pertsonaletan bidelagun izatea

Bideratzaileak taldeari laguntzen dio batik bat, baina prozesuan eragina duten beste lan batzuk ere betetzen ditu. Gogoan izan behar da taldean gauzatzen dela prozesua, hura dela baliozkotutako espazioa (non taldekide guztiek parte hartzen duten, adostutako egituraren gidaritzapean), baina, batzuetan, taldetik kanpo ere esku hartzen du bideratzaileak, nahiz eta hura alde batera utzi gabe. Bideratze lan pertsonalaz ari gara. Batzuetan, baliteke saio batean bizitakoak asko mugiaraztea, prozesatu beharreko ondoez edo min bat sortzeraino. Halakoetan, bideratzaileak entzute gune bat ireki dezake pertsona horrekin, min horrek zer adierazten duen identifikatzen laguntzeko eta, horrela, intentsitate txikiago batekin edo modu ulergarriagoan eraman ahal izateko taldera.

7. Toki mailan eraikitako bizikidetza ibilbide batzuk

Hizpide ditugun esperientziek, pixkanaka, proiektio publikoa izan dute urteetan zehar. Elkarrizketa politikorako gune guztiak ez dira jendaurrean aurkeztu, baina, kasu gehienetan, aurrera eraman ahal izan dituzten ekintzen edo ekimenen bidez ezagutzera eman da haien lana. Elkarbizitza adibide horiek argitara atera dira, urrats publiko horiek lankidetzan eta adostasunean oinarrituta egin direlako. Hala ere, ez da beti agerikoa izaten ekimen bakoitzak «desberdinen» arteko elkarrizketa prozesu bati erantzuten diola, batzuetan elkar etsaitzat duten pertsonak hartu dutela parte, eta zer ematen duen horrek aditzera: hain zuzen, ahalegin erraldoia egin behar izan dutela, espazio berean egotetik harago, baita elkarrekin hausnartzeko ere.

Atal honetan, udalerrietako esperientzia horietako batzuk bildu ditugu, eskuliburu honetan aletu dugun jardunbidearen erakusgarri. Hemen, bideratzaile gisa lagundu ditudan prozesu batzuk baino ez dira aurkezten, eta, zehazki, 2012-2016 urteen artean hasitakoak. Kapitulu honetan jasotakoak apur bat iradoki dezake zer ibilbide ari diren esperimentatzen, zer gai landu diren, hausnarketa maila zein den, prozesuek zenbat irauten duten eta zer lotura eratzen diren udalerrri bereko elkarrizketa guneen artean.

Esperientzia bakoitza kontatzeko orduan, udalerrri mailan mugarri esanguratsu gisa bizi izan diren une batzuk nabarmentzen dira. Elkarrizketa prozesu bakoitzak arian-arian eraikitako ibilbidea marrazten dutelako aukeratu dira. Kanpotik nekez hauteman daitekeen lan logika bati erantzuten dio ibilbide horrek, diskretuak direlako gehienak.

Udalerrri bakoitzaren aurkezpen fitxa teknikoak udalerrriko testuinguruaren konplexutasuna eta dibertsitatea igartzen lagunduko duten zertzelada batzuk eskaini nahi ditu. Baina, argitalpen hau 2023ko udal hauteskundeak baino lehen itxi denez, une horretako errealitateari erantzuten diote datuek.

Azken batean, prozesu bakoitzera pixka bat hurbiltzeko modu bat da, egindako lanari balioa emateko besterik ez, bai eta prozesu bakoitzeko parte hartzaileen ausardia eta erabakitasuna nabarmentzeko ere.

Azkenik, argitu behar da espazio horien bideratze eta laguntza lanaren ikuspegitik egin dela deskribatutako prozesuen irakurketa, eta, ziur aski, ez dela guztiz bat etorriko parte hartzaile bakoitzaren pertzepzio eta interpretazioarekin. Hain zuzen ere, erronken atalean azpimarratzen den bezala, protagonisten ahotsen bidez esperientzia horietako bakoitzari buruzko narratiba korala egitea litzateke erronka horietako bat. Esperientzia bakoitza sistematizatzea lagungarria izango litzateke udalerrian egindako urrats guztiei zentzua eman, egindako lanari balioa eman, eta ikaskuntzak ateratzeko. Orain arte, herritarren elkarrizketa prozesuek baino ez dute lortu asmo hori.

Jarraian, Gipuzkoako sei udalerritako esperientzia jaso dugu. Irudiak eta titularrak hainbat komunikabidetatik hartu dira; balorazioak, aldiz, elkarrizketa espazioek –zeinek bere momentuan– argitaratutako agirien laburpenak dira.


Errenteria



Gipuzkoako udalerrria, 40.000 biztanle ingurukoa, Oiartzualdean (Gipuzkoako ekialdea).

Prozesua hasi zenetik oraindano, alderdi hauek izan dute ordezkari-tza udalean: EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos.

Bizikidetzaren esperientzia 2012. urtearen hasieran jarri zen abian. Elkarrizketa gune misto bat sortu zen, ordezkari-tza maila desberdineko herritarrez eta politikariz osatua, eta oraindik ere lan horretan jarraitzen du udalak. Hainbat legealdi sozialistaren ostean, 2012 ezkerko EH Bilduk du alkatetza. Alderdi Popularrak ordezkari-tza izan zuen 2015eko maiatzera arte, eta, beraz, urte horretan bertan aurkeztutako Memoria partekatutako txostenaren aurkezpena egiten parte hartu zuen.



Udalak bultzatutako partaidetzazko ekimen baten esparruan, 2012an, herritarren elkarrizketarako gune bat eratu zen. **Normalizazio politikorako eta bakerako foro** izena jarri zioten, eta hala ordezkari politikoz nola herritarrez zegoen osatua. Espazio horrek diskrezioz lan egin zuen 2016ko apirilera arte; orduan, bere ibilbidea amaitutzat ematea erabaki zuen. Protagonistek jendaurrean azaldu bezala, «diskrezio horrek taldea zaindu du, konfiantza gune bakar gisa, kanpoan zailak zirenean konfiantza horiek, batez ere, udal ordezkari politikoentzat. Eraikiz ekimena talde prozesuaren garaikide izan zen; bada, prozesuan ordezkarien artean eraikitako konplizitateak izan ziren, hein handi batean, ekimenaren haziak»⁵⁵.

Eraikiz Errenteriako prozesuaren mugarrietako bat izan zen. 2013. urtearen hasieran, udalean ordezkari-tza zuten indar politiko guztiek, lehen aldiz, zinema eta antzerki ziklo bat antolatu zuten elkarrekin. Egoera horretan, alkateak iraganaren irakurketa kritikoa egin zuen 300 ikusleen eta biktima batzuen aurrean, oihartzun mediatiko nabarmena izan zuen keinu batean.

Aldi berean, 2013an, *Bizikidetzaren sustatzea* programa jarri zuen abian Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ondoren, denborak aurrera egin ahala, *Bizikidetzaren lantzea* bihurtu zen. Programaren sorrerako helburua udalerrri mailan garatutako ekimen guztiei aterki instituzionala ematea zen, bai eta udalerrietan bizikidetzaren prozesuak garatzeko finantzazioa eskaintzea ere. Harrezkero, hala Errenteriak nola beste hainbat udalerririk heldu diote programari.

2014an, udal ordezkari-tza zuten indar politiko guztiek adostu zuten ikerketa bat egitea Errenterian 1956tik 2012ra bitarte izandako giza eskubideen urraketei eta indarkeria ekintzei buruz. Aldi horri «oraintsuko memoria» esaten zaio.

55. Foroak adostutako azken dokumentuko zatia (geuk itzulia). 2016ko apirilaren 29an argitaratu zen, izenburu honekin: *Errenteriako elkarrizketa ekimena. Elkar aurkitu eta aitortzeko prozesu baten kontakizuna*.

Lan hori Argitzuz Giza Eskubideen Aldeko Elkarteak egin zuen, eta 2015eko azaroaren 10ean aurkeztu zen jendaurrean, lanean agertzen diren biktima batzuk bertan zirela. Udaleko indar politiko guztiek onartu zuten dokumentua, eta, aho batez, instituzionalki baliozkotu zuten.

Argitzuz-en lana askoren artean lehena izan zen, eta Gipuzkoako hainbat udalerritakoak etorri ziren ondotik: Lasarte-Oria, Elgoibar, Arrasate, Andoain edo Legazpi, kasurako.

2016an, Herritarren Elkarrizketa Ekimena edo Foroa aurkeztu zen jendaurrean, ibilbide pertsonal, sozial eta ideologiko oso desberdineko hemezortzi lagunez osatua. Jendurreko agerraldi horretan, protagonistek azaldu zuten hiru urte eta erdiz arituak zirela diskretuki lanean. Era berean, modu koralean egindako dokumentu batean, bizitako prozesua eta ateratako ondorio nagusiak kontatu zituzten:

Kide bihurtu gara nahi gabe. Sufrimenduan elkarrengana hurbiltzeko gai izan gara. Era berean, egiaztatu dugu zein zaila den «desberdinen» arteko adostasun politikoak lortzea. Bide hori taldearen helburu bihurtu da azkenean... Azkenik, ikasi dugu urrats eta keinu txikiak egin behar direla luzaroan barneratutako dinamikak aldatzeko⁵⁶.

2017an, biktimak aitortzeko bi ekitaldi egin ziren, Memoria partekatu baterantz dokumentua eta herriko hainbat biktimarekin izandako elkarrizketak oinarri hartuta. Bi ekitaldiak udalean ordezkari zuten indar politiko guztiek antolatu zituzten (EHBildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos), batera eta adostasunez.

56. Ibidem.

Azpeitia


Donostia
San Sebastián

●
Azpeitia

Gipuzkoako udalerrria, ia 15.000 biztanlekoa, Urola Kostan (Gipuzkoako mendebaldea).

Prozesua hasi zenetik, alderdi hauek izan dute ordezkari zuten udalean: EH Bildu eta EAJ/PNV.

Bizikidetzak esperientzia 2013. urtearen amaieran hasi zen, Gipuzkoako Foru Aldundiak *Bizikidetzak sustatzen* izeneko lan programa espezifiko abian jarri eta gero. Azpeitiko prozesua 2018an amaitu arren, udalak memoria lantzen jarraitu du. Alkatetzak EH Bildu du 2012az geroztik.



2014an, **Herritarren Bizikidetza Foroa** jarri zuen martxan udalak, bertan ordezkaturako indar politikoen adostasunez. Foroan, bizitza, gizarte eta ideologia ibilbide desberdineko hamar azpeitiarrek hartu zuten parte. Haietako batzuk ETaren eta Estatuaren indarkeriaren biktimak edo biktimen senideak ziren. Aldi berean, udalean elkarrizketa politikorako gune bat eratu zen.

2016aren amaieran, eta ia hiru urteko lan diskretu baten ondoren, Bizikidetza Foroak amaitutzat eman zuen bere ibilbidea, eta herritarren aurrean aurkeztu zituen bere emaitzak, ekitaldi publiko batean. Dokumentuetan, Foroaren ondorio partekatuen berri ematen da, eta, besteak beste, indarkeriari, haren ondorioei eta biktimei buruzko autokritika ariketa bat jasotzen da:

Badakigu sufrimendua oso bizirik dagoela oraindik, eta gaur egun ere sufrimendu espazio berriak ari direla sortzen. Baina uste dugu gertatutakoaren aurrean autokritika egin behar dugula. Norberak lan bat egitea eskatzen du horrek: geure baitara begiratzea, eta aztertzea zer egin dugun gaizki eta zer egin ez dugun. Gero jarrerak aldatzeko, keinuen bidez, urrats txiki bidez. Horrek inpaktua izango du inguruan⁵⁷.

Gertatutakoaren zergatiei buruzko hausnarketaren eta kontakizunaren laburpen gisa, ekimeneko parte hartzaileek honako hau azaldu zuten: «gertatutakoa ulertzeko “zergati” batzuk partekatu ditugu. Gai hau lantzeak elkarrizketa luzea eskatu digu. Urruntzen gaituzten ikuspuntuak izendatu eta errespetuz entzun ondoren, elkartzeko gaituena identifikatzera iritsi gara. Gure helburua ez da gertatutakoaren kontakizuna idaztea izan, ezpada kontuan hartu beharreko zenbait elementu eta gertaera identifikatzea. Gertatutakoaren “zergatiei” buruz hausnartzean, hiru ardatz identifikatu ditugu: 1) gatazka politikoa eta

57. Azpeitiko Bizikidetza Foroak 2016ko abenduaren 1ean Azpeitiko Sanagustin Kulturgunean aurkeztutako azken dokumentutik aterata (geuk itzulia).

beste gatazka batzuk; 2) indarkeriak eta 3) gatazka politikoaren eta indarkeriaren arteko loturak»⁵⁸.

2017ko urtarrilaren 10ean, Herritarren Foroko hiru emakumek, ETaren eta Estatuaren indarkeriaren biktimak ere, udalerriko mahai inguru batean parte hartu zuten. Lehen aldiz adierazten zituzten bizi izandako mehatxuak, tratu txarrak eta zigorgabetasuna jendaurrean. Foroaren esparru seguruan azaldu ahal izandako bizipen batzuk, orain jendaurrean azaltzen zirenak.

Bestalde, udala aurrera zihoan memoria berreskuratzeko lanean. 2018an, *Azpeitia 1960-2017* aurkeztu zen, Aranzadi Zientzia Elkartek egindako liburu bat, giza eskubideen urraketa larriak eta indarkeria politikoaren ondoriozko beste sufrimendu batzuk jasotzen dituena. Udalean zeuden bi indar politikoei antolatuta zuten ekitaldia, eta, han, Herritarren Foroan parte hartu zuten biktima batzuk ere izan ziren.

58. Ibidem.


Hernani



Gipuzkoako udalerrria, ia 20.000 biztanlekoa, Buruntzaldeko eskualdean (Donostiaren, Gipuzkoako hiriburuaren, hegoaldera).

2015etik, alderdi hauek dute ordezkariak udalean: EH Bildu, EAJ/PNV, Orain Hernani/Ahal dugu eta PSE-EE/PSOE.

Elkarbizitza esperientzia 2014ko hasieran jarri zen martxan, eta aldi berean abiarazi zuten herritarrek Herritarren Foroa eta Udalak bizikidetzaren mahaia. Alkatetza EH Bildu du 2012az geroztik.



«2014ko maiatzean, gure herriko elkarbizitza hobetzearen alde lan egiteko beharretik abiatuta, bizikidetzaren mahaia jarri zen martxan, modu oso diskretuan. Orduz geroztik, Hernaniko udalean ordezkariak duten sentsibilitate politiko guztiek osatu dute elkarriketarako gune hau»⁵⁹.

2015ean, udalak lehen ekitaldi publikoa antolatu zuen, udalean ordezkariak duten indar politiko guztien adostasunez. Hernaniko Ave Maria parkean biktima guztien omenezko monolitoa jarri zuten orduan. Lehen aldiz, espazio fisiko berean bildu ziren ibilbide sozial eta ideologiko oso desberdinak –batzuetan kontrakoak ere– zituzten ehunetik gora lagun.

Harri ondoan, Maialen Lujanbioren bertso hau irakur daiteke⁶⁰:

*Harri guztiak dira desberdin,
ta denak harri hala ere.
Bakoitzak behar du bere ideien,
hitzen eta ertzen jabe.
Baina elkarrekin eraikitzeko,
leundu behar goi ta behe,
zaugarri diren ertzak leundu,
leundu, kamustu gabe,
gu ez baikara elkarren berdin,
baina bai elkarren pare.*

*Ertzak leunduz lantzen lagundu
leheneko pasarteak.
Ez du denborak dena egingo,
euriak ta haizeteak...*

59. Udalerrian ordezkariak duten indar politiko guztiek sinatutako hitzaurrearen laburpena, liburua honetan: *Hernani 1960-2021. Motibazio politikoko indarkeria eta giza eskubideen urraketa larriak*. Aranzadi Zientzia Elkarte, 2023.

60. Maialen Lujanbio Zugasti (Hernani, 1976ko azaroaren 26a) euskal bertsolari eta idazlea da, bertsolari txapelketa nazionalaren lehen emakumezko irabazlea, 2009an.

*Harria landu ahalko du soilik,
guk hala nahi izateak;
elkarbizitzak, elkarri hitzak,
entzun eta esateak
Ez du denborak dena egingo...
bai, aldiz, borondateak.”*

2016an, jendaurrean aurkeztu zen Bizikidetzaren aldeko herritarren foroa, 2014an sortua udalerriko lau herritarren ekimenez. Agerraldian, oraindik ere «herritarren bizikidetzaren inklusiboaren» alde lan egitera bultzatzen dituzten ikaskuntzetako batzuk azaldu zituzten. «[...] egiez hitz egin nahi izan dugu; indarkeriaren monolitismoaren aurrean, ados gaude indarkeriak izan behar dutela hizpide. Biktima mota bakar baten prototipoaren aurrean, beren eskubideak zapuztuta ikusi eta –kasu batzuetan– ikusten jarraitzen duten guztien sufrimendua aitortzen dugu»⁶¹.

Udalak jarraipena eman dio 2015ean martxan jarritako memoria berreskuratzeko lanari. Bi mugarri publiko nabarmendu behar dira. Hasteko, 2019ko urtarrilean Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako txostena aurkeztu zen: *Motibo politikoz urratu diren giza eskubideak eta beste sufrimendu batzuk, Hernanin eta hernaniarrei gertatuak (Hernani 1960-2018)*.

Lan hori amaitzeko, bigarren ekitaldi ofizial bat egin zen 2023ko otsailean. Parada hartan, Hernani 1960-2021 liburua aurkeztu zen, zeina 2019an aurkeztutako txostena osatzera zetorren. Hala ere, aurrera jarraitzen du bizikidetzaren aldeko lanak eta, liburuaren hitzaurrean, ordezkari politikoek harekiko konpromisoa berretsi eta honako hau diote: «Espero dugu egia berreskuratzeko bidean ematen ditugun pausok erreparaziorantz eramango gaituztela, eta etorkizunean urrats horiek gure buruari eragin diogun sufrimendua gainditzeko tresna bihurtzea».

61. Taldeko hamar kideek adostutako eta 2016ko azaroaren 8an jendaurrean aurkeztutako dokumentuan jasotako zatia.


Tolosa

Donostia
San Sebastián

Tolosa

Gipuzkoako udalerrria, ia 20.000 biztanlekoa, Tolosaldeko eskualdeburua. Prozesua hasi zenetik oraindano, alderdi hauek izan dute ordezkari udalean: EAJ/PNV, EH Bildu eta PSE-EE/PSOE.

Bizikidetzaren esperientzia 2013an jarri zen abian, Tolosako Bizikidetzaren Foroarekin (herritarren elkarrizketa gunea). 2016an, udalean sortu zen elkarrizketa gunea, eta azken urteotan erakunde horrek jarraipena eman dio udalerriko bizikidetzaren prozesuari. 2015eko hauteskundearen ondoren, EAJ/PNVren eskuetan geratu zen aurrez EH Bildu-rena zen alkatetzaren



2013an, eta bakegintzaren eta elkarrizketaren eremuko beste militantzia sozial batzuetatik (Elkarri/Lokarri) zetozen herritar batzuen ekimenez, **Tolosako Bizikidetza Foro** izeneko elkarrizketa gunea jarri zen martxan. Bizitza, gizarte eta ideologia ibilbide oso desberdinak zituzten hamahiru kidek osatzen zuten: udalean ordezkaturako espekro ideologikoa ere zabaltzen zuten. Taldearen bizipen, ingurune sozial eta ideologiaren pluraltasunak udalean ordezkaturakoa gainditzen zuenez, bizikidetzaren eredugarritzat ikusi zen Foroa hala udalerrri barruan nola kanpoan, eta hala islatu zuen *El País* egunkarian jasotako artikulu batek⁶².

2013-2018 urteen artean, barne hausnarketako lanarekin batera, gizarte eragiletzan aritu zen Foroa, memoriarekin, bizikidetzarekin nahiz giza eskubideekin erlazionaturako gaiei buruzko hitzaldiak antolatuz. Gainera, eta udalean biktimen memoriari lotutako ekitaldi bateratuak antolatzeko adostasun nahikorik ez zegoenez, biktimei eta gizarteari zuzendutako memoria eta aitorten ekitaldiak antolatzeko ekimena hartu zuen Foroak.

Udalean 2016tik aurrera hasi ziren baldintza egokiak izaten biktimen memoriari buruzko adierazpenak, ekitaldiak eta ekimenak antolatzeko, batera eta adostasunez, eta gizarteari begirako hitzaldi zikloak ere antolatzeko. Hori dela eta, Bizikidetza Foroak, pixkanaka, zeregin hori bere gain hartzeari utzi zion.

2018-2020 aldian, aurrera jarraitu zen memoria berreskuratzeko prozesuan. Aranzadik eman zien jarraipena aurrez egindako lanei, Tolosan 1945etik 2020ra bitartean izandako giza eskubideen urraketak eta motibazio politikoko beste sufrimendu batzuk ikertuz.

2021ean, Tolosako Bizikidetza Foroak amaitutzat eman zuen zortzi urteko ibilbidea, eta jendaurrean aurkeztu zuen bere esperientziaren sistematizazioa. Bertan, kronologikoki jasotzen da Foroaren ibilbidea:

62. «Empezar a hablar», 2014ko abenduaren 3an *El País*-en argitaratua eta Luis R. Aizpeoleak idatzia, Tolosako taldeko lau kideri egindako elkarrizketan oinarrituta.

antolatutako ekitaldiak, prozesuaren kronikak eta bizikidetzarekin lotutako zenbait mugarri.

Foroaren ondarea jasotzen duen material bat, ikertzeko eta inspirazio iturri izateko.

Foroak webgunean jasotako azken ekarpenen artean, adosteko gai izan diren iraganaren kontakizun etiko partekatua dago, baita kontakizun poliedriko pertsonalak ere, zeinetan kide bakoitzak bere bizitza ibilbidea kontatu eta, hortik, gertatutakoaren irakurketa pertsonala egiten duen. Lan hori talde gisa egiteko orduan, marra gorri bat markatu zuten, ez justifikatzea, eta taldekide bakoitzak bere autokritika egin zuen, hemen eta orainetik.

Donostia/San Sebastián


Donostia
San Sebastián



Gipuzkoako probintziako hiriburua, 190.000 biztanle ingurukoa.

Udalean alderdi hauek dute ordezkaritza: EAJ/PNV, EH Bildu, PSE-EE, PP eta Elkarrekin Donostia (entra en el Ayuntamiento en 2015).

Bizikidetzaren esperientzia 2014. urtearen hasieran abiarazi zen, Udaleko ordezkari politikoak herritarren elkarrizketa gune bat osatzeko lanean hasi zirenean, haren bitartez bizikidetzaren lantzeko. Espazioa 2015ean jarri zen martxan. 2015eko hauteskundeetan ondoren, EAJ/PNV-ren esku geratu zen ordura arte EH Bildu-k zuen alkatetza.



2015ean, martxan jarri zen **Donostiako Herritarren Foroa**, bizi ibilbide, ibilbide sozial eta ideologiko oso desberdinak zituzten bederatzi kidez osatua. Udalak sortu zuen, eta udalean ordezkarietako sentsibilitate guztiek zeukatena isla bertan. Hala ere, forokideek ez zuten alderdirik ordezkarietako eta zeinek bere izenean ziharduten. Foroak modu autonomoan funtzionatu zuen 2019an bost urteko elkarrizketa prozesu baten ondoren itxi zen arte. Urte horretan esperientzia gizarteratzeko lanetan hasi ziren, bizikidetzari ekarpen esanguratsua egiteko. Gizarteratzea bi unetan eta material zehatz batzuetan gorpuztu zen.

2020an, Aizpea Goenaga forokideak zuzendutako *Bidea eraikitzen* dokumentala aurkeztu zen Donostiako Antzoki Zaharrean. Parte hartzaile bakoitzaren testigantzen bidez, modu koralean deskribatzen du elkarrizketa egindako elkarrizketa eta bizikidetzaren prozesua. Ekitaldi berean, udaleko indar politiko guztien ordezkarietako adostasunezko dokumentu bat irakurri zuten, Foroak haien babesa zuela berresteko.

2021ean, iraganari aurre egiteko erabilitako metodologia sistematizatu zuten forokideek; elkarlanean eraikitako metodologia bat da, mapa mentaletan islatua. Lan metodologia horrek aukera ematen du ondorio batzuk ateratzeko, eta iraganari buruzko autokritika ariketa bat eta bizikidetzarako zutabe etiko batzuk jasotzen ditu, taldean bizitako printzipio eta jarreretan oinarrituta.

Sistematizazio hori, baita Foroak landutako gainerako dokumentuak ere, *Donostiako Herritarren Foroa. Prozesuaren kaiera* (2021) argitalpenean daude jasota. Donostiako Udalak argitaratua, Eskura Giza Eskubideen Pedagogia Baliabideen Zentroaren parte da.

Arrasate/Mondragón

Donostia
San Sebastián




● Arrasate/Mondragón

Gipuzkoako udalerrria, ia 22.000 biztanlekoa, Debagoiena eskualdeko hiriburua.

Prozesua hasi zenetik, alderdi hauek izan dute ordezkariak udalean: EAJ/PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Podemos Arrasate.

Bizikidetzaren esperientzia 2016aren hasieran jarri zen martxan, udalean elkarrizketa politikorako espazio bat sortu zenean memoria lantzeko abiapuntu gisa. 2019an, gune hori instituzionalizatu, eta Partaidetza eta Bizikidetzaren Batzordea sortu zen.



2018an, udalean ordezkariak indar politikoen publiko egin zuten elkarrizketa gunea. Jakinarazi zuten 2016tik modu diskretuan lanean ari zirela, eta mahaiaren lana gidatzen duten printzipioak adierazi zituzten. Honako hauek ziren: «lankidetzaren, adostasuna, diskriminaziorik eza eta parekatzerik eza». Horrekin batera, eta prentsaurrekoan bertan, biktimei aitortpena egiteko adostutako egutegia ere aurkeztu zuten, zeina mahaiaren konpromiso bihurtu baitzen harrezkero.

2018. eta 2019. urteen artean, memoria berreskuratzeko bi lan aurkeztu zituzten jendaurrean. Haien bitartez, Arrasaten 1936tik 2018ra bitarte izandako giza eskubideen urraketak eta motibazio politikoko beste indarkeria ekintza batzuk jaso ziren. Bi lanek «memoria partekatua eraikitzeko beharrezkoak ziren oinarriko kontsentsuak»⁶³ zituzten, eta bi ikerlanen metodologian eta printzipio gidarietan zertu ziren kontsentsu horiek. Metodologiari dagokionez, memoria bi epetan banatzea adostu zuten, liburuaren izenburuetan jasotzen den bezala. Indarkeria ekintzak sailkatzeko printzipio gidariei dagokienez, onartu zuten giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arabera sailka zitezela, eta haiek ez ezkutatzeko, ez nahastea eta ekitate printzipioa aplikatzea. Horrenbestez, memoria berreskuratzeko bi ikerlan ia aldi berean egin zituzten lehen udalerrria bihurtu zen Arrasate. Biek batera, 1936tik gure egunetara arteko aldia lantzen dute.

Hain zuzen, bi ikerlan horiek izan ziren oinarria ETAK hildako zinegotzien, eskuin muturreko taldeek hildako herritarren nahiz soldadu frankistek hildako zinegotzi eta udal langileen aitortpeneko ekitaldiak egiteko orduan. Ekitaldiak udalean ordezkariak indar politikoen lankidetzari eta adostasunari esker antolatu ziren.

63. Ikerlan honetan jasotako hitzurre adostutik: *Memoria partekatua baterantz. 1956-2018 Arrasate/Mondragón. Hacia una memoria compartida*. Argituz, 2018.

8. Azken oharrak

8.1. Zenbait ikaskuntza

Benetakotasuna, sinesgarritasuna eta legitimitatea. Elkarrizketa politikorako guneetan, udaleko ordezkari publikoak gai direnean adierazpen bateratu bat adosteko, ekitaldi bat egiteko, adibidez biktimen aitorpenerako, edo hitzaldi zikloak antolatzeko, halakoan inpaktua ez datza ekimen zehatz horietan soilik, baizik eta gai mingarri eta gatazkatsuen gaineko adostasunak lortzeko agertu duten gaitasunean. «Nola» horretara heltzeko beharrezkoak izan baitira, pentsatzekoa denez, elkarrizketa korapilatsuak, akordioak lortzeko ahaleginak, eta hala elkar ulertzeko nola uko egiteko ariketa bat, zer partekatzen den aurkitzeko. Ondorioz, urrats esanguratsuz hartzen da, eta, hortaz, bizikidetzarako ekarpenzat. Izan ere, hortik, benetakoagoak eta sinesgarriagoak sentitzen dira adierazitako mezuak eta egindako keinuak. Horrek legitimitatea ematen die ordezkari politikoei gizarte ekimenak bultzatzeko orduan, edo bizikidetzaren aurkako jarrera edo ekintzen aurrean deialdiak egitean edo posizionamendu bat hartzean. Jardun politikoa eredugarritzat jotzen da, eta eredugarritasun horrek ematen dio zilegitasuna.

Efektu biderkatzailea inpaktuan. Elkarrizketa prozesu horiek publiko egiten direnean, eragin biderkatzailea dute inpaktuan. «Bestearekin» elkarrekin eta hura aitortzea ariketa konplexu gisa ematen da ikustera, baina ez horregatik arriskutsua, eta ez hain ezinezkoa. Ezinezkoaren mitoa hausten da, eta, horrela, beste pertsona batzuk inspiratuak senti daitezke, baita pauso hori ematera deituak ere. Espazio bateko parte hartzaile batek zioen moduan, «gizartean oro har egin beharko litzatekeenaren proba pilotu bat» bezala dira⁶⁴. Inpaktua

neurtzea ia ezinezkoa den arren –eta batzuetan etsigarria da hori–, eta udalerrri mailako aldaketa guztiak zuzenean lotuta ez badaude ere, esan daiteke halako esperientzien uhin hedakorrak zabalak direla. Beste pertsona batzuk prozesu berrietan parte hartzera animatzen dituzte, direla udalerrri berean, direla beste batzuetan. Inspiratzeko gaitasuna dute, eta, batzuetan, emulatzera daramate. Beste batzuetan, beren burua konpromiso bera hartzeko indarrez ikusten ez dutenek txalotu egiten dute beste herritar batzuk egiteko gai izan direna. Hortaz, hasiera batean talde txiki batek emandako pausoak edo egindako hausnarketak zirenak, jende talde handiago batek –zeharka bada ere– emandako pausoz har litezke, identifikazioz. Horrela aipatzen zuten beste herritar talde batean, «irakurleak gure kontakizuneko zenbait pasarterekin identifikatzen diren neurrian kontakizuna ez dela soilik gurea»⁶⁵.

Hainbat aktore dituzten elkarbizitza prozesuak dira. Aipatutako espazioen bidez, elkarrizketa mota bat baino gehiago egituratzen da: herritarren espazioak, espazio politikoak nahiz biktimen espazioak. Baina haietatik, beste eragile batzuekiko konexioak sortzen dira, bilatutako konexioak nahiz iritsitako konexioak izan. Bilatutakoen artean daude, besteak beste, artistei edo kulturagileei (eskultoreak, margolariak, musikariak, dantzariak) laguntza eskatzea biktimen aitorpenerako ekitaldi bat antolatzeko, argitalpen bat egiteko edo memoria elementu sinbolikoak sortzeko. Berariaz bilatu ez baina sortzen diren konexioen artean, aldiz, udalerrian errotutako beste eragile batzuekiko lankidetzak leudeke; adibidez, ikastetxeak, erretiratuak elkarrekin, gor-mutuen elkarrekin, museoak eta immigrazioari laguntzeko elkarrekin, edo guneetara beren proposamenak azaltzera hurbiltzen diren tokiko kultura eragileak. Beste batzuetan, beste aktore batzuek sustatzen dituzte, modu

64. Donostiako Herritarren Foroko kide baten lekukotzaren zati bat, Bidea eraikitzen dokumentalean.

65. Tolosako Bizikidetzeta Foroak sortutako webgunean, atal honetan: «2021. Kontakizun poliedrikoak».

paraleloan eta ageriko harremanik gabe, norabide berean bateratzen doazen beste ekimen batzuk. Horrela, bizikidetzaren prozesuaren ideiak dimentsio berri bat hartzen du, non eragile anitzen arteko lankidetzak, esplizituki nahiz inplizituki pixkanaka ehuntzen den interkonexioak, elkarrekin bizitzeko modua ulertzeko dinamika berri bat elikatzen duen. Gizarte mailan sareak eta aliantzak eraikitzen dira udalerriko eragile ugariaren artean.

Gertatutakoa transmititzea, «kontakizunei» aurre egitea. Herritarren guneetan, erronka handienetako bat izan da, alde batetik, aukerako formula bat bilatzea taldekide guztiei leku bat eman eta abegi egiteko, haien bizipenen eta gertatutakoaren haien bertsioen bitartez. Bestetik, modu kritikoa eta zintzoki begiratzea iraganari, eta, zalantzarik gabe, nork bere buruaz eta ibilbideaz hitz egitea eta «bestearen» ispiluaren aurrean jartzea eskatu du horrek. Kritikoki begiratzea taldearen hemen eta orainetik, indarkeriazko eta sufrimenduzko iragana transmititzeko eta ez dadin berriro errepikatu. Iraganaren gaineko begirada kritiko horrek geure burua arriskatzeko eskatu du, ongi jakinik erantzukizunak zuritu edo lausotzeak ez diola inori laguntzen. Horren ondorioz, lengoia komun bat bilatu behar izan da, indarkeria zuzenean sufritu duten pertsonentzat nahiz gizarte osoarentzat baliagarria izango dena. Sufritu dutenei eta oraindik sufritzen dutenei zauriak sendatzen edo kontsolamenduren bat ematen lagunduko duen lengoia bat. Kontzientzia eta argitasun horretatik abiatuta, autokritika ariketa sakonak probatu dira, eta erantzukizuna onartzea eskatu dute, bakoitzaren errealitatera egokiturik. Irizpide komunak eta partekatuak bilatu dira iragan mingarri eta bidegabe baten ardura kolektiboki hartzeko, eta, horretarako, giza duintasuna eta giza eskubideak hartu dira oinarritzat. Indarkeria ez errepikatzeari eta prebenitzeari begira, «bizikidetzarako zutabe etikoak» adostu dituzte batzuek, Donostiako Herritarren Foroak jaso bezala. Bizitako elkarrizketez, ikasitakoaz eta talde prozesuan txertatutakoaz hitz egiten digute zutabe horiek eta, azken batean, amorrua eta ezintasuna gutxitzen laguntzen dute, elkar ulermena ahalbidetzen dute, eta, beraz,

harreman dinamika eraikitzaileagoa eta eraginkorragoa jasotzen dute gizarte plural guztietan sortzen diren desadostasun naturalei heltzeko.

Zaintzaren dinamika. Harremanen dimentsioa funtsezko elementua da elkarrizketa gune guztietan, eta hark ahalbidetzen du prozesu horiek posibleak, esanguratsuak eta benetakoak izatea. Giza faktorea, herritarren guneetan zein gune politikoetan arian-arian ehuntzen diren lotura ukiezinak, prozesuak sostengatzen dituen armiarma sarea dira. Gainera, zaintzak zentraltasuna hartzen du prozesu horietan: harremanak, konpromiso partekatuak, espazioa eta esperientzia zaindu behar dira. Horrek guztiak, funtsean, elkar zaintzeaz eta elkarrekikotasunaz hitz egiten digu. Zaintzea, adiera horretan, ez da adeitsua izatea, atsegin ematea (arrazoia ematea), amore ematea edo gatazka ukatzea. Aitzitik, zaintzea da hitz egitean eta entzutean mugitzen zaigunari leku bat ematea, esan nahi duguna zintzoki adieraztea, bakoitzaren denborak errespetatzea, aukeratzeko askatasuna izatea. Zenbat eta gehiago zaindu, orduan eta gehiago eman dezakegu, eta, beraz, urrunago irits gaitzke. Zaintza tresna eraginkorragoa da baita norberaren nahiak lortzeko ere, eta, gainera, konponbide iraunkorragoak eraikitzen ditu, guztiok zaintzen gaituzten heinean.

8.2. Egiteko dagoen bidea

Udalerriko prozesu edo ibilbide bakoitzaren sistematizazioa / esperientziaren erregistroa. Erronka bat da esperientziak modu koralean sistematizatzea, protagonistei ahotsa emanez, eta zintzoki, zerk funtzionatu duen eta zerk ez zehaztuz. Lagungarria izan liteke udalerrri bakoitzean egindako urrats publikoen logika eta koherentzia ulertzeko, batez ere espazio politikoen kasuan, diskrezioz lan egiten dutelako. Oraingoz, beren ibilbidea amaitzea erabaki duten herritarren foroek soilik egin dute lan hori (Errenteria, Azpeitia, Tolosa eta Donostia). Espazio politikoek zailtasun handiagoa dute, batez ere, bi arazoirengatik: batetik,

esperientzia ez patrimonializatzearen kezka zuhurtzia sortzen duela, eta, bestetik, espazio batzuek aldaketa nabarmenak izan dituztela zenbaitetan osieran, eta horrek zalantzak sortzen dituela gaur egungo kideengan, lehen pertsonan bizi izan ez duten prozesu bat kontatzeko zilegatasuna ote duten. Horri guztiari prozesuak abian jarri zirenetik igarotako denbora gehi dakioke, batzuetan ez baitu mesederik egiten. Udalen webguneetan memoriaren, biktimen edo bizikidetzaren arloan emandako pausoak jasoko dituen espazio bat sortzea, esperientzia komunitatearekin berarekin partekatzeko ez ezik, udal mailan prozesuaren erregistro bat uzteko ere modu bat izan liteke. Toki bat edukitzeak orain arte egindakoaren historikoa uzteko (dokumentu grafikoak, idatzizko dokumentazioa, ikus-entzunezkoak nahiz bileren aktak), prozesuaren transmisioan lagunduko luke, bai herritarrei begira, bai espazioen osaera aldatzen denean, eta azterketarako eta ikerketarako material baliotsua izango litzateke.

Memoriaren eta bizikidetzaren lana instituzionalizatzea. Udalerri bakoitzak bere memoria eta bizikidetzaren politika publikoak egin ahal izateko behar diren baldintzak sortzea litzateke hoberena. Dinamika instituzionalean integratzea prozesu horiek eta haien jardunbideak, iraunkortasuna bermaturik. Betiere, gai horiek lantzen dituzten udalaz gaindiko beste erakunde batzuekin lankidetzan eta koordinatuta, lanerako dinamika koherentea eta partekatua sortzeko eta ahaleginak ez bikoizteko. Pixkanaka, urrats batzuk egiten ari dira norabide horretan. Udalerri batzuetan, udalaren berezko egitura batzuek garatzen dituzte elkarrizketa prozesuak edo lantzen dute bizikidetzaren (ezohiko bozeramaileen batzordea edo bizikidetzaren batzordea). Horri esker, formaltasun handiagoa ematen zaie egindako urratsei, bizitza instituzionalean erregistratuta geratzen direlako eta babes politikoa ohiko bide instituzionalen bitartez jasota geratzen delako (batzordeen eta osoko bilkuren irizpenetan). Gainera, azken urteotan aurrera egin da hainbat gai protokolizatze bidean: besteak beste, biktimengana hurbiltzea, aitorpen eta erreparazio ekitaldiak prestatzea, edo nola aurre egin bizikidetzaren aurkako erasoei halakorik balitz. Protokolo horien

guztien oinarria praktikan bermatutako ikaskuntza enpirikoa da, tartean diren eragileen lankidetzaren aktiboari esker (herritarrak, politikariak eta, kasua bada, biktimak). Ekarpene hori, balio handikoa, protokolo instituzional batzuetan gorputzu liteke denborarekin.

Prozesuen inpaktua eta alboetara eragiteko gaitasuna. Espazio horien osaera nahitaez izango dira aldaketak, lau urtean behingo hauteskundeak eta elkarrizketa prozesu horien iraupena direla bide –oraingoz legegintzaldi bat baino gehiago baitiraute, eta gehienek bi–. Espazioetako kideen aldaketak eragina du prozesuetan, lehen ikusi dugun bezala. Hortaz, espazioetako kideez gain beste alderdikide batzuk ere nola sartu ikustea da erronketako bat. Horrela, osaera aldaketek prozesuan duten eragina gutxitzeaz gain, errazago ulertu eta txertatuko lirateke elkarrizketa espazioetako aurrerapausoak alderdi bakoitzean eta ingurune soziologikoan. Hori guztia izandako elkarrizketei dagokien konfidentzialtasuna gordetzearekin bateratu behar da.

Harremanetarako erreferente berriak eta elkarrizketa kultura arduratsuagoa eta zintzoagoa sortzea, esperientzia integratuz. Laneko dinamika, lan egiteko modu horrek, udalerriko bizitza sozial eta politikoko beste espazio batzuk ere busti ditzala. Horrelako prozesu bat bizitzeak berekin dakar dimentsio pertsonala jokoan jartzea, eta entzuteko, konektatzeko eta adosteko gaitasun berriak garatzea ahalbidetzen du. Sufrimenduaren eta desberdinen arteko bizikidetzaren moduko gai konplexu eta mingarrietara hurbiltzeko modu berriak esploratzea ahalbidetzen du. Parte hartzaileek hori guztia barneratzen duten heinean, jardunbide arduratsuago horiek udaleko zein udalerriko bizitza politikora estrapolatu ahal izatea izango da erronka, behar bada, eremu politikoan batik bat. Makro mailan norabide bereko ekimenak bultzatu ahala, errazagoa bihurtuko da praktika berri horiek erreferentzia esparru kolektibo berriak sortzea eta, beraz, baita kultura politiko berri bat ere. Eta, era berean, elkarrizketaren dinamika estrapolatzea, ez soilik indarkeria politikoari edo eremu horretako bizikidetzari buruzko gaietara, baizik eta baita udalerriko bizitza sozial eta politikoen eremu guztietara ere.